




BIASTERIKO (ARABAKO ERRIOXA) LURRALDEKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA EREMU FUNTZIONALEAN NEKAZARITZA ERAIKUNTZAK ETA UPELTEGIAK ARAUTZEARI DAGOKIONEZ, ETA INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIOAREN AZTERLANA

TESTU BATEGIN

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Toki Administrazioaren eta Lurralde
Oreka Saila



DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
Departamento de Administración
Local y Equilibrio Territorial

EUSKO JAURLARITZA
Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantza Saila



GOBIERNO VASCO
Departamento de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura
y Pesca

ARABAKO ERRIOXAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLAN-ALDAKETAREN SUSTAPENA ETA ZUZENDARITZA
PROMOCIÓN Y DIRECCIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL PARCIAL DE LAGUARDIA (RIOJA
ALAVESA)

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailburua. Eusko Jaurlaritza.
Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco

Pilar Unzué Pérez de Eulate
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Sailburua
Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

Ignacio Achucarro Arruabarrena
Lurralde Plangintzaren eta Uren Sailburuordea
Viceconsejero de Planificación Territorial y Aguas

Alfonso Sanz Araujo
Lurralde Antolamendu Zuzendaria
Director de Ordenación del Territorio

Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saila. Arabako Foru Aldundia.
Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial. Diputación Foral de Alava.

Iñaki Nafarrate Kortabarria
Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatu
Diputado Foral de Administración Local y Equilibrio Territorial

Jokin Villanueva
Lurralde Oreka Zuzendaria
Director de Equilibrio Territorial

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saiburuko TaldeTeknikoa (Eusko Jaurlaritza)
Equipo Técnico del Dpto. de M. Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca (Gobierno Vasco)

Jesús M^a Erquicia Olaciregui
Lurralde Antolamendu eta Planeamendurako Zerbitzuaren Arduraduna.
Arkitekturan Doktorea
Doctor Arquitecto. Responsable Servicio O.del Territorio y Planeamiento

Luzio Fdz. de Retana Garmendia
Arabako Lurralde Antolamendurako Arduradun. Arkitektoa
Arquitecto. Responsable Ordenación Territorial de Alava

Mercedes Izquierdo Fernández
Lurralde Antolamenduko Letradua
Letrado Ordenación del Territorio

Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko TaldeTeknikoa (AFA)
Equipo Técnico. del Dpto. de A. Local y E. Territorial (D.F.A.)

Javier Gatón Pérez de Albéniz
Hirigintza Zerbitzuko Burua. Arkitektoa
Arquitecto. Jefe Servicio de Urbanismo

Norberto Aldaiturriaga Zorrozu
Letradua
Letrado

Nekazaritza Saileko TaldeTeknikoa (AFA)
Equipo Técnico del Departamento de Agricultura (D.F.A.)

Fernando Martínez Bujanda Ruiz Carrillo
Laguntza teknikaria
Técnico de apoyo

AGIRI HAU IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK
ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA REDACCIÓN DE ESTE DOCUMENTO

Zuzendaritza, Koordinazio eta Plangintza
Dirección, Coordinación y Planeamiento

Ana Serrano Díez-Canedo (GRAMA)
Geologoa
Geóloga

Rosana Gil Franco (GRAMA)
Biologoa
Bióloga

Hirigintza Aholkularitza
Asesoría Urbanística

M^a Paz Larrumbide Moreno (GRAMA)
Arkitektoa
Arquitecto

Energia Berriztagarrien Aholkularitza
Asesoría Energías Renovables

Ismael Caballero Domínguez
Energia Sistemen Ingeniaritzan Doktorea
Doctor Ingeniero en Sistemas Energéticos

Lege Aholkularitza
Asesoría Jurídica

Juan Landa Mendibe (EKAIN)
Abokatua
Abogado

Laguntzaile Taldea
Equipo de Apoyo

Beatriz Larrumbide Moreno (GRAMA)
Delineatzailea
Delineante

DOKUMENTUEN AURKIBIDEA:

• **I. DOKUMENTUA: BIASTERIKO (ARABAKO ERRIOXA) LURRALDEKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA**

a. LPParen ALDAKETAREN MEMORIA	1
a.1.- XEDEA	1
a.2.- AURREKARIAK	1
a.3.- ALDAKETAREN EREMUA	8
a.4.- LEGE ESPARRUA	8
a.5.- SEKTOREKO HIRIGINTZA EGOERA ETA EGOERA SOZIOEKONOMIKOA	8
a.5.1.- TRATAMENDUA ARAU SUBSIDIARIOETAN	9
a.5.2.- MAHASTI AZALERA	9
a.5.3.- DAUDEN UPELTEGIAK	11
a.5.4.- ERANTSITAKO BESTE DATU BATZUK	15
a.5.5.- ARAZOAREN LABURPENA	16
a.6.- ALDAKETA PROPOSAMENA	19
a.6.1.- AURKEZPENA	19
a.6.2.- DEFINIZIOAK	20
a.6.3.- PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA	22
a.6.4.- LPPAREN MEMORIARI EGINIKO ALDAKETAK (7.2 ETA 7.6 PUNTUAK)	25
b. LPParen ALDAKETAREN ARAUDIA	33
b.1.- ALDAKETA PROPOSAMENA	33
b.1.1.- "MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZA. UPELTEGIAK" IZENEN 34. ARTIKULUARI EGINIKO ALDAKETAK	33
b.1.2.- 34 BIS ARTIKULU BERRIA: "NEKAZARITZAKO BESTE ERAIKUNTZA BATZUK"	37
c. EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERLANA	38
d. EGIKARITZE PROGRAMA	38

• **II. DOKUMENTUA: INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIOAREN AZTERLANA:**

<u>0. SARRERA</u>	1
<u>1. LPParen ALDAKETAREN HELBURUEN ETA HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA</u>	1
1.1. ALDAKETAREN JARDUERA EREMUA ETA DENBORA HELMENA	1
1.2. ALDAKETAREN HELBURUAK	1
1.3. HAUSNARTUTAKO HAUTABIDEAK	2
1.4. PROPOSAMENAREN LABURPENA	2
1.5. HIERARKIAN GAINETIK DAUDEN BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUK KONTUAN HARTZEKO ZEHAZTAPENEN LABURPENA	3
1.6. ERAGINAK SOR DITZAKETEN JARDUNEN ETA ZEHAZTAPENEN IDENTIFIKAZIOA	4
1.7. GAUZATZEAREN FASEAK	4

1.8. SUMATU AHAL IZAN DIREN INFORMAZIO HUTSUNEAK	4
1.9. PARTE HARTZE PUBLIKOAREN PROZESUA	4
2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARREKINTZAREN AZTERKETA....	5
2.1. ALDAKETARI ERAGITEN DIOTEN ETA LANTZERA KOAN AINTZAT HARTU DIREN MAILA ALTUAGOKO GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK.....	5
2.2. ALDAKETA LANTZERA KOAN AINTZAT HARTUTAKO INGURUMENAREN ALORREKO XEDAPENAK ETA LEGEDIA	8
2.3. EREMU FUNTZIONALEAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN ETA PROIEKTU BATZUK.....	9
3. ALDAKETAK ERAGINDAKO EREMUAREN GAINEKO INGURUMEN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA	11
3.1. AZTERKETA EREMUAREN DEFINIZIOA	11
3.2. LURZORUAREN EGUNGO BALIABIDEEN ETA ERABILEREN APROBETXAMENDUA.....	11
3.3. ERAGINAK JASO DITZAKETEN INGURUMEN ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA ETA EZAUGARRI AZALPENA	13
3.4. INGURUMEN BALIABIDE BALIOTSUEN IDENTIFIKAZIOA	18
3.5. LURRALDEAREN ETA BERE BALIABIDEEN INGURUMEN BALORAZIOA. INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK	22
3.6. INGURUMEN DIAGNOSTIKOA. SUMATUTAKO ARAZOAK ETA AUKERAK	23
3.7. INFORMAZIOA BILTZEKO ZAILTASUNAK.....	27
4. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN HAUTABIDEEN INGURUMEN AZTERKETA. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	28
4.1. HAUSNARTUTAKO HAUTABIDEETAN BILDUTAKO JARDUEREN DEFINIZIOA	28
4.2. ZERO HAUTABIDEAREN EDO "ESKU HARTZE EZAREN" DEFINIZIOA	29
4.3. PROPOSAMENAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEAK.....	29
4.4. ALDAKETAREN PROPOSAMENEK SORTUTAKO ERAGINEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO OROKORRA.	30
4.5. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	32
5. SUMATUTAKO ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA.....	34
5.1. LPParen ALDAKETAREN HELBURUEK INGURUMENEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA	34
5.2. LPParen ALDAKETA PROPOSAMENAREN INGURUMEN ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	34
6. NEURRI BABESLEAK, ZUZENTZAILEAK ETA KONPENTSAZIOZKOAK	37
6.1. GORAGOKO MAILETAN EGINIKO INGURUMEN ERAGINAREN EBALUAZIOZTIK ETORRITAKO NEURRIAK.....	37
6.2. ALDAKETAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA	37
6.3. GARAPENARI ERANTSI BEHARREKO NEURRIAK ETA ALDAKETAREN APLIKAZIOA	38
7. LPParen ALDAKETAREN ERAGINAK GAINBEGIRATZEKO INGURUMEN PROGRAMA	39
7.1. KONTROL HELBURUAK ETA JARRAIPENA.....	39
7.2. JARRAIPENAREN XEDE IZAN BEHAR DIREN ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA.....	39
7.3. JAGOLETZA PROGRAMA.....	40
8. LABURPEN DOKUMENTUA.....	42
9. DOKUMENTAZIO KARTOGRAFIKOA.....	49
1. PLANOA.- INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK	
I. ERANSKINA.- ALDERAKETA INDARREKO ARAUDIAREN ETA ALDAKETA PROPOSAMENAREN ARTEAN (LPPAREN 34. ARTIKULUA)	



I. DOKUMENTUA:

BIASTERIKO (ARABAKO ERRIOXA) LURRALDEKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA EREMU FUNTZIONALEAN NEKAZARITZA ERAIKUNTZAK ETA UPELTEGIAK ARAUTZEARI DAGOKIONEZ

a. LPParen ALDAKETAREN MEMORIA

a.1.- XEDEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailaren ekimenaren ondotik Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialaren aldaketa hau idatzi da. Helburu nagusia eremu funtzionaleko upeltegiak arautzeko araudia (lurzoru urbanizaezina mantendu eta babesteari zuzendurikoa) eskualdeko egoera sozioekonomikoari eta mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorearen funtzionamenduari egokitzea da.

a.2.- AURREKARIAK

Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partziala behin betiko onartu zen abenduaren 28ko 271/2004 Dekretuaren bitartez (EHAA, 29. zk., 2005eko otsailaren 11koa), eta indarrean dago 2005eko martxoaren 12tik aurrera. LPP hau udaleko hirigintza planeamenduari aplikatu beharrekoa da, eta, edonola ere, hari egokitu beharko zaio gehienez ere bi urteko epean indarrean jartzen denetik aurrera.

LPPk antolatzen dituen alderdi ezberdinen artean lurraldeko upeltegien erabilera arautzearena dago. Horrela, "Mahastizaintza eta ardogintza. Upeltegiak" izeneko 34. artikuluan upeltegiak jartzeko irizpideak edo orientabideak ematen dira, bai hiri luzorur urbanizagarrietan, bai luzorur urbanizaezinetan jartzekoak direnean. Horien artetik, hurrengoak azpimarra daitezke:

g) Gutxienez 10 ha-ko [100.000 m²] mahasti saila izango duen azalera ekarri izana justifikatu beharko da, lurzati hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera 20.000 m²-koa [2 ha] izango da.

h) Gehieneko eraikigarritasuna, lurzati hartzaileari soilik aplikatutakoa, 0,2 m²/m²-koa izango da, eraikin bakarrerako finkatutako 8.000 m²-ko aprobetxamendu mugatzailearekin. Zenbait eraikin independente onartuko dira, baldin eta distantziari, orientazioari, etab. dagokienez udal planeamenduak ezarritako xedapenak betetzen badituzte.

i) Instalazio bakoitzak behar bezala ebatziko du aparkaleku zuzkidura, gutxienez plaza bana aurreikusiz 100 m²-ko, ibilgailu pribatuetarako. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie. Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 2.000 m²-ko.

Puntu horien gainean hainbat alegazio eta idazki aurkeztu zituzten estamentu eta elkarte ezberdinek, eta horiek jarraian laburbilduko dira.

Biasteriko koadrila

2003ko ekainaren 17an Biasteriko Koadrilak, jendaurrean jartzeko izapidearen epean, alegazio dokumentua helarazi zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari. Bertan, 19. puntuan, zera adierazten da:

“Mahastizaintza eta ardogintza. Upeltegiak” izeneko 34. artikuluko edukia Udalekin adostu beharko litzateke. Izan ere, bertan jasotakoa bereziki kaltegarria izan daiteke sektorearentzat kokapenari, hornidura azpiegiturei eta saneamenduari, energia elektrikoari eta aparkalekuei dagokienez”.

2006ko azaroaren 17an ohiko osoko bilkura egin zuen Biasteriko Koadrilak. Bertan, Biasteriko LPPa zuhurtziaz indarrrik gabe uztea eskatu zuten jarraian adierazitako erabakiaren ondotik:

“Guardiako, Kripango eta Eltziegoko Udalek aurkeztutako idazkien berri eman nahi da. Bertan, Arabako Errioxarako onartutako LPPa aldatzea eskatzen dute, kontuan hartuz bertan ezarritako betekizunek ezinezko egiten dutela erabat Lurzoru Urbanizaezinean urteko ardoaren upeltegiak eraikitzea, eta, halaber, nabarmenki zailtzen duela upeltegi enpresa handiak tokian ezartzea.

Eskaera horren ondotik eta sortutako eztabaida ikusita, gabezia horiez gain beste hainbat ere adieraziz, adibidez LPPk ez dituela kontuan izan azpiegiturak eta Arabako Errioxarentzako etorkizuneko oinarritzko zerbitzuak 2003ko ekainaren 17an erakunde honek aipatutako planarentzat alegazio batzuk onartu bazituen ere (eta aurkeztu bai baina ez ziren kontuan izan), Osoko Bilkurak aho batez erabaki du Arabako Errioxarako LPP horren aplikazioa eta eraginkortasuna zuhurtziaz indarrrik gabe uztea. Arrazoia horren aplikazioak Eskualdeko ekonomiaren eta gizartearen garapenerako ekarriko lituzkeen ondorio oso larriak dira. Plana oztopoa da ardoaren eta turismoaren ekonomia garatzeko, eta horiek dira Eskualdeko ekonomiaren benetako bultzatzaile diren sektoreak”.

2007ko urriaren 2an Biasteriko Koadrilak helarazitako idazki bat iritsi zen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Zuzendaritzara. Koadrilak, aldi berean, Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartetik (UAGA) jasoa zuen bere erregistroan adierazitako idazki hori. Aipatutako idazkiaren izenburua honakoa da: “UAGArek hausnarketak Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionalaren Lurraldeko Plan Partzialaren (LPP) gainean”. Bertatik, hurrengo azpimarra daiteke:

Hori dela eta, UAGAtik berriro ere azpimarratu egiten da koordinazioa egon behar dela Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeako ALParen eta Arabako Errioxako LPParen artean. Horrela, eskatu egiten dugu LPPn Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeako ALPan nekazaritzako lurzoruetarako jarritako babes maila berdina sar dadila.

UAGAtik uste da instalazio mota bakoitzerako berariazko araudia garatu behar dela, horietako bakoitzaren ezaugarriak gorabehera.

Hori dela eta, lurzoru urbanizaezinetan urteko ardoaren upeltegiek eta upeltegi handiek upeltegiak jartzeko baldintzak aldatu eta bereiztea eskatzen dugu (34. artikulua), betiere, Errioxako JDKn inskribatutako upeltegiak badira.

Lurzoru urbanizaezinak (Errioxako JDKn inskribatutako upeltegietarako).

1. Errioxako JDKren urteko ardoaren upeltegiak.

UAGatik egiten den proposamena eraikigarritasun koefizientea txikitzea da urteko ardoaren upeltegiarentzat. Koefizientea Eskualdeko udalerri gehienetan indarrean dauden arau subsidiarioetan ezarritako antzeko mailan jarriko litzateke, egokitzen jotzen baita horrelako ustiategiarentzako.

Gutxieneko lurzati hartzaileari dagokionez, urteko ardoaren upeltegiarentzat kontuan izan behar da Eskualdeko mahasti ustiategien batez besteko azalera 7tik 8ra bitarteko hektarea kopurua dela. LPPak ezarritako irizpidearen arabera, azalera 10 hektareakoa da upeltegiari uztartutako mahastietan. Horrek ezinezko egiten du mahastizaintzako ustiategi askok hiri lurzorutik edo lurzoru urbanizagarritik kanpo upeltegia eraiki ahal izatea. Gainera, LPPk ezarri egiten du gutxieneko lurzati hartzailea 20.000 m²-koa izatea. Baldintza hori betetzea, berriz ere, oso zaila da, zonaldeko orografia eta bertako lurzatatzea ikusita mahasti gutxi eskuratzen duelako 2 hektarearen azalera.

Hori dela eta, UAGak lurzati hartzailearen gutxieneko azalera gutxitzea proposatzen du.

2. Errioxako JDKren upeltegi handiak.

UAGak proposatzen du upeltegi handien eraikuntza gutxieneko azalera duen mahastia izateari uztartu behar zaiola, edo, bestela, zonaldeko mahats hornitzaileei mahatsa erosteko kontratuei uztartu, Aipatutako upeltegiaren hornidura bermatze aldera.

Guardiako Udala

2006ko irailean, Guardiako Udalak, Koadrilako Aholkularitza Teknikoak landutako txostenaren bitartez, hainbat hausnarketa helarazi zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari:

“3. Upeltegi motak.

LPParen Memoriako 7.6 idatz zatia irakurri ostean ondorioztatzen da upeltegi mota bakoitzerako arau ezberdinak egon beharko liratekeela horiek ezarri ahal izateko. Zentzu horretan ere ulertzen da jarraian xehatzen diren baldintza guztiak upeltegi handiek betetzeko izango liratekeela, eta ez urteko ardoaren upeltegiarentzat.

Aitzitik, Araudiaren 34. artikulura iritsita, ez da bereizketarik egiten urteko ardoaren upeltegien eta upeltegi handien artean.

Araudi honetan ez da mugarik zehazten upeltegi mota baten eta bestearen artean ezberdintzeko. Horrela, araudiaren betekizunak edozein upeltegi motari aplikatu behar zaizkiola uste da.

4. Upeltegiak jartzeko bete beharreko eskakizunak.

2. Upeltegiak lurzoru urbanizaezinean:

g) Gutxienez 10 ha-ko mahasti saila izango duen azalera ekarri izana justifikatu beharko da, lurzati hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lurzati hartzailearen gutxienerako azalera 20.000 m²-koa izango da.

Arabako Errioxako udalerri gehienetan indarrean dauden ASetan EZ da loturarik eskatzen landaketan eta mahastizaintza eta ardogintzako nekazaritza industrien artean (eskatzen da urteko ardoaren upeltegientzat, mahastien 18.000 m² bakarrik izanez), eta gutxienerako lurzati hartzailearen azalera 5.000 m²-koa da. Arrazoi hori dela eta, eskakizun hori oztopo garrantzitsua da eta Arabako Errioxan upeltegi talde handiak instalatzea zailduko du.

Upeltegi txikiak eta ertainak: Arabako Errioxan mahastien nekazaritza ustategien batez besteko azalera 7 eta 8 ha artean dabilela kontuan hartuta, ia ezinezkoa da urteko ardoaren upeltegiek inoiz upeltegia eraikitzeak aukera izatea, haien artean elkartuz ez bada behinik behin. Izan ere, kasu gehienetan ez dituzte 10 ha mahasti izaten.

Halaber, zaila da azaleran gutxienez 20.000 m² dituen lurzatiak edukitzea, nekazari txikien jabetzako mahasti gehienak 2 ha-tik beherakoak baitira.

Modu berean, gogorarazi beharrekoa da Arabako Errioxako udalerri gehienetan indarrean dauden ASetan 18.000 m²-ko mahastia (1,80 ha) bakarrik eskatzen dela urteko ardoaren upeltegia eraikitzeak, eta gutxienerako lurzati hartzailea 1.000 edo 3.000 m²-koa izaten dela.

h) Gehieneko eraikigarritasuna, lurzati hartzaileari soilik aplikatutakoa, 0,2 m²/m²-koa izango da, eraikin bakarerrako finkatutako 8.000 m²-ko aprobetxamendu mugatzailearekin.

Kontuan hartzen badugu LPPk eskatzen duen gutxienerako lurzatiak 20.000 m²-koa dela, ulertzen da upeltegiak 4.000 m² eraiki izan ahalko dituela, sotoak kontuan hartu gabe. Oso koefiziente hertsatzailea da, askoz ere azalera handiagoko lurzatiak behar izanez upeltegi handi batentzako.

Egun Arabako Errioxako udalerri gehienetan indarrean dauden ASek 0,5 m²/m² balioaren inguruan kokatzen diren koefizienteak ezartzen dituzte upeltegi handientzat eta 1,00 m²/m²-ko balioa urteko ardoaren upeltegientzat.

Eraikuntzarako onartzen den gehieneko azalerari dagokionez, nahikoa egokitzen zaio upeltegi handiek ohikoa dutenari, kontuan hartuta sotoak ez direla kontuan hartzen aprobetxamenduaren zenbaketa egiteko.

i) Instalazio bakoitzak behar bezala ebartziko du aparkaleku zuzkidura, gutxienez plaza bana aurreikusiz 100 m²-ko, ibilgailu pribatuetarako. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie. Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 2.000 m²-ko.

Aparkaleku kopuruaren gainean eskaturiko parametroak bat datoz industrialdeetan eskatu ohi direnekin, baina lursail azalera handiak okupatzea ekartzen du aparkalekuetarako.

Aurreko guztia aztertu ondoren, txostenak hurrengo ondorioa ateratzen du:

Biasteri – Arabako Errioxa Eremu Funtzionaleko LPParen eskakizunak aplikatzeak, lurzati hartzailearen gutxieneko azalerari (2 ha) eta upeltegiak instalatzea ahalbidetzeko jarri beharreko mahasti azalerari (10 ha) dagokienez, ezinezko egiten du erabat Lur Urbanizaezinean urteko ardoaren upeltegiak eraikitzea, bai isolaturiko eraikinetan, bai multzokaturiko lantegietan. Horrek guztiak zaildu egiten du nabarmenki upeltegi enpresa handiak ezartzea”.



Marqués de Carrión Upeltegia (Labastida)

ABRA (Arabako Errioxako Upeltegien Elkarte)

2007ko otsailean, ABRAk (Arabako Errioxako Upeltegien Elkarte) zera adierazi zuen Arabako Errioxan Lurraldeko Plan Partziala indarrean jartzeari zegokionez:

“Kezka agertu nahi dugu Arabako Errioxako Eskualdeko LPPak ezarritako betekizunen aplikazioagatik, 20.000 m²-ko gutxieneko lurzati hartzailea eta 10 ha mahasti eskatzeari dagokionez upeltegiak instalatzea ahalbidetzeko. Horrek familia ekimeneko upeltegi txikiak eraikitzea zailduko du (gutxi gorabehera 10 upeltegitik 8 mota horretakoak dira Arabako Errioxan), eta, are gehiago esanda, arazo larriak ekarriko dizkie bertan kokatu nahi duten edo negozio eremua areagotu nahi duten tamaina handiagoko upeltegiei. Izan ere, horri erantsi egin behar zaio gutxi barru (hilabete gutxiko kontua da) Errioxako JDKKAK (Errioxako Jatorrizko Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzailea) onar dezakeen araudi berria indarrean jar

daitekeela, lur eremuko ardo “kalifikatuei” buruz. Gerta liteke gutxieneko X hektarea jartzea mahastiek eta upeltegiaren instalazioak elkarrekin betetzeko eta, horrela, mahastizaintza eta ardogintzako eredu hori ontzat jotzeko, eta LPPa, bere araudiaren arabera, kontraesanean egotea interes talka ekarriz”.



Valdelana upeltegia (Eltziego)

LPParen erakunde sustatzaileek alegazioei emaniko erantzuna

Idazki horiei erantzunez, eta zehazkiago Biasteri – Arabako Errioxako Koadrilak 2006ko azaroaren 21ean ardoaren eta turismoaren garapenerako oztopoa zela uste izateagatik Biasteriko (Arabako Errioxa) LPPa zuhurtziaz indargabe uztea eskatuz aurkeztutako idazkiari erantzunez (2006ko azaroaren 17ko ohiko osoko bilkuran hartutako erabakia), Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak txostena egin zuen 2007ko otsailaren 9an zera adieraziz:

“LPPn ezarritako araudia egokitzen jotzen da lurraldean upeltegien erabilera arautzeari dagokionez:

Urteko ardoaren upeltegiei dagokienez, zeharka biztanleria gunearekin jarraitzea planteatzen da, Lur Urbanizaezina tamaina txikiko upeltegiekin inbaditzea saihestuz. Horiei dagokienez, esfortzua egin behar da, hiri ingurunean sar daitezen.

Upeltegi handiei dagokienez, atxikitako lurzati parametroa sartzen da. Horren bidez, mota horretako upeltegiak Lur Urbanizaezinean neurritz gain agertzea saihestu nahi da. LUEa bereizketarik egin gabe kolonizatzea da saihestu nahi dena, horrek paisaia eta lurraldea

nabarmenki hondatzea ekartzen duela kontuan hartzen baita. Benetan tokian kokatzen diren upeltegiek ingurunearekin gutxieneko lurzati lotura izatea da kontua.

Koadrilari egoki iritzitako harreman guztiak izatea eskaintzen zaio, LPParen ezarpenak hobeki aplikatze aldera.



Urteko ardoaren pabiloiak lurzoru urbanizaezinean

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak GRAMari –Grupo de Arquitectura y Medio Ambiente– eskatu zion **“Biasteriko Eremu Funtzionaleko mahastizaintza eta ardogintza jardueraren (Upeltegiak) gaineke azterketa Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialaren araudiak ezarritako antolamendu parametroak onesteko edo eguneratzeko”** delakoa egin zezala. Txostena 2007ko urrian amaitu zen.

Aurrerago, 2008ko urtarrilaren 29an eta otsailaren 22an, bilera egin zen Eusko Jaurlaritzako (Ingurumen eta Lurralde Antolamendu, eta Nekazaritza sailak), Arabako Foru Aldundiko (Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka, eta Nekazaritza sailak) eta GRAMA aholkularitza enpresako ordezkariekin. Helburua aipatutako azterlanean bildutako ondorioak aztertzea izan zen.

Aipatutako bilera horietan jorratutako puntuetatik abiatuz, upeltegi berriak ezartzearekin zerikusia duten eta eremu funtzionalean kontrako iritzi gehien sortu dituzten LPParen antolamendu parametroak berraztertu dira (horien artean lurzati hartzailearen gutxieneko azalerarena eta atxikitako mahasti landaketarena), eta aldaketa honetan bildutako hainbat aldaketa proposatzen dira.

a.3.- ALDAKETAREN EREMUA

Aldaketaren eremua aldaketaren xede den indarreko LPParen eremu osoari dagokiona da, eta, beraz, Arabako Errioxako Eremu Funtzionalaren lurralde osoa.

a.4.- LEGE ESPARRUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak zehatz jasotzen du 14. artikuluan Lurraldeko Plan Partzialak aldatzeko aukera. Horrela, aldaketa horrek errespetatu beharreko jarraibideak zehazten dira 10.10 artikuluan.

Azken hori garatuz, irailaren 9ko 206/2003 Dekretua onartu zen. Horren bitartez Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroen, Lurraldeko Plan Partzialen eta Arloko Lurralde Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen da. Dekretu horren arabera, hura aplikatzeko izan beharreko egoera honakoa litzateke:

- Aldaketaren helmenak ez du Lurraldeko Plan Partzialaren berrazterketa orokorra edo eraldaketa nabarmena ekarriko.
- Aldaketa funtsezkoa ez izateari buruzko aurretiazko esanbidezko erabakia eta erabaki arrazoitua hartzea. Funtsezko aldaketatzat jotzen da alderdi puntual eta osagarrietan desberdina dela iruditu beharrean, berritzat jotzeko modukoa izan daitekeen hasieran hautatu eta onartutako planeamendu ereduaren aldaketa oro.

Aldaketa hau ez da funtsezkoa, beraz, izapideak aipatutako 206/2003 Dekretuan jarritako prozeduran zehaztutako araudiari jarraiki egin beharko dira.

Bestalde, Lurraldeko Plan Partzialaren aldaketa Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanaren izapidepean jarri behar da, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak zehazten duen moduan. Horretarako, Plan eta Programa Batzuen Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legean zehaztutako kontsulta izapidearen pean jarriko da Plan Partziala, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren azterlana idatzi beharko da.

a.5.- SEKTOREKO HIRIGINTZA EGOERA ETA EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

Erreferentzia gisa **“Biasteriko Eremu Funtzionaleko mahastizaintza eta ardogintza jardueraren (Upeltegiak) gaineko azterketa Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialaren araudiak ezarritako antolamendu parametroak onesteko edo eguneratzeko”** lana hartuz, 2007ko urrian eginikoa, eta ondoren izandako bileretan erantsitako datuak kontuan hartuta, eremu funtzionalean sektoreak bizi duen hirigintza egoera eta egoera sozioekonomikoa deskribatzen dira.

a.5.1.- TRATAMENDUA ARAU SUBSIDIARIOETAN

Arabako Errioxako udalerri gehienetan indarrean dauden Arau Subsidiarioek aldea ezartzen dute kasurik onenean urteko ardoaren upeltegien eta mahastizaintza eta ardogintzako nekazaritza industrien (upeltegi handiak izango lirateke) artean Lurzoru Urbanizaezinean instalatzeko.

Urteko ardoaren upeltegientzat:

- Eraikigarritasuna: $1 \text{ m}^2/\text{m}^2$, lurzati hartzailearen gainean neurtuta.
- Lotetsitako azalera, gutxienez: 0,30 NELUri dagokiona (18.000 m^2).
- Lurzati hartzailearen azalera, gutxienez: 3.000 m^2 . Lapuebla de Labarcán lurzati hartzailearen azalera askea da.
- Baldintza horiek ustategiei uztartutako nekazaritzako biltegietarako eskatzen direnen antzekoak dira.

Mahastizaintza eta ardogintzako nekazaritza industrientzat:

- $0,50 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna lurzati hartzailearen gainean neurtua, eta ez dira lurrazpiko tokiak zenbaketarako kontuan hartzen. Labastidaren kasuan: $0,40 \text{ m}^2/\text{m}^2$.
- Lotetsitako gutxieneko azalera 3 ha-koa da, 2 ha-koa Eltziegoren kasuan.
- Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera 5.000 m^2 -koa edo 3.000 m^2 -koa, udalerria gorabehera.

Navaridasena bezalako kasu berezi batzuk badira. Han, Upeltegi deitzen denerako, $0,20 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna, lotetsitako ha 1eko azalera eta 2.000 m^2 -ko gutxieneko lurzati hartzailea baimentzen dira.

Zenbait AStan alokaturiko lurzatien ekarpena onartzen da, betiere, lursailaren titularrak lotespen aitortpena egiten badu eta Erregistroan izena ematen bada.

AS horiek guztiek probintziako planeamendutik eratorritakoak dira funtsean, eta ez zaizkio Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialari egokitu.


a.5.2.- MAHASTI AZALERA

Mahastien azalera osoa, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Katastroak emandako datuen arabera, 13.000 ha ingurukoa da ($127.558.047,54 \text{ m}^2$), orain hamar urte zeudenak baino % 23 gehiago. Hektarea horiek 1.700 ustategitan banaturik daude. Errioxako Jatorri Deitura osoan landatutako mahasti azaleraren % 20a

da, Arabako nekazaritzako ekoizpen orokorraren % 40arekin batera. Hona hemen azalera horren banaketa:

Udalerria	Mahasti azalera osoa	Lurzati kop.	Lurzatiaren batez besteko tamaina (m ²)	<0,5 ha- ko lurzatiak	0,5-1 ha arteko lurzatiak	1-2 ha arteko lurzatiak	2-10 ha arteko lurzatiak	<10 ha- ko lurzatiak
Mañueta	5.385.086,96 m ²	1.962	2.744,69	1.698	212	44	8	0
Eltziego	11.547.809,95 m ²	3.147	3.669,47	2.525	427	155	38	2
Bilar	8.162.582,89 m ²	2.506	3.257,22	2.102	294	83	27	0
Kripan	1.434.131,58 m ²	309	4.641,20	222	46	28	13	0
Labastida	10.997.953,74 m ²	3.240	3.394,43	2.638	445	127	30	0
Laguardia	34.383.740,95 m ²	8.080	4.255,41	6.304	1.184	429	155	8
Lantziego	11.482.478,26 m ²	3.750	3.061,99	3.177	422	127	24	0
Lapuebla de Labarca	3.314.740,07 m ²	1.269	2.612,09	1.130	100	36	3	0
Leza	3.917.506,40 m ²	1.352	2.897,56	1.176	141	28	7	0
Moreda de Álava	3.259.702,43 m ²	1.021	3.192,66	839	142	36	4	0
Navaridas	6.363.283,68 m ²	2.081	3.057,80	1.753	261	61	6	0
Oion	11.814.770,24 m ²	2.227	5.305,24	1.633	333	165	90	6
Samaniego	5.123.011,65 m ²	1.680	3.049,41	1.430	160	70	20	0
Eskuernaga	5.548.212,30 m ²	1.877	2.955,89	1.633	176	50	18	0
Iekora	4.823.036,44 m ²	854	5.647,58	511	211	104	28	0
GUZTIRA	127.558.047,54 m²	35.355	3.582,84	28.771 (% 81,4)	4.554 (% 12,9)	1.543 (% 4,36)	471 (% 1,33)	16 (% 0,04)

Iturria: Arabako Foru Aldundiako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila (2007ko ekaina)



Datu horiek adierazten dute Arabako Errioxan dauden lurzati gehienek (% 81,4a) 0,5 ha-tik beherako azalera dutela, nahiz eta 0,5 ha eta ha 1 arteko azalera duen lurzati kopuru altua ere badagoen (guztien % 12,9a). Bestalde, Laguardiak, Eltziegok eta Oionek bakarrik dituzte 10 ha-tik gorako lurzatiak.

a.5.3.- DAUDEN UPELTEGIAK


Eremu funtzionalean dagoen upeltegi kopuruari buruzko datuak aldatu egiten dira kontsultatutako erakundea gorabehera. Egun Arabako Errioxan dagoen upeltegi kopurutik 124 ABRAko (Arabako Errioxako Upeltegien Elkartea) kide dira. Gainerakoak ez dira berariazko inolako elkarteko kide.

A) Upeltegi kopurua eta kokalekutzat duten lurzoru motaren eta garatzen duten jardueraren arabera banaketa, **Guardiako Udaleko Aholkularitza Teknikoaren arabera**, honakoa da:

Udalerrria	Upeltegi kop.	LUEn	Hiri lurzoruan	Lurzoru urbanizagarria	Urteko ardoa egiten dute	Biltegi jabeak	Kooperatibak	Ardo ondua egiten dute
Mañueta	23	2	20	1	14	1	0	8
Kripan	2	0	2	0	1	0	1	0
Eltziego	20	6	13	1	6	0	0	14
Bilar	13	2	11	0	7	0	1	5
Labastida	12	5	7	0	3	1	0	8
Laguardia	60	27	33	0	17	11	0	32
Lantziego	17	0	17	0	10	1	1	5
Lapuebla de Labarca	40	2	38	0	21	4	0	15
Leza	6	1	5	0	2	0	0	4
Moreda de Álava	2	2	0	0	0	0	0	2
Navaridas	12	2	10	0	11	0	0	1
Oion	7	1	6	0	0	0	0	7
Samaniego	14	5	9	0	5	1	0	8
Eskuernaga	42	13	29	0	17	15	0	10
Iekora	4	4	0	0	3	0	1	0
GUZTIRA	274	72 (% 26,27)	200 (% 73)	2 (% 0,73)	117 (% 42,7)	34 (% 12,4)	4 (% 1,5)	119 (% 43,4)

Iturria: Guardiako Udaleko Aholkularitza Teknikoa (2007ko iraila)

Upeltegi banaketa lurzoru motaren arabera




Upeltegi gehienak hiri lurzorian kokatzen dira (% 73). Lurzoru urbanizagarrian instalaturiko upeltegiek (% 0,73) egoera iragankorra dute, horrelako lurzorua hiri lurzoru izatera igarotzen direlako.

Lortutako informazioaren arabera, hiri lurzorian kokaturiko upeltegiak dira lurzoru urbanizaezinean kokatzera igaroko liratekeenak, ekoizpenak gorantz egin ahala edo bestelako instalazioak edo eraikuntza nabarmena behar duen upeltegi mota izateko joera duten heinean.

Lurzoru urbanizaezinean kokatzen diren upeltegiek dauden upeltegien % 26,27a hartzen dute.



Upeltegia lurzoru urbanizagarrian



Upeltegi gehienek urteko ardoa edo ardo ondua egiten dute (% 86,1), eta gutxi hartzen dute kooperatibaren (% 1,5) edo biltegi jabearen (% 12,4) forma. Ikusi ahal izan den joera badirudi ardo ondua egitearena dela, balio erantsi handiagoarekin, urteko ardoen ekoizpena alde batera utzita.

B) Elikadurako Industrien Erregistroan izena eman duen upeltegi kopurua udalerrri bakoitzean, jarraian zehaztuko den moduan banatzen da **Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren** arabera:

UDALERRIA	EIEa DUTEN UPELTEGIAK (Elikadurako Industrien Erregistroa)
MAÑUETA	83
KRIPAN	3
ELTZIEGO	37
BILAR	24
LABASTIDA	36
LAGUARDIA	110
LANTZIEGO	40
LAPUEBLA DE LABARCA	88
LEZA	22
MOREDA DE ÁLAVA	2
NAVARIDAS	27
OION	16
SAMANIEGO	33
ESKUERNAGA	77
IEKORA	7
GUZTIRA	605

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, Eusko Jaurlaritza (2007ko uztaia)

Datu horiek ez datoz bat lehen adierazitakoekin (Guardiako Udaleko Bulego Teknikoa), udalerriko dagoen upeltegi kopuruari eta upeltegi kopuru osoari dagokionez. Aitzitik, horren arrazoia Elikadurako Industrien Erregistro (EIE) horretan sartzea eskatu baina

ondoren upeltegi gisa funtzionatzen ez duten upeltegiak egotea da. Horiek beren mahats edo ardo ekoizpena saltzen diete beste upeltegi batzuei, eta ez dute beren izenpean ardorik botilatzen.

C) **Errioxako Jatorrizko Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzailearen (ErrioxakoJDKKA)** arabera, 2006ko upeltegi aktibo kopurua 339 upeltegikoa zen, eta azken bi urteetako ekoizpena honakoa:

Landutakoaren bolumena (litrotan)	2005 URTEA		2006 URTEA	
	Upeltegi kop.	Landutakoaren bolumen osoa (litrotan)	Upeltegi kop.	Landutakoaren bolumen osoa (litrotan)
0-250.000	322	21.431.054	291	20.628.532
250.000-1.000.000	33	14.410.920	30	13.907.930
1.000.000	18	44.643.942	18	43.492.832
GUZTIRA	373	80.485.916	339	78.029.294

Iturria: Errioxako JDKKA (2007ko uztaila)

Bi urteotan Errioxako Jatorrizko Deitura Kalifikatuaren barruan jarduten duen upeltegi kopuruak beherantz egin duela ikusi da. Aitzitik, beherapena ekoizpen txikieneko upeltegietan sumatzen da, 1.000.000 litrotik gorako ekoizpena dutenak mantenduz.

Upeltegi handi horien ekoizpenak ere beherantz egin du. Horrek esan nahi izan dezake ekoizpen txikiagoaren baina kalitate handiagoaren alde egiten dela, eta datu guztien arabera badirudi hori dela gertatu dena.



Upeltegi pabilioia

D) Arabako Errioxako upeltegi instalazio aktibo kopurua 400ekoa da **Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren** arabera.

a.5.4.- ERANTSITAKO BESTE DATU BATZUK

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak (Ardoaren Zerbitzua) 45 hl/ha-n ezartzen du batez besteko ekoizpena, 2007ko irailaren 3an helarazitako txostenean.

Bestalde, 2008ko urtarrilaren 29an izandako bileran, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak hurrengo datuak eman zituen:

- Ustiategiaren batez besteko azalera (eraldaketako instalazio txikiak) 7tik 8ra bitarteko ha-koa da.
- Ekoizle txikiek (urteko ardoaren upeltegiak) upeltegi handien bidea jarraitzen dute, eta ardo onduak eta erreserbako ardoak ekoizten hasten dira.
- Errioxako JDKKaren arabera, gehieneko ekoizpena 6.500 kg mahats/ha-n kokatzen da ardo beltzentzat, eta 9.000 kg mahats/ha-n ardo zurientzat. Kontuan hartuz gero eremu funtzionalean ha 1-eko ekoizpena % 88-90ekoa dela beltzaren kasuan (tempranillo) eta % 10-12koa zuriaren kasuan, ha bakoitzeko gehieneko ekoizpena honakoa litzateke: $88 \times 6.500 / 100 + 12 \times 9.000 / 100 = 6.800$ kg. Ardoarena, berriz, ("litro ardo/mahats kilo" konbertsioaren % 70-73a aplikatuz) honakoa litzateke: $72 \times 6.800 / 100 = 4.896$ litro. **Ondorioz, kontuan hartu beharreko ardo ekoizpenaren parametroa honakoa da: 49 hl/ha.**

Parametro honetan ez da kontuan hartzen eremu funtzionalean ekoizten dena baino 10-12 milioi kilogramo mahats inguru egiten dela, Errioxako beste zonalde batzuetatik ekarritakoarekin. Azpimarratzekoa da datu hori kontuan hartuta ere, Ardoaren Etxeak 2006rako ziurtatutako ardo ekoizpenaren 78.029.294 litro ez dela erabat adosten: mahasti azalera (katastroaren arabera 12.755,80 ha) 49 hl/ha-rekin birderkatuz gero, 62.503.420 litro izango genituzke. Horiei "kanpotik" ekarritako 10-12 mahats kiloak erabiltzetik eratorritako kopurua batuz gero ($72 \times 12.000.000 / 100 = 8.640.000$ litro), 71.143.420 litro izango lirateke.

- Nekazaritza Sailak lotetsitako azalera 8 ha-ra murriztea proposatzen du instalazio txikientzat. Izan ere, neurri hori bat dator ardogintzan jarduten dutenek ustiatutako batez besteko azalerarekin. Upeltegi handientzat lanketaren aukeren % 25a litzateke.
- Upeltegi baten eraikinak upelak sartzeko izan behar duen gutxieneko azalera ekoizpenaren arabera zehazten da (2 milioi litro bat datoz 30.000 barrikarekin).
- Eremu funtzionalean funtzionamenduan dauden instalazioen estatistiketatik eratorritako "ekoizpen litroak / upeltegiko m²c" neurria honakoa da:
 - a) Urteko ardoaren upeltegiak: 67 l/m²c (datu zehatza honakoa da: 66,56 l/m²c). Parametro honen arabera, 100 m²c upeltegia bat etorriko lirateke 6.700 litroko ekoizpenarekin.
 - b) Upeltegi handiak: 235 l/m²c (datu zehatza honakoa da: 235,33 l/m²c).

Parametro horiekin:

8 ha-ko mahasti azaleratik itendako ekoizpena bat etorriko litzateke $8 \times 4900 / 67 = 585 \text{ m}^2$ -ko eraikinarekin.

- Urtean 250.000 l/urteko ekoizpena bat etorriko litzateke $3.731 \text{ m}^2\text{c}$ edo $1.064 \text{ m}^2\text{c}$ -ko eraikinarekin (urteko ardoaren upeltegiaren edo upeltegi handiaren parametroa aplikatu gorabehera).

a.5.5.- ARAZOAREN LABURPENA

Sektorean esku hartzen duten erakunde eta entitate ezberdinek aurkeztutako alegazio eta idazkiak ikusita, argi geratzen da LPPn jasotako ezarpenetatik hurrengo alderdiei buruzkoak direla sektorean kezka gehien sorrarazi duten gaiak:

- LPPk ez du argi eta garbi adierazten zein den upeltegi handien eta urteko ardoaren upeltegien edo ekoizle txikien arteko aldea. Gainera, lurzoru urbanizaezinean ezartzeari buruzko ezarpenak ezberdinak izan beharko lirateke kasu bakoitzean, kasuan kasuko beharrak kontuan hartuz.
- LPPn ezarritako lurzati hartzailearen azalera (2 ha) gehiegizkoa da, izan ere, lurraldearen ezaugarriak kontuan hartuz gero, bertan dauden lurzatiek azalera txikiagoa dute. Gainera, beharrezkotzat jotzen da upeltegi motaren arabera bereizketa egitea.
- Lotetsitako mahasti azalerari dagokionez (10 ha), LPPk irizpide berdina aplikatzen die bi upeltegi motei. Horrek ekoizle txikien aurka egiten du nabarmenki, kasu gehienetan 7 edo 8 ha-ko ustiategiak baitituzte. Lotetsitako azaleraren eskakizunak ezberdina izan beharko luke jarri beharreko upeltegi motaren arabera.
- LPPk planteatzen duen eraikigarritasuna ($0,2 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$) oso hertsatzailea da. Indarreko arau subsidiarioek $0,5 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ eta $1 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ bitarteko eraikigarritasuna ezartzen dute.
- Aparkalekuei dagozkien parametroak industrialdeetan eskatzen direnen oso antzekoak dira, eta kasu askotan lursail azalera handia okupatzea ekartzen du horretarako beharrik izan gabe.

Bestetik, egindako kontsultetan eta izandako bileretan bildutako datu objektiboek hurrengo informazioa ematen dute:

- 1) Errioxako JDKKAK emandako informazioaren arabera, bereizketa egin daiteke upeltegien artean ardo ekoizpenaren bolumenari jarraiki:
 - Eraldaketa instalazio txikiak (mahastizaintzako profesionala, urteko ardoaren upeltegiak eransten dituen kontzeptua): 250.000 litro/urteko ekoizpena baino baxuagoa.
 - Upeltegi handiak: 250.000 litro/urteko ekoizpena baino altuagoa.

2) Ardo ekoizpena hektarea bakoitzeko:

- Ardoaren Etxearen arabera (AFA).....45 hl./ha.
- Errioxako JDKKAren arabera..... .49 hl./ha.

3) Ardo ekoizpen osoa 2006rako:

- Errioxako JDKKAren arabera.....78.029.294 litro

4) Eremuan dagoen upeltegi kopurua:

- Errioxako JDKKAren arabera.....339 upeltegi
- Guardiako Udalaren arabera.....274 upeltegi
- EJren Nekazaritza Sailaren arabera.....inskribatutako 605 upeltegi
- Ardoaren Etxearen arabera400 upeltegi

5) Mahasti azalera osoa:

- Katastroko datuen arabera (AFA).....12.755,80 has.

6) Mahasti lurzatie tamaina: 35.355 lurzatie % 94ak du ha 1 baino gutxiagoko azalera.

- 0,5 ha-tik beherako lurzatiak.....28.771
- 0,5 ha eta ha 1 arteko lurzatiak.....4.554
- Ha 1 baino gehiagoko lurzatiak2.030

7) Mahastizaintzako profesionalek ustiatutako batez besteko azalera 7tik 8ra bitarteko ha-koa da.

8) Indarreko ASen arabera, lurzati hartzailearen gutxieneko azalera honakoa da:

- 3.000 m² eta zenbait kasutan askea, urteko ardoaren upeltegiarentzat.
- 5.000 m² edo 3.000 m², udalerrira gorabehera, mahastizaintzako eta ardogintzako nekazaritza industrientzat.

9) ASen arabera lotetsitako gutxieneko azalera honakoa da:

- 0,30 NELU, urteko ardoaren upeltegiarentzat.
- 3 ha (2 ha Eltziegoren kasuan), mahastizaintzako eta ardogintzako nekazaritza industrientzat.

10) Indarrean dauden ASetan ezarritako eraikigarritasuna honakoa da:

- 1 m²/m², lurzati hartzailearen gainean aplikatuta, urteko ardoaren upeltegiarentzat.
- 0,5 m²/m², mahastizaintzako eta ardogintzako nekazaritza industrientzat.

11) "ekoizpen litroak / upeltegiko m²c" ratioaren arabera:

- 8 ha-ko mahastiaren ekoizpenari 585 m²-ko eraikigarritasuna dagokio.
- 250.000 litro/urteko ekoizpenari 3.731 m² edo 1.064 m²-ko eraikigarritasuna dagokio, upeltegi handia edo instalazio txikia izan gorabehera.

12) Ardo ekoizpena dagoen mahasti hektarea kopuruarekin (12.755,80 ha):

- Ardoaren etxearen arabera.....12.755,80 ha x 4.500 litro/ha = 57.401.100 litro
- JDKAren arabera.....12.755,80 ha x 4.900 litro/ha = 62.503.420 litro

13) 2006 urteko ardoa ekoizteko behar den azalera (78.029.294 litro):

- Ardoaren Etxearen arabera.....78.029.294 litro: 4.500 litro/ha = 17.339,84 ha
- JDKAren arabera.....78.029.294 litro: 4.900 litro/ha = 15.924,34 ha

Aurrekoaren ondorio gisa, hau esan daiteke:

- Upeltegi motaren bereizketa ekoizpen mailaren arabera da.
- Arabako Errioxan dauden mahasti hektareekin (Katastroaren arabera) eta adierazitako ekoizpenarekin (4.900 litro/ha), ezinezkoa da Errioxako Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak deklaraturako ardo kopurua ekoiztea, ez, behinik behin, hektarea bakoitzeko ekoizpena altuagoa ez bada.
- Upeltegiak Hiri Lurzoruan edo Lurzoru Urbanizagarrian jartzea zaila dirudi, egun ez dagoelako xede horri zuzendutako behar besteko azalera eskaintzarik, eta, dagoen eskaintzak, hain zuzen ere hain txikia izateagatik, oso prezio altuak ditu upeltegi txikientzat errentagarri izateko. Bestalde, hiri lurzoru horiek ez dira interesgarriak zonaldean kokatu nahi duten upeltegi handientzako, irudi arrazoiak direla eta.
- Ekoizle txikiek ustiatutako batez besteko azalera 7 ha-tik 8ra bitartekoa da, beraz, badirudi arrazoizkoa dela lotetsitako azaleraren eskakizuna parametro horrekin bat etortzea.
- Ha 1 baino gehiagoko azalera duen lurzati kopurua oso eskasa da eremuan (% 5,73).
- Urtean 250.000 litro ekoizten dituen upeltegi batek gutxienez 50 ha mahasti izan behar du ekoizteko (4.900 litro/ha-ko ekoizpena kontuan hartuz gero). Lurzoru urbanizaezinean kokatzeko eskatzen den lotetsitako azalera % 25ean ezar daiteke.

a.6.- ALDAKETA PROPOSAMENA

a.6.1.- AURKEZPENA

Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialak upeltegiak kokatzerakoan aplikatu beharreko oinarritzko baldintzak ezartzen ditu 34. artikuluan. Behin betiko onarpenetik hiru urte igarota, egiaztatu ahal izan da baldintza haietako batzuk ez dutela koherentziarik, Plana idazterakoan eskura zegoen informazioa partziala eta osatu gabea zelako.

Arrazoi horiek direla eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Sailak lurraldean upeltegiak kokatzeko irizpide berriak LPParen dokumentuan sartzea erabaki dute, haien beharrekiko hurbiltasun handiagoa izateko eta sektoreak egun bizi dituen arazoekin zerikusi gehiago duten parametroak ezartzeko. Horretarako, aldarazpen proposamen hau landu da, lurzoru urbanizaezina mantendu eta babesteko helburuak bateratzeko lehenik eta behin, eta upeltegiak errealtatearekin zerikusia duten irizpideak aplikatuz ezartzeko bigarrenik.

Proposamen honen oinarrian dagoen planteamendua eskualdeko mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorearen egoera sozioekonomikoaren eta funtzionamenduaren gaineko informazio xehatua biltzean datza lehenik eta behin.

Ekoizpenetik eta lantzetik eratorritako baldintzatzaile ekonomikoak abiaburu gisa hartuz, zera proposatzen da:

- a) Eskualdeko udalerri guztietan poligonoak egotea ahalbidetzea hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, “eraldaketako instalazio txikiak” hartzeko gai izanez bertan egin daitekeen ekoizpena ikusita.
- b) Eskualde osorako modu homogeneoan bideratu eta arautzea poligono horietan koka ezin daitezkeen eta lurzoru urbanizaezina behar duten ekimen guztiak.

Azken alderdi horri dagokionez, planteamendua ardoaren ekoizpen eta lantzetik eratorritako baldintzatzaile ekonomikoetatik abiatzen da, ondoren upeltegi berriak eraikitzeari mugak jartzeko. Izan ere, erraz uler daitekeen moduan, Errioxan kokatu beharreko upeltegi handi kopurua ezin da mugagabea izan, batez ere lurzati zehatz eta nahiko txikia izanda ardoen kalitatearen irudia ustiatu nahi bada (ezaguna da Arabako Errioxaren eta ardo onaren kalitatearen artean dagoen lotura merkatuetan).

Egungo LPParen ezarpenekin ezinezkoa litzateke zonaldean kokatu nahi duten proiektu ezagun batzuk gauzatzea, batzuk lurzatiaren gutxieneko azalera dela eta, beste batzuk hari atxikitako mahasti ha kopurua dela eta, eta abar.

Hala eta guztiz ere, bereizi egiten dira “eraldaketako instalazio txikiak” eta “upeltegi handiak”, parametroa 250.000 l/urteko kopuruan jarritz bi instalazio moten bereizgarri gisa. Horrela, esku hartzen duten maila ezberdinen eskariei aurre egin nahi zaie.

Bestetik, mahastietarako utzitako lurzatiaren jabetza egituratik abiatuz gero, eta upeltegiak kokatzea sustatzearen alde egiteko, zera proposatzen da funtsean: eraikuntzaren

kokaleku izango den lurzatiaren azalera, edo lurzati hartzailea, txikitzea, eta, nekazaritzaren eta hirigintzaren alorrean teknika komunak erabiliz, aukera ematea jarri nahi den upeltegiaren jabe ez den finka bateko azalera eskubidearen titularrari edo ekoizpen eskubide baten titularrari bere eskubideak haren jabearen alde lagatzeko eta, horrela, upeltegia sustatu eta eraikitzeko. Helburua ekoizpeneko gutxieneko azaleraren parametroa betetzea da, eta instalazio orori atxiki beharko zaio: “eraldaketako instalazio txikietan” 8 ha eta “upeltegi handietan” 12 ha.

Inbertsioak lehenengo baldintzatzaile horiek gainditzen baditu bakarrik igarotzen da upeltegi handia instalatzeko aukera beste elementu batzuen arabera aztertzeraz. Elementu horiek ingurumenekoak eta paisaiakoak dira funtsean, adibidez orografia errespetatzea, dauden pabiloiak berrerabiltzea edo horien ezarpena Kantabria Mendilerroaren oinean kokatzera mugatzea.

Azkenik azpimarratzekoa da egoki iritzi dela aldaketa honetan ere upeltegikoak ez diren nekazaritzako erabileren eraikuntzak lurzoru urbanizaezinean jartzeko araudia sartzea. Helburua eremu funtzionala eraikuntzekin pixkanaka kolonizatzea saihestea da, ingurumenaren eta paisaiaren aldetik hondatzea galaraztea bezalaxe.

a.6.2.- DEFINIZIOAK

Biasteriko (Arabako Errioxa) LPPn jaso ez ziren definizio batzuk planteatu dira, eta horiek aldaketa proposamen hau hobeki ulertzea ahalbidetzen dute.

Upeltegi motak:

LPPa idaztearen ondorioetarako, bi upeltegi mota kontuan hartuko da sailkatu eta araudia aplikatzeko:

- Eraldaketako instalazio txikiak (mahastizain profesionala, urteko ardoaren upeltegiak eransten dituen kontzeptua): Ekoizpena 250.000 litro ardo edo gutxiagokoa dutenak dira urtean.
- Upeltegi handia: Ekoizpenean 250.000 litro ardoko kopurua gainditzen dutenak urtean, eta ardo ekoizpenaren jardueraren inguruan beste jarduera osagarri batzuk eransten dituztenak.



Marqués de Riscalen oinordekoen upeltegia (Eltziego)

Lotetsitako azalera:

Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialeko 34. artikuluan aurreikusitakoaren arabera mahastizaintzako eta ardogintzako jardueren berezko eraikuntza edo instalazioak ezartzeko baimena eskatu ahal izateko derrigor jarri beharreko lurzoru urbanizaezineko azalera da. Lurzati hartzailearen eta osagarrien batura izango da.

- Lurzati hartzailea: eraikuntzaren eta/edo instalazioen kokapen fisikoa hartuko duen lurzati da. Eraikuntzaren eta/edo egin nahi den instalazioaren titularraren jabetzako edo jabari osoko titulua aurkeztu beharko da beti.
- Lurzati osagarriak: hartzailetik bereiz eta zati daitezkeen beste mahasti lurzati batzuk dira. Jabetza osoaren, alokairuaren edo usufruktuaren titulupean aurkeztu ahalko dira, betiere, hirigintza loturarekin eta kasuan kasuko Jabetzaren Erregistroan inguruabar hori inskribatuta.

“Lur eremuko” ardo kalifikatuak:

24/2003 Legeak, uztailaren 10ekoak, honela definitzen du mahastiaren eta ardoaren “lur eremu” hori: inguruneke beste batzuegandik ezberdintzen eta nabarmentzen dituen ezaugarri edafikoak eta mikroklimatekoak dituen parajea edo landa esparruko tokia. Haren izena tradizionalki eta argi eta garbi mahastien landaketari lotutakoa da. Mahasti horietatik ezaugarri eta alderdi bereziak dituzten ardoak lortzen dira, eta horien gehieneko azalera kasuan kasuko administrazio eskudunak araubidez mugaturikoa izango da, autonomia erkidego bakoitzaren ezaugarrieekin bat etorritik. Halaber, lurralde batean edo bat baino gehiagotan kokatzen direnak ezingo dira izan udal mugarte bat baino handiagoak izan.

Lur eremu guztia kalifikatutako jatorrizko deitura baten lurralde eremuan kokatzen bada, “lur eremuko ardo kalifikatuaren” izena jaso ahalko du.

Lur eremuko ardoak lur eremuan kokatzen diren mahastien titulartasuna (haiek edo bazkideek) duten pertsona fisiko edo juridikoek landu eta botilaratuko dituzte. Salbuespen modura eta administrazio eskudunak araudian onartzen dituen kasuetan, lur eremutik gertu kokatzen diren upeltegietan egin ahalko da. Hala eta guztiz ere, lur eremuko ardoa duen udal mugarteren batean edo mugakide den batean egin beharko da.

EAEEn ez dago oraindik horrelako ardoen gaineko berariazko arautegirik, nahiz eta Errioxako JDKKA hura lantzeko lehenengo lanak egiten dabilen. Hori dela eta, Errioxako JD osoaren arautegiaren barruan ez dago “lur eremuko ardoaren” izendapena duela esan daitekeen ardorik.

Aitzitik, Nafarroako Erkidegoak badu horrelako ardoei uztartutako ha kopuruaren gaineko aipamenik. 16/2005 Foru Legea arautzen duen abuztuaren 16ko 56/2006 Foru Dekretuko III. Kapituluak ezarri egiten du lur eremuen gutxieneko azalera 10 ha-koa izango dela. Aldiz, horientzako gehieneko azalerarik ez da ezartzen.

LPParen barruan horrelako ardoei buruzko adierazpenen bat erantsi beharko da, ondorengo araudia haren kontrakoa izan ez dadin. Zentzu horretan salbuespen gisa (kasu bakoitza banaka aztertu behar da) horien eraikinak lurzoru urbanizaezinean kokatzeko aukera aipa daiteke. Izan ere, lur eremu horien azalera txikia izango dela eta gehienetan LPPetan ezarritakoa beteko ez dutela pentsa daiteke.

Aldez aurretik dauden upeltegiak:

Biasteriko (Arabako Errioxa) LPPa indarrean jarri aurretik jada ezarritakoak hartzen dira aldez aurretiko bezala.

a.6.3.- PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

Idazketa berria proposatzen da LPPn jasotako Memoriako (7.2 eta 7.6 puntuak) eta Araudiko (34. artikulua) idatz zatientzat. Proposatzen diren aldaketak hurrengo puntuetan laburbil daitezke:

- a) Bi instalazio motaren bereizketa ardo ekoizpenaren arabera: eraldaketako instalazio txikiak eta upeltegi handiak.
- b) Upeltegientzako eta, funtsean, eraldaketako instalazio txikientzako lehentasunezko kokalekua hiri lurzoruak edo urbanizagarriak izango dira. Horretarako, udal planeamenduak lurzoruak kalifikatu beharko du jarduera ekonomiko orokorarentzat edo berariazkoa bestela upeltegientzat.
- c) EKTa betetzearen eskakizuna, energiaren kontsumoa efizientea izateari dagokionez eta instalazioei emango zaien erabileraren arabera.
- d) Irizpide estetikoak eta paisaiakoak kontuan hartzea, upeltegiak ezartzeko adibidez: pabiloi industrialak edo estandarizatutako eraikuntzak eta eraikuntza errepikagarriak ez erabiltzea; luraren profil naturala ez eraldatzea edo, Kantabria Mendilerroaren oinean jarri nahi duten horientzako (Natura 2000 Sarearen barruan sartutako ingurunea –EBIL

ES2110030–) +600 m-ko kotaren gainetik kokatzeko betebeharra; gutxienez 500 m-ko tarte jartzea alde aurretik bertan badagoen edo proiektatu den beste batekiko.



Upeltegi multzoa lurzoru urbanizaezinean.

- e) Lotetsitako gutxieneko mahasti azalera 8 ha-koa izango da instalazio txikientzako, eta 12 ha-koa, berriz, upeltegi handientzako eta erabilera osagarriak eransten dituzten eraldaketako instalazio txikientzako. Lurzati hartzailea bi kasuetan txikitu egiten da (2 ha-tik 0,5 ha-ra edo ha 1era, hurrenez hurren, eraldaketako instalazio txikiak edo upeltegi handiak / erabilera osagarriak eransten dituzten eraldaketako instalazio txikiak izan gorabehera).
- f) Beharrezkoa da azalera horiek jabetza, alokairu edo usufruktuko titulupean jartzea, 10 urteko loturarekin eta Jabetza Erregistroan inskribatu izanda. Lotura hori Plan Berezia behin betiko onartu aurretik egiaztatuko da.
- g) Eraikigarritasuna zabaldu egin zen $0,2 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -tik $0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ra, sestra gainera balioak direla zehaztuz. Izan ere, sotoak ez dira kontatzen (horri dagokionez adierazi, debekaturik geratzen dela lurzoruaren kotaren gainean gorapen artifiziala egitea eraikigarritasun gisa hartzen ez diren “soto artifizialak” egiteko).
- h) Aparkalekuei dagokienez, ezarri egiten da EKTaren irizpideak jarraituko direla, jendearentzako bulego eta lokalen kasuan aurreikusitako pertsonen okupazioari jarraiki. Izan ere, aurreko araudiarekin azalera handiak hartzen ziren horretarako beharrik izan gabe.



Aparkaleku zonaldea upeltegi batean

- i) LPPa indarrean jarri aurretik zeuden upeltegietan baimenduriko jarduerak arautu egiten dira, babes bereziko lurzoruan kokatu edo ez gorabehera.
- j) Egun beste erabilera batzuetarako utzitako pabiloiak upeltegi bihurtzeko aukera hausnartu da, babes bereziko lurzoruan kokatzen ez badira.

Bestalde, upeltegikoa ez den nekazaritzako erabilerako eraikuntzak lurzoru urbanizaezinean kokatzeko araudia sartzea proposatu da (Memoriaren 7.2 puntuan eta Araudiaren 34 bis artikulua berri batean), eta neurri batean bat egiten du eraldaketako instalazio txikiekin.



Baigorri Upeltegia (Samaniego)

a.6.4.- LPParen MEMORIARI EGINIKO ALDAKETAK (7.2 ETA 7.6 PUNTUAK)

INDARREKO TESTUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
7.2 LEHEN SEKTOREA Zalantzarik gabe, nekazaritza-sektoreko aktiboen zeregina garrantzi handikoa da lurralde-oreka eta ingurune naturalaren garapen iraunkorra gauzatzeko garaian. Arabako Errioxaren kasuan, mahastizaintza eta ardogintzako azpisektoreak garrantzi berezi du lehen sektorean, ez soilik bertan okupatutako biztanleriaren ehunekoagatik, baizik eta BPGn egiten duen ekarpenagatik ere, mahatsaren merkaturatzeak eta ardogintzak dakarten balio erantsiaren ondorioz. 1993-98 aldian, ardogintzaren balioa %400etik gora igo da. Eskualde-mailan nekazaritza garrantzitsua izanik ere, are eta garrantzitsuagoa da Eskualde Egiturako udalerritikienetan. Gainera, sektore horren dinamismoa eta garrantzia bere mugetatik harantzago doa, berari lotutako manufaktura-industria handia sorrarazten baitu. Nolanahi ere, egoera hori ez da Arabako Errioxa osora zabaltzen. Eskualdearen ipar-ekialdeak (Kripan, Yécora, Barriobusto, Labraza eta Moreda) askoz ere partaidetza txikiagoa du garapen ekonomikoaren eragile den mahastizaintzan. Arabako Errioxako eredu ekonomikoaren aniztasun handiagoa bilatzeko proposamena (mahastizaintza eta ardogintzaren azpisektoreak jasan lezakeen egoera oker batek Eskualde Egiturako biztanleriari gizarte-hondamendia ekartzea saihesteko) ez dago kontraesanean LZP honek hain aberastasun handia sorrarazten duen jarduera hori sustatzearekin. Hau da, bigarren eta hirugarren sektorea bultzatzeak ez lioke kalterik ekarri behar lehen sektoreari. Nekazaritza eta Basogintzako eta Natura Inguruneko Lurraldearen Arloko Plana ari da lehen sektorearen antolamendua garatzen. Plan horren aurrerapendokumentua Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak aurkeztu zuen 2001eko ekainean. Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planak bete-betean hartzen ditu bere gain aipatutako zehaztapenak, bai eta landa-garapenari buruzko Legearen esparruan Arabako Errioxako eskualderako landutako Eskualdeko Landa Garapenerako Planean bildurakoak ere, eta, horien ildotik, lehen sektoreari buruzko honako proposamen hauek egiten ditu: • Mahastiek hartutako nekazaritza-azalera erabilgarriari eustea, batez ere nekazaritza-balio handiko lurzoruetan, azalera hori galtzea edo bertan beste erabilera batzuk (batez ere bizitegirako edo industriarako hiri-garapenak)	7.2 LEHEN SEKTOREA Zalantzarik gabe, nekazaritza-sektoreko aktiboen zeregina garrantzi handikoa da lurralde-oreka eta ingurune naturalaren garapen iraunkorra gauzatzeko garaian. Arabako Errioxaren kasuan, mahastizaintza eta ardogintzako azpisektoreak garrantzi berezi du lehen sektorean, ez soilik bertan okupatutako biztanleriaren ehunekoagatik, baizik eta BPGn egiten duen ekarpenagatik ere, mahatsaren merkaturatzeak eta ardogintzak dakarten balio erantsiaren ondorioz. 1993-98 aldian, ardogintzaren balioa %400etik gora igo da. Eskualde-mailan nekazaritza garrantzitsua izanik ere, are eta garrantzitsuagoa da Eskualde Egiturako udalerritikienetan. Gainera, sektore horren dinamismoa eta garrantzia bere mugetatik harantzago doa, berari lotutako manufaktura-industria handia sorrarazten baitu. Nolanahi ere, egoera hori ez da Arabako Errioxa osora zabaltzen. Eskualdearen ipar-ekialdeak (Kripan, Yécora, Barriobusto, Labraza eta Moreda) askoz ere partaidetza txikiagoa du garapen ekonomikoaren eragile den mahastizaintzan. Arabako Errioxako eredu ekonomikoaren aniztasun handiagoa bilatzeko proposamena (mahastizaintza eta ardogintzaren azpisektoreak jasan lezakeen egoera oker batek Eskualde Egiturako biztanleriari gizarte-hondamendia ekartzea saihesteko) ez dago kontraesanean LZP honek hain aberastasun handia sorrarazten duen jarduera hori sustatzearekin. Hau da, bigarren eta hirugarren sektorea bultzatzeak ez lioke kalterik ekarri behar lehen sektoreari. Nekazaritza eta Basogintzako eta Natura Inguruneko Lurraldearen Arloko Plana ari da lehen sektorearen antolamendua garatzen. Plan horren aurrerapendokumentua Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak aurkeztu zuen 2001eko ekainean. Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planak bete-betean hartzen ditu bere gain aipatutako zehaztapenak, bai eta landa-garapenari buruzko Legearen esparruan Arabako Errioxako eskualderako landutako Eskualdeko Landa Garapenerako Planean bildurakoak ere, eta, horien ildotik, lehen sektoreari buruzko honako proposamen hauek egiten ditu: • Mahastiek hartutako nekazaritza-azalera erabilgarriari eustea, batez ere nekazaritza-balio handiko lurzoruetan, azalera hori galtzea edo bertan beste erabilera batzuk (batez ere bizitegirako edo industriarako hiri-garapenak)

ezartzea saihesteko. Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Komunak landutako mahasti-azaleraren gainean ezarritako mugak direla eta, hedadura handia duen arren, mahastia xahutu behar ez den ondasun mugatua eta, ondorioz, urria da. • Nekazaritza-produkzioaren aniztasuna sustatu edo ahalbidetzea, labore alternatiboak (batez ere sail ureztatuak) bultzatuz, mahastiak hartzen ez dituen lurzoruetan. • Sektorearen azpiegitura osagarriak (sail ureztatuak, landa-bideen sarea, etab.) hobetzea, eskura dauden baliabideak optimizatuz, etekin handiena ziurtatzeko. • Produkzio-sistemak hobetzea, ingurumenarekiko errespetu handiena ziurtatzeko. • Nekazarien errenta-aniztasuna sustatzea, Nekazaritzaren Euskal Plan Estrategikoak onartutako landa-garapenerako eta ingurune naturala zaintzeko jardunbideak abiaraziz. • Ildo horretatik, osagarritasuna eta lotura bilatu behar da Eskualde Egituran turismoa indartzearen eta nekazaritza-jardueren artean, horrek aipatutako jardueren produktibitateko kalterik ekarri gabe. • Eskualdearen ipar-ekialdea (Kripan, Yécora, Barriobusto, Labraza eta Moreda) Ebro ibaiaren inbutuarekin – eskualdeko ardatz aktiboena– lotzea, eremu horretako gunetako nekazaritza-jarduerari lotutako zerbitzuak, ekipamenduak eta ekonomia-jarduerak instalatzeko jardunen bidez. • Eskualde Egituran landa-garapeneko europar programen (5b helburuko zonetarako egitura-fondoak, LEADER programa) aplikazioa finkatzea.	ezartzea saihesteko. Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Komunak landutako mahasti-azaleraren gainean ezarritako mugak direla eta, hedadura handia duen arren, mahastia xahutu behar ez den ondasun mugatua eta, ondorioz, urria da. • Nekazaritza-produkzioaren aniztasuna sustatu edo ahalbidetzea, labore alternatiboak (batez ere sail ureztatuak) bultzatuz, mahastiak hartzen ez dituen lurzoruetan. • Sektorearen azpiegitura osagarriak (sail ureztatuak, landa-bideen sarea, etab.) hobetzea, eskura dauden baliabideak optimizatuz, etekin handiena ziurtatzeko. • Produkzio-sistemak hobetzea, ingurumenarekiko errespetu handiena ziurtatzeko. • Nekazarien errenta-aniztasuna sustatzea, Nekazaritzaren Euskal Plan Estrategikoak onartutako landa-garapenerako eta ingurune naturala zaintzeko jardunbideak abiaraziz. • Ildo horretatik, osagarritasuna eta lotura bilatu behar da Eskualde Egituran turismoa indartzearen eta nekazaritza-jardueren artean, horrek aipatutako jardueren produktibitateko kalterik ekarri gabe. • Eskualdearen ipar-ekialdea (Kripan, Yécora, Barriobusto, Labraza eta Moreda) Ebro ibaiaren inbutuarekin – eskualdeko ardatz aktiboena– lotzea, eremu horretako gunetako nekazaritza-jarduerari lotutako zerbitzuak, ekipamenduak eta ekonomia-jarduerak instalatzeko jardunen bidez. • Eskualde Egituran landa-garapeneko europar programen (5b helburuko zonetarako egitura-fondoak, LEADER programa) aplikazioa finkatzea. • Eraikuntza berriak Lurzoru Urbanizaezinean kokatzea arautzea, bai orokorrean nekazaritzakoak direnak, bai upeltegiak. Helburua Eremu Funtzionala pixkanaka eraikinekin kolonizatzea saihestea da, ingurumenaren eta paisaiaren aldetik hondatzea galaraztearekin batera (upeltegien araudia memoria honen berariazko atal batean xehatzen da, upeltegiekin pareka daitezkeen nekazaritzako pabiloienean hain zuzen. Hala eta guztiz ere, horiei eskaturiko parametro batzuk betetzetik salbuesten dira).
---	---

7.6.- UPELTEGIAK: ELEMENTU BEREIZGARRIA	7.6.- UPELTEGIAK: ELEMENTU BEREIZGARRIA
Arabako Errioxako Eskualde Egituraren alderdi bereizgarrietakoa da lehen sektoreko ekonomiarekiko lotura eta, zehazkiago, mahastizaintza eta ardogintzarekikoa. Nortasunari eta produkzioaren kalitateari dagokienez bizitako krisialdi-garaia gainditu ondoren, Arabako Errioxako ardoek proiektzio nazionala eta nazioarteko dute, munduko ardo hoberenen parekoa. Zalantzarik gabe positiboa den abiapuntuko egoera horrek erronkak dakartza lurraldearen antolamenduan, batik bat ardoa transformatu eta biltegitratzeko instalazioetarako ezarpenaren (hau da, upeltegiak oro har) hirigintza-arautzean. Era berean, instalazio handi batzuk bilakatu egin dira eta, pixkanaka-pixkanaka, jarduera osagarriak gaineratu dituzte. Hala, upeltegi horietako askok, ardogintzaren ezaugarri komunarekin batera, topaketa kulturalak, prestakuntza, gastronomia, ostalua eta aisia bildu dituzte. Beraz, arautzearen arazoari erantzuteko, bi instalazio-mota hauek planteatu daitezke: • Transformazio-instalazio txikiak, hau da, “urteko ardoen” upeltegiak, tamaina desberdinetakoak, baina funtsean transformazio- eta biltegitratze-industria direnak. • Upeltegi handiak, ardogintzaren jardueraren inguruan beste jarduera osagarri batzuk biltzen dituztenak. Instalazio-mota horietako bakoitzak arautze egokia eta malgua behar du, Eskualde Egitura osorako irizpide orokor homogeneousak ezartzeko bidea emango duena baina, era berean, udal-administrazioari berorren irizpideen arabera planifikatzeko aukera emango diona, LZParen proposamenak abiarazteko moduari buruz. Sortzen den lehen arazoa hirigintzaren logikatik upeltegien fenomeno arautzeko beharra da. Hala, upeltegi-instalazioak industria-jardueratzat hartu behar ote diren planteatu behar da. Hortaz, arazo horri erantzuteko, upeltegiak hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian (jarduera hori garatzeko bidea emango duen erabilera-kalifikazioarekin) sailkatutako eremuetan ezartzea aurreikusi behar da. Beste aukera da upeltegiak lurzoru urbanizaezinean edo landatarrean ezartzea da, baldin eta hura bereziki babestuta badago idatzitako plan berezi baten bidez, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenez. Sailkapenaren arabera arautzeak funtsezko desberdintasun bat dakar, hots: upeltegi-jarduera hiri-	Arabako Errioxako Eskualde Egituraren alderdi bereizgarrietakoa da lehen sektoreko ekonomiarekiko lotura eta, zehazkiago, mahastizaintza eta ardogintzarekikoa. Nortasunari eta produkzioaren kalitateari dagokienez bizitako krisialdi-garaia gainditu ondoren, Arabako Errioxako ardoek proiektzio nazionala eta nazioarteko dute, munduko ardo hoberenen parekoa. Zalantzarik gabe positiboa den abiapuntuko egoera horrek erronkak dakartza lurraldearen antolamenduan, batik bat ardoa transformatu eta biltegitratzeko instalazioetarako ezarpenaren (hau da, upeltegiak oro har) hirigintza-arautzean. Era berean, instalazio handi batzuk bilakatu egin dira eta, pixkanaka-pixkanaka, jarduera osagarriak gaineratu dituzte. Hala, upeltegi horietako askok, ardogintzaren ezaugarri komunarekin batera, topaketa kulturalak, prestakuntza, gastronomia, ostalua eta aisia bildu dituzte. Beraz, arautzearen arazoari erantzuteko, bi instalazio-mota hauek planteatu daitezke: • Transformazio-instalazio txikiak” (mahastizain profesionala, urteko ardoaren upeltegiak eransten dituen kontzeptua) direla adieraziko da ardo ekoizpena 250.000 l/urteko edo gutxiago denean, eta funtsean eraldaketako eta biltegitratzeko industriak dira. • “Upeltegi handiak” direla adieraziko da ardo ekoizpena 250.000 litro ardo/urteko baino gehiago denean, eta, normalean, ardogintzaren jardueraren inguruan beste jarduera osagarri batzuk eransten dituztenak (ostalaritza, eta abar). Instalazio-mota horietako bakoitzak arautze egokia eta malgua behar du, Eskualde Egitura osorako irizpide orokor homogeneousak ezartzeko bidea emango duena baina, era berean, udal-administrazioari berorren irizpideen arabera planifikatzeko aukera emango diona, LZParen proposamenak abiarazteko moduari buruz. Sortzen den lehen arazoa hirigintzaren eta lurraldearen logikatik upeltegien fenomeno arautzeko beharra da. Hala, upeltegi-instalazioak industria-jardueratzat hartu behar ote diren planteatu behar da. Hortaz, arazo horri erantzuteko, upeltegiak hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian (jarduera hori garatzeko bidea emango duen erabilera-kalifikazioarekin) sailkatutako eremuetan ezartzea aurreikusi behar da. Beste aukera da upeltegiak lurzoru urbanizaezinean edo landatarrean ezartzea da, baldin eta hura bereziki babestuta badago idatzitako plan berezi baten bidez, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenez. Sailkapenaren arabera arautzeak funtsezko desberdintasun bat dakar, hots: upeltegi-jarduera hiri-

lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatzeak udal-plangintzaren alde aurreko plangintza eskatzen du, bertan aipatutako eremuak jasota eta mugatuta egon behar baitira (jakina, betiere planen edo arauen aldaketa puntualak egon daitezke); lurzoru urbanizaezinean eskaintza ez dago programatuta eta, betiere, eskaintza pribatuak aukeratzen du kokapena kasuak kasu, eta udal-plangintzak erabilera-eta eraikuntza-baldintzak ezarrita izan ditzake, ala ez. Azken kasuan, behin betiko onarpena emateko ardura duten udalaz gaindiko erakundeek ere euren irizpideak dituzte, aplikatzekoa den legeriaren arabera, proposamena baldintzapean onartzeko edo baztertzeko. Lurzoruaren sailkapenari buruzko oharrak planteatu ondoren, ezarpenaren funtsezko beste faktorea erabilera (edo, hobe esanda, erabilerak) arautzea da: erabilera nagusia (hau da, mahatsa ardo bihurtzea, nahi den kalitatea lortzeko beharrezko prozesu osoa eta ardoa banatzea) eta erabilera osagarriak (batez ere, ardo jakin bati irudi edo marka jakin bat emateko garaian gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren egile-upeltegi deitu daitezkeen horietarako). Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzaren berezitasuna ezin konparatuzkoa da nolabaiteko ardogintza-jarduera (batez ere txakolina) izan dezaketen EAEko beste eskualde-egitura batzuenarekin. Beraz, jarduera horren arautzea nolabaiteko berezitasunetik abiatuta hartu behar da, eta oinarritzko printzipio hau kontuan izanda: jarduera, desiragarritzat har daitekeen egoerara iritsi arte sustatzea. Eskualde Egituraren barruan, hura osatzen duten udalerrri guztientzako arautze homogeneoa ezarri beharra dago; printzipioz, mahastizaintza eta ardogintzaren jarduerarekiko lotura-maila kontuan hartu gabe. Ez da komeni arautzeak batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako izango diren elementu bereizleak ezartzea, saihestu beharreko tirabirak sortuko bailirateke.	lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatzeak udal-plangintzaren alde aurreko plangintza eskatzen du, bertan aipatutako eremuak jasota eta mugatuta egon behar baitira (jakina, betiere planen edo arauen aldaketa puntualak egon daitezke); lurzoru urbanizaezinean eskaintza ez dago programatuta eta, betiere, eskaintza pribatuak aukeratzen du kokapena kasuak kasu, eta udal-plangintzak erabilera-eta eraikuntza-baldintzak ezarrita izan ditzake, ala ez. Azken kasuan, behin betiko onarpena emateko ardura duten udalaz gaindiko erakundeek ere euren irizpideak dituzte, aplikatzekoa den legeriaren arabera, proposamena baldintzapean onartzeko edo baztertzeko. Lurzoruaren sailkapenari buruzko oharrak planteatu ondoren, ezarpenaren funtsezko beste faktorea erabilera (edo, hobe esanda, erabilerak) arautzea da: erabilera nagusia (hau da, mahatsa ardo bihurtzea, nahi den kalitatea lortzeko beharrezko prozesu osoa eta ardoa banatzea) eta erabilera osagarriak (batez ere, ardo jakin bati irudi edo marka jakin bat emateko garaian gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren egile-upeltegi deitu daitezkeen horietarako). Atal honetan lur eremuko ardoak ere erantsiko dira, eta horien arautegia upeltegi mota horren berezitasuna kontuan hartuta egin behar da. Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzaren berezitasuna ezin konparatuzkoa da nolabaiteko ardogintza-jarduera (batez ere txakolina) izan dezaketen EAEko beste eskualde-egitura batzuenarekin. Beraz, jarduera horren arautzea nolabaiteko berezitasunetik abiatuta hartu behar da, eta oinarritzko printzipio hau kontuan izanda: jarduera, desiragarritzat har daitekeen egoerara iritsi arte sustatzea. Hori dela eta, etorkizunean upatetiak jartzeko Ingurumeneko Euskal Estrategian jasotako ingurumen-irizpideak kontuan hartuko dira, eta zehazki: - Lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik dagoeneko artifizializatuak dauden lurzoruei eta kutsatutako lurzoruak berreskuratzeari lehentasuna ematea. - 100 urteko itzulera epeko uholdeak jasateko arriskua duten eremuen artifizializazioa saihestea. - Hirietan bereizketa eta sakabanatzea saihestea. - Hondakin gutxiago sortzea. - Energia berriztagarrien erabilera eta produkziara sustatzea. - Aniztasun biologikoari eustea dauden natur guneak babestuz. Eskualde Egituraren barruan, hura osatzen duten udalerrri guztientzako arautze homogeneoa ezarri beharra dago; printzipioz, mahastizaintza eta ardogintzaren jarduerarekiko lotura-maila kontuan hartu gabe. Ez da komeni arautzeak batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako izango diren elementu bereizleak ezartzea, saihestu beharreko tirabirak sortuko bailirateke.
---	--

Antzemandako egoera ezaugarritu ondoren, arautzeak instalazio horien kokapenaren inguruan sortutako arazoei konponbidea behar die, dauden tipologiak kontuan izanda eta, ahal den neurrian, LZParen indarraldian sor daitekeen egoera aurreikusita. Upeltegiak ezartzeko irizpideak edo orientazioak, udal-plangintzak praktikan jarri beharko dituenak, egin nahi den lurzoruaren sailkapenaren arabera bereizketa kontuan izanda ezarri dira. A. Hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak • Upeltegi berriak ezartzeko lehentasunezko lurzoruak dira. • Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian upeltegiak ezartzeko lehen baldintza ekonomia-jarduera orokorretarako lurzoru-kalifikazioa edota upeltegietarako berariazkoa edo xehetasunezkoa izatea da. • Jakina, lurzoruak (batez ere hiritarrak) hiriguneetatik gertu egoteak ezin du ekarri horien hiri-egitura nahiz irudia aldatzea. Horregatik, upeltegiak hiriguneen inguruetan kokatzeko irizpide murriztaileak ezarri beharko dira; are gehiago, horiek barne hartzen dituzten eraikuntzak egitura hori aldatzeko moduko dimentsioetakoak badira. B. Lurzoru urbanizaezinak • Lurzoru horiek upeltegiak ezartzeko erabiliko dira, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezartzea ezinezkoa denean, aurreko A atalean adierazitako baldintzak direla eta. • Lehenik eta behin, upelak lurzoru-mota horretan ez dira inoiz ezarriko LZPak berak edo udal-plangintzak bereziki babestutako lurzoruetan, babesaren arrazoia edozein izanik ere. • Instalazio horiek garatzeko plan berezi bat idatziko da, eta, aldez aurretik, lursail hartzaileako esparruaren mugaketa finkatuko da, lursail horren pareko bide-tartea barne dela, beharrezko urbanizazioa ebatziko den moduan.	Antzemandako egoera ezaugarritu ondoren, arautzeak instalazio horien kokapenaren inguruan sortutako arazoei konponbidea behar die, dauden tipologiak kontuan izanda eta, ahal den neurrian, LZParen indarraldian sor daitekeen egoera aurreikusita. Upeltegiak ezartzeko irizpideak edo orientazioak, udal-plangintzak praktikan jarri beharko dituenak, egin nahi den lurzoruaren sailkapenaren arabera bereizketa kontuan izanda ezarri dira. A. Hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak • Upeltegi berriak ezartzeko lehentasunezko lurzoruak dira eta funtsean “eraldaketako instalazio txikientzako”. • Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian upeltegiak ezartzeko lehen baldintza ekonomia-jarduera orokorretarako lurzoru-kalifikazioa edota upeltegietarako berariazkoa edo xehetasunezkoa izatea da. Horretarako, Eremu Funtzionaleko udal-erri guztiek hiri lurzoruen edo lurzoru urbanizagarrien poltsa izango dute, jarduera ekonomiko orokorretarako kalifikatuta edo, bestela, upeltegientzat berariaz eta modu xehatuan eginikoa. Neurriak, jarduera ekonomiko orokorreko poligonoen kasuan, Ekonomia Jarduera eta Merkataritza Homiduretarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren LPPan ezarritakoari egokituko zaizkio, eta, upeltegietarako berariazko kalifikazioa duten poligonoetan, “eraldaketako instalazio txikietarako” aurreikus daitekeen eskaria estaltzen dela justifikatu beharko da. Aurreikuspena udal mugartean dagoen mahasti landaketa kopuruaren arabera egingo da. • Lurzoru horietan upeltegi berriak jartzeak, noski, dauden guneen barruan edo ondoan, ezingo du hiri egituraren edota horien irudien eraldaketarik ekarri. B. Lurzoru urbanizaezinak • Lurzoru horiek upeltegiak ezartzeko erabiliko dira, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezartzea ezinezkoa denean, aurreko A atalean adierazitako baldintzak direla eta. • Lehenik eta behin, upelak lurzoru-mota horretan ez dira inoiz ezarriko LZPak berak edo udal-plangintzak bereziki babestutako lurzoruetan, babesaren arrazoia edozein izanik ere. • Instalazio horiek garatzeko plan berezi bat idatziko da, eta, aldez aurretik, lursail hartzaileako esparruaren mugaketa finkatuko da, lursail horren pareko bide-tartea barne dela, beharrezko urbanizazioa ebatziko den moduan.
--	--

• Upeltegiak behar bezala ebatziko ditu oinarrizko zerbitzuen beharrak. Ur-hornidurarako (modu autonomian zein sare orokorretik hartuta) beharrezko obrak ordaindu beharko dira. Saneamenduak beharrezko baliabide guztiak izango ditu hondakin-urei tratamendu osatua emateko, lur gaineko urak edo lurpeko akuiferoak kutsatzea saihestuko den moduan. • Energia-kontsumorako eraginkortasun-irizpideei jarraituko zaie. Energia berriztagarriaren produkzioa gaineratuko da, batez ere eguzki-energiarena, kalkulaturako kontsumoaren gaineko %20an gutxienez, ingurunearen gaineko eragin kutsatzailea murriztuko den moduan. • Egungo hiriguneekiko distantzia jakin bat finkatu gabe, ezarpenak ezin izango du ekarri funtsezko aldaketarik hiri-egituraren edota haren irudi tradizionalen. • Litezkeen kokapen batzuen erakargarritasun-balioa zalantzan jarri behar ez dela ulertuz, positiboki baloratuko dira kokapenean integratzeari buruzko alderdiak. Ezarpenak ez dira muinoen gailurretan kokatuko, edota egungo paisaia naturalaren aldaketa larria ekarriko duten ageriko zonetan.	• Upeltegiak behar bezala ebatziko ditu oinarrizko zerbitzuen beharrak. Ur-hornidurarako (modu autonomian zein sare orokorretik hartuta) beharrezko obrak ordaindu beharko dira. Saneamenduak beharrezko baliabide guztiak izango ditu hondakin-urei tratamendu osatua emateko, lur gaineko urak edo lurpeko akuiferoak kutsatzea saihestuko den moduan. • Energia-kontsumorako eraginkortasun-irizpideei jarraituko zaie. Energia berriztagarriaren produkzioa gaineratuko da. Upeltegiak Eraikuntzako Kode Teknikoak, EKT, EA Od 4. UBSko gutxieneko eguzki ekarpena, xedatutakoa bete beharko dute: Eskaria (3.1.1. puntua) lokal (administrazioa, hotela, tailerrak, jatetxea...) edo antzeko egoitza bakoitzari eman beharreko erabileren arabera zehaztuz eta, eskaturiko litro kopuruaren araberrako kalkulua eginez, gutxieneko eguzki ekarpena ezarri kontuan hartuta Arabako Errioxa II. gune klimatikoan kokatzen dela. Gainera, instalazioetan behar izango den energia guztiaren beste zati garrantzitsu bat energiak aprobetxatuz, aldi berean sortzeko prozesuen bitartez edo eraikinekoa ez den bera berreskuratzeko instalazioetatik etorritako hondakin energia iturrien bitartez eskuratuko da. • Hiriguneekiko gorde beharreko distantzian gutxienekorik ezartzen ez bada ere, ezarpenak ezin izango du ekarri funtsezko aldaketarik hiri-egituraren edota horien irudi tradizionalen. • Udal planeamenduak kontuan izan beharko du eraikinen paisaiari egokitu behar izatea. • Litezkeen kokapen batzuen erakargarritasun-balioa zalantzan jarri behar ez dela ulertuz, upeltegien ezarpena ez da muinoen gailurretan kokatuko, edota egungo paisaia naturalaren aldaketa larria ekarriko duten ageriko zonetan. Zehazki, Kantabria Mendilerroan eta 600 m-tik gorako kotan, upeltegien arteko distantzia ≥ 500 m-koa izan beharko da. Beharrezkoa da araudian gutxieneko jarraibide batzuk ezartzea. Horiek udal planeamenduek bildu beharko dituzte ordenantzetan malda duten lursailetan kokatzen diren eraikinentzako, eta lurzoruaren profil naturalean aldarazpenak egitea saihestuz "soto artifizialak" egin eta horiek eraikigarritasunetik kanpo geratzeko. Halaber, orografian aldaketak ekarriko dituzten lur mugimenduak mugatu egin beharko dira. Halaber, Hirigintza Araudian, industria pabiloiak edo eraikuntza estandarizatuak eta errepikagarriak erabiltzea saihesteko arauak jarriko dira. • LPP honen eraginetarako, honela definitzen dira:
--	---

• Gutxienez 10 ha-ko mahasti-saila izango duen azalera ekarri izana justifikatu beharko da, lursail hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lursail hartzailearen gutxienerako azalera 20.000 m²-koa izango da. • Gehieneko eraikigarritasuna, lursail hartzaileari soilik aplikatutakoa, 0,2 m²/m²-koa izango da, eraikin bakarrerako finkatutako 8.000 m²-ko aprobetxamendu-mugatzaillearekin. Zenbait eraikin independente onartuko dira, baldin eta distantziari, orientazioari, etab. dagokionez udal-plangintzak ezarritako xedapenak betetzen badituzte. • Instalazio bakoitzak behar bezala ebatziko du aparkaleku-zuzkidura, gutxienez plaza bana aurreikusiz 100 m²-ko, ibilgailu pribatuetarako. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie.	Lotetsitako azalera: eraikuntza edo mahastizaintza eta ardogintzako jardueraren berezko instalazioak jartzeko baimena eskatu ahal izateko derrigor bete beharreko baldintza gisa jarri beharreko azalera; lursail hartzailearen eta osagarrien batura izango da. Lursail hartzailea: eraikuntzaren eta/edo instalazioen kokapen fisikoa hartuko duen lursail da. Lursail osagarriak: hartzailetik bereiz eta zati daitezkeen Eremu Funtzionaleko beste mahasti lursail batzuk dira. Lursail hartzailea eraikuntzaren eta/edo egin nahi den instalazioaren titularraren jabetzako edo jabari osoko titulupean aurkeztu beharko da beti. Lursail osagarria edo osagarriak, horrelakorik badago, jabetza osoko, alokairuko edo usufruktuko titulupean jarri ahalko dira, betiere, gutxienez hamar urteko epean hirigintza lotura izatearen baldintzapean eta kasuan kasuko Jabetza Erregistroan inguruabar hori inskribatzearen baldintzapean. Betekizun hori betetzeko beste upelategi batzuei lotutako lursail guztiak (jabetzan edo lotuta) kanpoan utziko dira. Hirigintza-atxikipen hori Plan Bereziari behin betiko onespina eman aurretik egiaztatuko da, Jabetzaren Erregistroko ziurtagiriaren bidez • Mahasti sailak izango duen gutxienerako azalera lotura justifikatu beharko da, lursail hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lotura honakoa izango da: - 8 ha "eraldaketa instalazio txikiak" - 12 ha "upelategi handiak" eta erabilera osagarriak erabiltzen dituzten "eraldaketa instalazio txikiak" (ostalaritza, eta abar). Lursail hartzailearen gutxienerako azalera honakoa izango da: - 5.000 m² (0,5 ha) "eraldaketa instalazio txikiak" - 10.000 m² (ha 1) "upelategi handiak" eta erabilera osagarriak erabiltzen dituzten "eraldaketa instalazio txikiak". • Gehieneko eraikigarritasuna, sestra gainean, lursail hartzaileari soilik aplikatutakoa, 0,3 m²/m²-koa izango da, eraikin bakarrerako finkatutako 8.000 m²-ko aprobetxamendu-mugatzaillearekin. Zenbait eraikin independente onartuko dira, baldin eta distantziari, orientazioari, etab. dagokionez udal-plangintzak ezarritako xedapenak betetzen badituzte. • Instalazio bakoitzak behar bezala ebatziko du aparkaleku-zuzkidura. Aparkalekuaren zenbaketa bulego eta lokaletarako aurreikusitako pertsonen okupazioaren arabera egingo da. Zenbaketa EKTn, SSA (Segurtasuna Sutean Aurrean) Od delakoan, ezarritako okupazio
--	--

Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 2.000 m²e-ko. • Upeltegaren instalazio osagarriak, batez ere transformazioarekin zerikusia dutenek, tratamendu arkitektoniko egokia izan beharko dute, eraikin nagusiarekin bat etorriko dena, lursailean elementu sakabanatuak saihesteko. • Mahastirako ez diren zatietan, baleude, lursailaren urbanizazioa bere osotasunera zabalduko da. Urbanizazioak paisaiarekiko integrazioaren printzipioak bete beharko ditu.	kalkuluei jarraiki egingo da (SSA 3. Okupazioaren kalkulua). Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie “upeltegi handietan” eta erabilera osagarriak eransten dituzten “eraldaketako instalazio txikietan”. Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 3.000 m²e-ko. • Upeltegaren instalazio osagarriak, batez ere transformazioarekin zerikusia dutenek, tratamendu arkitektoniko egokia izan beharko dute, eraikin nagusiarekin bat etorriko dena, lursailean elementu sakabanatuak saihesteko. • Mahastirako ez diren zatietan, baleude, lursailaren urbanizazioa bere osotasunera zabalduko da. Urbanizazioak paisaiarekiko integrazioaren printzipioak bete beharko ditu. • Aldez aurretik zeuden upeltegiei dagokienez, egungo LPParekin bat ez datozen bi kasu aztertuko dira: - Babes bereziko lurzoruetan kokatzen diren upeltegiak, erreforma edo zabaltze egintzak onartuko ez dituztenak (mantentze lanetarako beharrezkoak direnak soilik). - Lehendik zeuden upategietan, LPPan bereziki babestu beharreko lurzoruetan ez badaude, egun eraikuntzak hartzen duen azalera % 25 handitzeko aukera emango da. Hala ere, eraikuntzak lursailaren % 50 hartu ahal izango du gehienez. • Babes bereziko lurzoruetan kokatzen ez diren bitartean, baimena emango da LPPa onartzerakoan jada existitzen ziren nekazaritzako pabiloiak upeltegi bihurtzeko, nahiz eta lursail hartzailearen gutxieneko azaleraren parametroa ez bete eta gehieneko eraikigarritasuna gainditzen badute ere. Hemen adierazitako gainerako baldintzetara egokitu beharko dira horiek.
---	--

b. LPParen ALDAKETAREN ARAUDIA

b.1.- ALDAKETA PROPOSAMENA

b.1.1.- "MAHASTIZAINNTZA ETA ARDOGINTZA. UPELTEGIAK" IZENeko 34. ARTIKULUARI EGINIKO ALDAKETAK

INDARREKO TESTUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
34. artikulua.– Mahastizaintza eta ardogintza.Upeltegiak. 1. Upeltegiak ezartzeko irizpideak edo orientabideak, udal-plangintzak lurzoru-motaren arabera garatu behar dituenak, hauek dira: 1.1. Hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak. Upelategi berriak ezartzeko lehentasunezko lurzoruak dira. Horietan, honako irizpide hauek aplikatuko dira: a) Ekonomia-jarduera orokorretarako lurzoru-kalifikazioa edota upelategietarako berariazkoa edo xehetasunezkoa izango dute. b) Jakina, upelategi-lurzoruak (batez ere hiritarrak) hiriguneetatik gertu egoteak ezin du ekarri horien hiri-egitura nahiz irudia aldatzea. Horregatik, upelategiak hiriguneen inguruetan kokatzeko irizpide murriztaileak	34. artikulua.– Mahastizaintza eta ardogintza.Upeltegiak. 1.Ikuspegi sektorialetik bi instalazio mota bereizten dira, eta horiei artikulua hau aplikatu beharko zaie: a) "Eraldaketa instalazio txikiak" (mahastizain profesionala, urteko ardoaren upelategiak erantzen dituen kontzeptua), ardo ekoizpena 250.000 l/urteko edo gutxiago denean. Funtsean eraldaketa eta biltegiatzeko industriak dira. b) "Upelategi handiak", ardo ekoizpena 250.000 litro ardo/urteko baino gehiago denean, eta, normalean, ardoaren ekoizpenaren inguruan beste jarduerak osagarri batzuk erantzen dituzte (ostalaritza, eta abar). 2. Upelategiak ezartzeko irizpideak edo orientabideak, udal-plangintzak lurzoru-motaren arabera garatu behar dituenak, hauek dira: 2.1. Hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak. Upelategi berriak ezartzeko lehentasunezko lurzoruak dira, eta funtsean "eraldaketa instalazio txikiak". Arrazoi hori dela eta, eremu funtzionaleko udalerri guztiek hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri hutsa izan beharko dute, horiek ezartzea posible izan dadin. Lurzoruei hurrengo irizpideak aplikatuko zaizkie: a) Ekonomia-jarduera orokorretarako lurzoru-kalifikazioa edota upelategietarako berariazkoa edo xehetasunezkoa izango dute. b) Neurriak, jarduerak ekonomiko orokorreko poligonoen kasuan, Ekonomia Jarduera eta Merkataritza Horniduretarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren LPPan ezarritakoari egokitu zaizkio, eta, upelategietarako berariazko kalifikazioa duten poligonoetan, "eraldaketa instalazio txikiak" aurreikus daitezkeen eskaria estaltzen dela justifikatu beharko da. Aurreikuspena udal mugartean dagoen mahasti landaketa kopuruaren arabera egingo da. c) Upelategi berriak jartzeak ezingo du hiri egituren eraldaketarik ekarri, ezta hiriguneen irudia aldatzea ekarri ere.

ezarri beharko dira; are gehiago, horiek barne hartzen dituzten eraikuntzak egitura hori aldatzeko moduko dimentsioetakoak badira. 1.2. Lurzoru urbanizaezinak: lurzoru horiek upeltegiak ezartzeko erabiliko dira, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezartzea ezinezkoa denean, aurreko A atalean adierazitako baldintzak direla eta. Honako irizpideak ezarriko zaizkie: a) Upelak lurzoru-mota horretan ez dira inoiz ezarriko LZPak berak edo udal-plangintzak bereziki babestutako lurretan, babesaren arrazoia edozein izanik ere. b) Instalazio horiek garatzeko plan berezi bat idatziko da, eta, aldez aurretik, lursail hartzaileako esparruaren mugaketa finkatuko da, lursail horren pareko bide-tartea barne dela, beharrezko urbanizazioa ebatziko den moduan. c) Upeltegiak behar bezala ebatziko ditu oinarritzko zerbitzuen beharrak. d) Energia-kontsumorako eraginkortasun-irizpideei jarraituko zaie. Energia berriztagarriaren produkzioa gaineratuko da, batez ere eguzki-energiarena, kalkulaturako kontsumoaren gaineko %20an gutxienez, ingurunearen gaineko eragin kutsatzailea murriztuko den moduan. e) Egungo hiriguneekiko distantzia jakin bat finkatu gabe, ezarpenak ezin izango du ekarri funtsezko aldaketarik hiri-egituran edota haren irudi tradizionalen.	2.2. Suelos no urbanizables: lurzoru horiek upeltegiak jartzeko erabiliko dira baldin eta hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezinezkoa bada, aurreko 1.1. idatz zatian ezarritako baldintzak direla eta. Horientzako, hurrengo irizpideak jarri dira: a) Bereziki babestutako LUEn kokatzeko debekua: Upelak lurzoru-mota horretan ez dira inoiz ezarriko LZPak berak edo udal-plangintzak bereziki babestutako lurretan, babesaren arrazoia edozein izanik ere. b) Plan Bereziaren beharra: Instalazio horiek garatzeko plan berezi bat idatziko da, eta, aldez aurretik, lursail hartzaileako esparruaren mugaketa finkatuko da, lursail horren pareko bide-tartea barne dela, beharrezko urbanizazioa ebatziko den moduan. c) Oinarritzko zerbitzuak eskura izatea: Upeltegiak behar bezala ebatziko ditu oinarritzko zerbitzuen beharrak. d) Energia berriztagarriak erabiltzea: Energia-kontsumorako eraginkortasun-irizpideei jarraituko zaie. Energia berriztagarriaren produkzioa gaineratuko da. Upeltegiek Eraikuntzako Kode Teknikoak, EKT, EA Od 4. UBSko gutxieneko eguzki ekarpena, xedatutakoa bete beharko dute: eskaria (3.1.1. puntua) lokal (administrazioa, hotela, tailerrak, jatetxea...) edo antzeko egoitza bakoitzari eman beharreko erabileren arabera zehaztuz eta, eskaturiko UBS litro kopuruaren arabera kalkulua eginez, gutxieneko eguzki ekarpena ezarri kontuan hartuta Arabako Errioxa II zonalde klimatikoan kokatzen dela. Gainera, instalazioetan behar izango den energia guztiaren beste zati garrantzitsu bat energiak aprobetxatuz, aldi berean sortzeko prozesuen bitartez edo eraikinekoa ez den bera berreskuratzeko instalazioetatik etorritako hondakin energia iturrien bitartez eskuratuko da. e) Kokalekua aurretik bertan dauden hiriguneekiko: Hiriguneekiko gorde beharreko distantzian gutxienezko ekarpena ezartzen ez bada ere, ezarpenak ezin izango du ekarri funtsezko aldaketarik hiri-egituran
---	--

f) Litezkeen kokapen batzuen erakargarritasun-balioa zalantzan jarri behar ez dela ulertuz, positiboki baloratuko dira kokapenean integratzeari buruzko alderdiak. Ezarpenak ez dira muinoen gailurretan kokatuko, edota egungo paisaia naturalaren aldaketa larria ekarriko duten ageriko zonetan. g) Gutxienez 10 ha-ko mahasti-saila izango duen azalera ekarri izana justifikatu beharko da, lursail hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lursail hartzailearen gutxieneko azalera 20.000 m²-koa izango da.	edota horien irudi tradizionalen. f) Paisaiari egokitzea Udal plangintzak kontuan izan beharko du eraikinen paisaiari egokitu behar izatea. Litezkeen kokapen batzuen erakargarritasun-balioa zalantzan jarri behar ez dela ulertuz, upeltegien ezarpena ez da muinoen gailurretan kokatuko, edota egungo paisaia naturalaren aldaketa larria ekarriko duten ageriko zonetan. Zehazki, Kantabria Mendilerroan eta 600 m-tik gorako kotan, upeltegien arteko distantzia ≥ 500 m-koa izan beharko da. Gutxieneko jarraibide arautzaile batzuk ezarriko dira, bai malda duten lursailetan kokatuko diren eraikuntzetarako, eraikigarritasun gisa ez hartzeko "soto artifizialak" egiteko lurzoruaen profil naturala goratzea saihesteko, bai orografian aldaketak ekarriko dituzten lur mugimenduak mugatzeko. Halaber, industria pabiloiak edo eraikuntza estandarizatuak eta errepikagarriak erabiltzea saihesteko arauak jarriko dira. g) Mahasti landaketaren lotetsitako azalera eta lursail hartzailearen azalera Mahasti sailak izango duen gutxieneko azalera lotura justifikatu beharko da, lursail hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lotura honakoa izango da: - 8 ha "eraldaketa instalazio txikientzako". - 12 ha "upeltegi handientzako" eta erabilera osagarriak eransten dituzten "eraldaketa instalazio txikientzako" (ostalaritza, eta abar). Lursail hartzailearen gutxieneko azalera honakoa izango da: - 5.000 m² (0,5 ha) "eraldaketa instalazio txikientzako". - 10.000 m² (ha 1) "upeltegi handientzako" eta erabilera osagarriak eransten dituzten "eraldaketa instalazio txikientzako". Lursail hartzailea eraikuntzaren eta/edo egin nahi den instalazioaren titularraren jabetzako edo jabari osoko titulupean aurkeztu beharko da beti. Lursail osagarria edo osagarriak, horrelakorik badago, jabetza osoko, alokairuko edo usufruktuko titulupean jarri ahalko dira, betiere, gutxienez hamar urteko epean hirigintza lotura izatearen baldintzapean eta kasuan kasuko Jabetza Erregistroan inguruabar hori inskribatzearen
--	--

h) Gehieneko eraikigarritasuna, lursail hartzaileari soilik aplikatutakoa, $0,2 \text{ m}^2/\text{m}^2$-koa izango da, eraikin bakarrerako finkatutako 8.000 m^2-ko aprobetxamendu-mugatzaillearekin. Zenbait eraikin independente onartuko dira, baldin eta distantziari, orientazioari, etab. Dagokionez udal-plangintzak ezarritako xedapenak betetzen badituzte. i) Instalazio bakoitzak behar bezala ebatziko du aparkaleku-zuzkidura, gutxienez plaza bana aurreikusiz 100 m^2-ko, ibilgailu pribatueterako. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie. Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 2.000 m^2-ko. j) Upeltegiaren instalazio osagarriak, batez ere transformazioarekin zerikusia dutenek, tratamendu arkitektoniko egokia izan beharko dute, eraikin nagusiarekin bat etorriko dena, lursailean elementu sakabanatuak saihesteko. k) Mahastirako ez diren zatietan, baleude, lursailaren urbanizazioa bere osotasunera zabalduko da. Urbanizazioak paisaiarekiko integrazioaren printzipioak bete beharko ditu.	baldintzapean. Betekizun hori betetzeko beste upeltegi batzuei lotutako lursail guztiak (jabetzan edo lotuta) kanpoan utziko dira. Hirigintza-atxikipen hori Plan Bereziari behin betiko onespena eman aurretik egiaztatuko da, Jabetzaren Erregistroko ziurtagiriaren bidez h) Gehieneko eraikigarritasuna: Gehieneko eraikigarritasuna, sestra gainean, lursail hartzaileari soilik aplikatutakoa, $0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$-koa izango da, 8.000 m^2-ko aprobetxamendu mugatzaillearekin. Se admitirán varios edificios independientes atendiendo a disposiciones que establezca el planeamiento municipal en cuanto a distanciamiento, orientación, etc. i) Aparkaleku hornidura Instalazio bakoitzak behar bezala ebatziko du aparkaleku-zuzkidura. Aparkalekuen zenbaketa bulego eta lokaletarako aurreikusitako pertsonen okupazioaren arabera egingo da. Zenbaketa EKTn (SSA Od) ezarritako okupazio kalkuluei jarraiki egingo da. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie "upeltegi handietan" eta erabilera osagarriak eransten dituzten "eraldaketa instalazio txikietan". Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 3.000 m^2-ko. j) Arkitektura tratamendua Las instalaciones complementarias de la bodega, sobre todo aquellas relacionadas con la transformación, deberán contar con un tratamiento arquitectónico adecuado y acorde con la edificación principal, evitando la aparición de elementos dispersos por la parcela. k) Hirigintzaren tratamendua La urbanización de la parcela receptora se extenderá a su totalidad para las partes no dedicadas a viñedo si las hubiera. La urbanización será acorde con los principios de integración con el paisaje. l) LPPa indarrean jartzean jada existitzen diren upeltegiak Aldez aurretik zeuden upeltegiei dagokienez, egungo LPParekin bat ez datozen bi kasu aztertuko dira: - Babes bereziko lurzoruetan kokatzen diren upeltegiak, erreforma edo zabaltze egintzak
--	--

	onartuko ez dituztenak (mantentze lanetarako beharrezkoak direnak soilik). - Lehendik zeuden upategietan, LPPan bereziki babestu beharreko lurzoruetan ez badaude, egun eraikuntzak hartzen duen azalera % 25 handitzeko aukera emango da. Hala ere, eraikuntzak lursailaren % 50 hartu ahal izango du gehienez. m) <u>Dauden pabiloiak eraldatzea</u> LPPa onartu zenean jada existitzen ziren nekazaritzako pabiloiak upeltegi bihurtzea ahalbidetuko da, betiere, babes bereziko lursailak ukitzen ez badira, eta lursail hartzailearen gutxieneko azaleraren edo gehieneko eraikigarritasunaren parametroa betetzen ez bada ere. Aurrekoaren kaltetan izan gabe, pabiloiak 2.2 idatz zatian ezarritako gainerako baldintzetara egokitu beharko dira.
--	--

b.1.2.- 34 BIS ARTIKULU BERRIA: “NEKAZARITZAKO BESTE ERAIKUNTZA BATZUK”

34bis artikulua.- Nekazaritzako beste eraikuntza batzuk

1. Upeltegikoa ez den nekazaritza erabilerako edozein eraikuntza lurzoru urbanizaezinean kokatzeak aurreko 34. artikuluan berariaz adierazitako parametroak bete beharko ditu “eraldaketako instalazio txikiei” dagokienez (lurzati hartzailea, eraikigarritasuna, eta abar). Salbuespena mahasti landaketaren azalera lotetsiari buruzko alderdia da, ez baita derrigorrezkoa.

c. EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERLANA

LPParen aldaketak ez ditu aldatzen indarrean dagoen Ekonomia eta Finantza Azterlanaren erabakiak, baldintza batean ere ez.

d. EGIKARITZE PROGRAMA

Egikaritze Programari dagokionez, LPParen aldaketak ez du aldatzen indarrean dagoen Egikaritze Programaren erabakiak, baldintza batean ere ez.



II. DOKUMENTUA:

**BIASTERIKO (ARABAKO ERRIOXA) LURRALDEKO PLAN
PARTZIALAREN ALDAKETAREN INGURUMEN
ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA,
EREMU FUNTZIONALEAN NEKAZARITZA ERAIKUNTZAK
ETA UPELTEGIAK ARAUTZEARI DAGOKIONEZ**

TESTU BATEGIN

0. SARRERA	1
1. LPParen ALDAKETAREN HELBURUEN ETA HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA	1
1.1. ALDAKETAREN JARDUERA EREMUA ETA DENBORA HELMENA	1
1.2. ALDAKETAREN HELBURUAK	1
1.3. HAUSNARTUTAKO HAUTABIDEAK	2
1.4. PROPOSAMENAREN LABURPENA	2
1.5. HIERARKIAN GAINETIK DAUDEN BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUK KONTUAN HARTZEKO ZEHAZTAPENEN LABURPENA	4
1.6. ERAGINAK SOR DITZATEKEN JARDUNEN ETA ZEHAZTAPENEN IDENTIFIKAZIOA	4
1.7. GAUZATZEAREN FASEAK	4
1.8. SUMATU AHAL IZAN DIREN INFORMAZIO HUTSUNEAK	4
1.9. PARTE HARTZE PUBLIKOAREN PROZESUA	4
2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARREKINTZAREN AZTERKETA	5
2.1. ALDAKETARI ERAGITEN DIOTEN ETA LANTZERAKOAN AINTZAT HARTU DIREN MAILA ALTUAGOKO GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK	5
2.2. ALDAKETA LANTZERAKOAN AINTZAT HARTUTAKO INGURUMENAREN ALORREKO XEDAPENAK ETA LEGEDIA	8
2.3. EREMU FUNTZIONALEAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN ETA PROIEKTU BATZUK	9
3. ALDAKETAK ERAGINDAKO EREMUAREN GAINEKO INGURUMEN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA	12
3.1. AZTERKETA EREMUAREN DEFINIZIOA	12
3.2. LURZORUAREN EGUNGO BALIABIDEEN ETA ERABILEREN APROBETXAMENDUA	12
3.3. ERAGINAK JASO DITZAKETEN INGURUMEN ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA ETA EZAUGARRI AZALPENA	14
3.4. INGURUMEN BALIABIDE BALIOTSUEN IDENTIFIKAZIOA	19
3.5. LURRALDEAREN ETA BERE BALIABIDEEN INGURUMEN BALORAZIOA. INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK	24
3.6. INGURUMEN DIAGNOSTIKOA. SUMATUTAKO ARAZOAK ETA AUKERAK	25
3.7. INFORMAZIOA BILTZEKO ZAILTASUNAK	29
4. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN HAUTABIDEEN INGURUMEN AZTERKETA. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	30
4.1. HAUSNARTUTAKO HAUTABIDEETAN BILDUTAKO JARDUEREN DEFINIZIOA	30
4.2. ZERO HAUTABIDEAREN EDO "ESKU HARTZE EZAREN" DEFINIZIOA	31
4.3. PROPOSAMENAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEAK	31
4.4. ALDAKETAREN PROPOSAMENAK SORTUTAKO ERAGINEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO OROKORRA	32
4.5. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	35

5. SUMATUTAKO ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	37
5.1. LPParen ALDAKETAREN HELBURUEK INGURUMENEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA	37
5.2. LPParen ALDAKETA PROPOSAMENAREN INGURUMEN ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	37
6. NEURRI BABESLEAK, ZUZENTZAILEAK ETA KONPENTSAZIOZKOAK	41
6.1. GORAGOKO MAILETAN EGINIKO INGURUMEN ERAGINAREN EBALUAZIOZKOAK ETORRITAKO NEURRIAK	41
6.2. ALDAKETAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA	41
6.3. GARAPENARI ERANTSI BEHARREKO NEURRIAK ETA ALDAKETAREN APLIKAZIOA	41
7. LPParen ALDAKETAREN ERAGINAK GAINBEGIRATZEKO INGURUMEN PROGRAMA	43
7.1. KONTROL HELBURUAK ETA JARRAIPENA	43
7.2. JARRAIPENAREN XEDE IZAN BEHAR DIREN ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA	43
7.3. JAGOLETZA PROGRAMA	43
8. LABURPEN DOKUMENTUA	47
9. DOKUMENTAZIO KARTOGRAFIKOA	54
1. PLANOA.- INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK 1	
2. PLANOA.- INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK 2	
I. ERANSKINA.- ALDERAKETA INDARREKO ARAUDIAREN ETA ALDAKETA PROPOSAMENAREN ARTEAN (LPPAREN 34. ARTIKULUA)	

0.- SARRERA

Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialaren aldaketa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak bultzatutakoa Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailarekin batera, ingurumen eraginaren ebaluazioaren prozedurapean jarri behar da Plan eta Programa Batzuen Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea eta Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua betetzeko.

Horretarako, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlan hau idatzi da, eta bertan jasotako edukia bat dator 183/2003 Dekretuan ezarritakoarekin eta ingurumen arloko organoak egindako ingurumen txostenen zehaztapenak biltzen ditu.

1. LPParen ALDAKETAREN HELBURUEN ETA HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA

1.1. ALDAKETAREN JARDUERA EREMUA ETA DENBORA HELMENA

Aldaketa honen aplikazio eremua Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzional osoa da, eta, ondorioz, hurrengo udal mugarte guztiak harrapatzen ditu:

- Baños de Ebro / Mañueta
- Eltziego
- Elvillar / Bilar
- Kripan
- Labastida
- Laguardia
- Lanciego / Lantziego
- Lapuebla de Labarca
- Leza
- Moreda de Álava
- Navaridas
- Oyón-Oion
- Samaniego
- Villanueva de Álava / Eskuernaga
- Iekora

Aldaketa honen zehaztapenak indarrean jarriko dira behin betiko onartzen den dekretua argitaratzen denetik aurrera, eta indarrean egongo dira aldatzen edo baliogabetzen ez diren bitartean.

1.2. ALDAKETAREN HELBURUAK

Aldaketa honen helburu nagusia Eremu Funtzionalaren lurraldean dauden upeltegien egungo araudia egokitzea da. Horretarako, upeltegiak ezartzeko irizpide berriak erantsi dira beharren arabera, eta egun sektoreak bizi duen errealitatearekin zerikusi gehiago duten parametro batzuk ezarri dira. Labur adieraztearren, zera da proposatzen dena:

- Eremu funtzionaleko udalerri guztietan poligonoak egotea ahalbidetzea hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, eta horiek gai izatea eraldaketako instalazio txikiak hartzeko.
- Eremu osorako modu homogeen bideratu eta arautzea poligono horietan koka ezin daitezkeen eta lurzoru urbanizaezina behar duten ekimen guztiak.

Aldaketa idazteko aintzat hartu diren ingurumen arloko irizpideak Euskal Ingurumen Estrategian jasotakoekin bat datozenak, besteak beste:

- Energia berriztagarrien kontsumoa eta ekoizpena sustatzea, eguzki energia erabiltzearen, energia eta kogenerazio prozesuak aprobetxatzearen alde eginez.
- Dibertsitate biologikoari eustea. Aldaketak Lurraldearen Zatiko Planak babestutako natura intereseko guneen edo mugatutakoen gainean eraginik ez edukitzea bermatzen du.

Halaber, aldaketa honek hurrengoak bezalako helburuak batu nahi ditu: batetik, lurzoru urbanizaezina mantendu eta babestea, eta, bestetik, upelategiak kokatzea ahalbidetzea, errealitateari lotutako irizpideak aplikatuz. Eremuko jardura tradizionalaren banaketa baliabide naturalen berezko paisaien babesarekin bat etortzea da lortu nahi dena, erabilera eta jardura muga batzuk ezarri horiek babesteko.

1.3. HAUSNARTUTAKO HAUTABIDEAK

Aldaketak ez du hautabiderik planteatu, kontua ez da jardura bati kokaleku zehatza ematea, baizik eta lurralde osoan kokatzeko jarraibideak ezartzea.

Aldaketa idatzi den bitartean, bi aukera hausnartu dira:

- a) Araudia indarrean dagoen LPPan dagoen bezala utzi.
- b) Hura aldatzea sektorean esku hartzen duten erakunde eta entitateen eskaerak biltzeko, batez ere lurzati hartzailearen, lurzati lotetsiaren eta eraikigarritasunaren alorrean.

Aldaketak, halaber, ingurumen eta paisaia irizpideak eransteko balio du, upelategi bat lurzoru urbanizaezinean instalatzeko baldintzatzaileen artean.

4. idatz zatian bi aukera horien deskribapena egin da, eta horien ingurumen balorazioa erantsi da.

1.4. PROPOSAMENAREN LABURPENA

LPParen aldaketa honek planteatutako proposamenak irizpide berriak eranstu dituen eremuan upelategiak ezartzeko. Horiek zerikusi gehiago izango lukete beren beharren errealitatearekin, eta sektorearen egungo arazoekin zerikusi gehiago duten parametroak ezartzen ditu. Gainera, upeltegikoa ez den nekazaritza erabilerako eraikuntzak arautzea hausnartu du.

Erantsi diren aldaketak hurrengo puntuetan laburbil daitezke:

- a) Bi instalazio motaren bereizketa ardo ekoizpenaren arabera: eraldaketako instalazio txikiak (ekoizpena: ≤ 250.000 litro/urteko) eta upeltegi handiak (ekoizpena: ≥ 250.000 litro/urteko).
- b) Upeltegienezako eta, funtsean, eraldaketako instalazio txikientzako lehentasunezko kokalekua hiri lurzorua edo lurzoru urbanizagarriak izango dira. Horretarako, udal planeamenduak lurzoruak kalifikatu beharko du jarduera ekonomiko orokorarentzat edo berariazkoa jarri bestela upeltegiarentzat. Lehenengo kasuan, neurriek Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruak Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzen ALPan ezarritakoari jarraituko diote; bigarrenetan, berriz, justifikatu egin beharko da eraldaketako instalazio txikietarako aurreikus daitekeen eskaria betetzen dela.
- c) EKTa (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) betetzearen eskakizuna, energiaren kontsumoa efizientea izateari dagokionez eta instalazioei emango zaien erabilaren arabera. Gainera, instalazioetan behar izango den energia guztiaren beste zati garrantzitsu bat energiak aprobetxatuz, aldi berean sortzeko prozesuen bitartez edo eraikinekoa ez den beroa berreskuratzen instalazioetatik etorritako hondakin energia iturrien bitartez eskuratuko da.
- d) Kontuan izango dira paisaiako irizpideak upeltegiak jartzeko, adibidez: hiri egitura edota hiriguneen irudia ez eraldatzea (hiri lurzoruak), lursailen profil naturalean eraldaketarik ez egitea edo + 600 m-ko kotaren gainetik upeltegien arteko distantzia ≥ 500 m-koa izan beharko dela (lurzoru urbanizaezinean jartzen direnentzat), Kantabriako mendilerroa mantentze aldera.
- e) Lotetsitako gutxieneko mahasti azalera 8 ha-koa izango da instalazio txikientzako, eta 12 ha-koa, berriz, "upeltegi handientzako" eta erabilera osagarriak (ostalaritza, eta abar) eransten dituzten "eraldaketako instalazio txikientzako". Bi kasuetan, lurzati hartzailea 2 ha-tik 0,5 ha-ra igarotzen da lehenengo kasuan, eta ha 1era bigarrenetan.
- f) Beharrezkotzat ezartzen da lurzati hartzailea jabetzako edo jabari osoko tituluekin jartzea. Lurzati osagarriak jabetzako, alokairuko edo usufruktuko tituluekin aurkeztu ahalko dira, nahiz eta beharrezkoa izango den 10 urteko lotura izatea eta Jabetza Erregistroan inskribaturik egotea. Hemendik kanpo geratuko lirateke beste upeltegi batzuei uztartutako lurzatiak.
- g) Eraikigarritasuna zabaldu egiten da $0,2 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ -tik $0,3 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ -ra, sestra gaineko balioak direla argituz. Izan ere, sotoak ez dira zenbaketarako kontuan hartzen.
- h) Aparkalekuei dagokienez, ezarri egiten da EKTaren irizpideak jarraituko direla, erabilera publikoko bulego eta lokalen kasuan aurreikusitako pertsonen okupazioari jarraiki. Halaber, autobusentzako aparkaleku osagarri bat beharrezkoa izango da 3.000 m^2 bakoitzeko.
- i) Lurraldearen Zatiko Plana indarrean jarri aurretik bertan zeuden upeltegiarentzat baimendutako jarduerak arautu dira. Babes bereziko lurzoruak kokatzen direnei ez zaizkie erreforma edo zabalkuntza jarduerak baimenduko (mantentze lanetarako behar direnak). Ordea, bestelako lurzoruak kokatzen direnek egun duten eraikitako azalera % 25 handitu ahal izango dute eta, hala, eraikitzeagatik lurzatiaren % 50 hartu ahal izango dute gehienez.
- j) Bestelako lurzoruak kokatzen direnei, berriz, ez zaie eraikigarritasuna areagotzen utziko sestra gainean onarpenaren unean zutenaren % 10a baino gehiagoan.
- k) Egun beste erabilera batzuetarako utzitako pabiloiak upeltegi bihurtzeko aukera hausnartu da, betiere, babes bereziko lurzoruak kokatzen ez badira. Halaber, beharrezkotzat jotzen da eraldaketako instalazio txikietarako zehaztutako eraikuntza parametroak betetzea upeltegiak izan ez eta lurzoru urbanizaezinean kokatu nahi duen

nekazaritza erabilerako beste edozein eraikuntzaren kasuan (mahastien azalera lotetsiari buruzkoa izan ezik).

I. eranskinean indarreko araudiaren eta aldaketa proposamenaren alderaketa jasotzen da, aldatutako testua itzal bidez nabarmenduz.

1.5. HIERARKIAN GAINETIK DAUDEN BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUK KONTUAN HARTZEKO ZEHAZTAPENEN LABURPENA

Hierarkian gainetik kokatzen diren dokumentuen zehaztapenen artetik ez dago planteaturiko proposamenei eragiten dionik.

1.6. ERAGINAK SOR DITZAKETEN JARDUNEN ETA ZEHAZTAPENEN IDENTIFIKAZIOA

Aldaketa honetan planteaturiko proposamenak lurzoru urbanizaezina mantendu eta babesteko xedearekin egin dira, upeltegiak ezartzearen aurrean. Horretarako, ingurumen eta paisaia irizpideen aplikazioa egingo litzateke. Ondorioz, sortuko diren eraginak ez dira garrantzitsuak, orokorrean oso zehatzak izango dira eta upeltegi baten kokalekuaren proiektu zehatza garatzen duten proiektuak lantzen direnean aztertu beharrekoak izango dira.

Azterketa honen 5. idatz zatian planteatutako zehaztapenetatik eratorritako eragin posibleak deskribatu dira.

1.7. GAUZATZEAREN FASEAK

Aldaketak ez du gauzatze faserik planteatzen proposaturiko zehaztapenetarako. Izan ere, horiek indarrean jarriko dira behin betiko onartzeko dekretua argitaratzen den unean. Udal planeamendua horiei egokitu beharko zaie, adierazitako dekretuan zehazten den epean.

1.8. SUMATU AHAL IZAN DIREN INFORMAZIO HUTSUNEAK

Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanaren pean jarritako aldaketak ez du informazio hutsunerik agertu azterketa honen helburuen xederako.

1.9. PARTE HARTZE PUBLIKOAREN PROZESUA

Azterlan honetan analizatzen den aldaketa 2008ko urriaren 14ko aginduaren bitartez onartu zen (azaroaren 5eko 212 zk.ko EHAA) eta zegokion ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanarekin batera jendaurrean jarri zen 45 egunetan eta administrazioek entzunaldi izapidea izan zuten. Aldi horretan 10 alegazio aurkeztu ziren eta erantzuna eman zitzaien.

Ondoren, 2010eko martxoaren 12ko aginduaren bitartez behin-behinean onartzea erabaki zen.

2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARREKINTZAREN AZTERKETA

Egun, Arabako Errioxaren eremuan hainbat dira lurraldea antolatzeko indarrean dauden dokumentuak edo izapidetze bidean daudenak, eta horien zehaztapenak kontuan izan ziren LPPa idazterakoan. Aldaketa honetarako, eremu funtzionalari eragiten dioten irizpideak berraztertuko dira horietako bakoitzerako, eta zein neurritan hausnartu diren aztertuko da.

2.1. ALDAKETARI ERAGITEN DIOTEN ETA LANTZERA KOAN AINTZAT HARTU DIREN MAILA ALTUAGOKO GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK

❖ Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak (LAG)

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearekin bat etorritz, LAGak (otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez onarturikoak) erreferentziako esparrua dira EAEn lurralde antolamendurako gainerako baliabideak zehazteko eta, ondorioz, LPpek horien zehaztapenak jaso beharko dituzte.

Dokumentu honetan bildutako zehaztapenen artean, hurrengoak azpimarra daitezke aldaketatik eratorritako proposamenekin duten lotura dela eta:

a) Zuzenean aplikatu beharreko zehaztapen lotesleak

- LPPak EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenak biltzen ditu, LAGek ezartzen duten moduan. Aldaketak ez du eraldaketarik ekartzen horri dagokionez.
- LPPak Babes Bereziko eremuak mugatzen ditu, eta (10. artikuluan) LAGen zehaztapenen arabera erabilera erregimena zehazten du. Halaber, ezarri egiten du eremu horien hartzaile diren udalerrietako hirigintza planeamenduek Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezin bezala sailkatuko dituztela horiek. Aldaketak ez du eraldaketarik ekartzen horri dagokionez.
- Garapeneko lurralde planeamenduak “Babes Berezia” izeneko kategorian sartutako espazioen erabilera erregimena aldatzeko proposamenek proposaturiko jardueren justifikazio soziala eta hautabideen azterketa erantsi beharko dituzte. LPPak, 10. artikuluan ere bai, zera dio: “...zona hauen natura ezaugarriak aldatzea ekarriko duten erabilerak debekatuko dira...”. Aldaketak ez du eraldaketarik ekartzen horri dagokionez.
- LAGek ezarri egiten dute dauden espazio babestuak Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeari buruzko 16/1994 Legearekin bat etorritz mugatu behar direla. LPPak Laguardiako Aintziren biotopo babestua jasotzen du, eta haren zehaztapenak gain hartzen ditu. Aldaketak ez du eraldaketarik ekartzen horri dagokionez.

b) Lurraldeko Plan Partzialak idazteko irizpideak eta orientabideak

LAGetan jasotako zenbait zehaztapen irizpide gisa planteatzen dira lurralde antolamenduko beste baliabide batzuk idazteko. Zehazki, Lurraldeko Plan Partzialak idazteko hurrengoak izango lirateke:

b.1) Ingurune fisikoa: baliabide naturalei dagokienez, Urbanizaezin moduan sailkatutako lurzorua antolatzeak irizpideak zehazten dira, horretarako Antolamendu Kategoriatzat batzuk proposatuz. Halaber, zera adierazten da: “... garapeneko planeamendua: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, Planeamenduko Arau Subsidiarioak, Lurraldeko Plan Partzialak, eta abar. Urbanizaezin moduan sailkatutako lurzoruarentzat LAGetan ezarritako Antolamenduko Kategorien izen eta irizpideak erabiliko dituen kalifikazioa ezarriko du...”. Azkenik, balio berezia izateagatik, berean mantentzea ahalbidetuko duen tratamendu berezia jaso behar duten lurraldeko eremuak ezartzen dira.

LPPak aintzat hartu zituen irizpide horiek, LAGetan proposaturiko antolamendu kategoriak gain hartuz eta beste osagarri batzuk erantsiz zonaren berezitasunak gorabehera. Horrela, Laguardiako Aintziren Biotopo Babestua eta LAGetan Natura Intereseko Eremuen Zerrenda Irekian erantsitako espazioak jasotzen dira Babes Bereziaren kategoriaren barruan: Kripango artadiak, Navaridaseko artadia, Dueñaseko pinudia (Labraza) eta Lasernako abariztia, guztiak balio botaniko nabarmenarekin. Aldaketak ez du eraldaketarik ekartzen horri dagokionez.

b.2.) Lurralde Ereduaren eraginei dagokionez Lurzoruari buruzko Politikan, LAGek ezarri egiten dute LPPak lurzoru beharrak zehaztuko dituela jardura ekonomikoentzako, horietarako behar den lurzoru eskaera kontuan hartuta.

LPPak gain hartzen ditu EAEko Jardura Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeak ALParen edukiak, eta, zentzu horretan, LAGen zehaztapenak biltzen ditu. Aldaketak jardura ekonomiko orokorrerako lurzoruak sortzea planteatzen du, eta, halaber, ALParen edukiak gain hartzen ditu.

❖ EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeak Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde Mediterraniarra)

Behin betiko abenduaren 28ko 455/1999 Dekretu bidez onartutako dokumentua (EHAA, 2000ko urtarilaren 26koa). Helburua ibai eta errekekin muga egiten duten hiri lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lursailak antolatzea da.

LPPak ALP horren zehaztapenak biltzen eta gain hartzen ditu (12. artikuluan). Aztertutako aldaketak ez du horri eragingo dion proposamenik egiten.

❖ EAEko Hezeguneen Lurralde Plana

Behin betiko uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bitartez onartutako dokumentua (EHAA, 2004ko azaroaren 19koa).

Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionalean, hurrengo zonak zehaztu dira:

I. taldeko hezeguneak:

- Carralogroñoko aintzira (B8A2)
- Carravalsecako aintzira (B8A3)
- Muscoko aintzira (B8A6)
- El Prao de la Paul urtegia (FA64)

II. taldeko hezeguneak:

- Navaridaseko aintzira (B8A9)

III. taldeko hezeguneak:

- Eltziegoko aintzira (B8A1)
- Cuatro Encinaseko aintzira (B8A4)
- El Aguarchal aintzira (B8A5)
- San Gregorio I aintzira (B8A7)
- San Gregorio II aintzira (B8A8).

Indarreko LPPak Babes Bereziko Eremu gisa hartzen ditu ALP honetan eta haren zehaztapenetan (9. eta 10. artikulua) jasotako hezegune guztiak. Aldaketak ez du eremu horiei eragingo dien proposamenik egiten.

❖ EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatze Arloko Lurralde Plana

2005eko urtarrilaren 10eko Agindu bidez hasierako onarpena eman zitzaion dokumentuari (EHAA, 2005eko urtarrilaren 27koa). Plan honek nekazaritzako eta basoetako erabilaren kudeaketa arautzen du, nekazaritzaren sektoreko interesak babestuz bestelako erabilera batzuen aurrean.

LPP honetan Balio Estrategiko Altuko Nekazaritza eta Abeltzaintza Eremu gisa hartutako lursailak indarreko LPPan Nekazaritza eta Abeltzaintzako kategorian eta Landazabalarenean sartuta daude. Gainera, Memoriaren 7.2 idatz zatian ALP honetako zehaztapenak erabat biltzen eta gain hartzen ditu lehen sektorearen antolamenduari dagokionez. Halaber, sektore honen gainean hainbat proposamen egiten ditu, zehaztapen horiei jarraiki. Aldaketak eraikuntza berriak lurzoru urbanizaezinean jartzea arautzeari buruzko aipamena jasotzea proposatzen du idatz zati honetan, horiek nekazaritzakoak izan orokorrean edo upeltegikoak. Proposamen hau bat dator ALParekin.

❖ EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatze Arloko Lurralde Plana

Behin betiko abenduaren 21ko 262/2004 Dekretu bidez onartutako dokumentua (EHAA, 19. zk., 2005eko urtarrilaren 28koa). Bertan, azterketa orokorra egiten da EAEko multzo osorako eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaeraren eta eskaintzaren oinarritzko kuantifikazioaren alderdi orokorren gainean. Halaber, koordinazio eta osagarritasun alderdiak aintzat hartu dira. ALP honetan bildutako irizpideen artean Arabako Errioxa eskualdeko unitate gisa agertzea da, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako.

Zentzu horretan, aztertutako aldaketak beharrezkotzat jotzen du udalerriek hiri lurzoruen edo lurzoru urbanizagarrien poltsak izatea jarduera ekonomiko orokorrerako edo berariaz upeltegientzako, eta horien neurriak ALP honetan ezarritakoarekin bat etortzea edo aurreikus daitekeen eskaria betetzea. Hori dela eta, bat dator erabat dokumentu honekin.

❖ EAEko Energia Eolikoaren Arloko Lurralde Plana

Behin betiko maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bitartez onartutako dokumentua (EHAA, 105. zk., 2002ko ekainaren 5koa). ALP honek ez du Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionalari eragingo dion kokalekurik jaso.

❖ Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra (1999-2010)

Ekainaren 18ko 250/1999 Dekretu bitartez onarturikoa. Aztertutako aldaketaren zehaztapenak ez diete plan honen ezarpenei eragiten.

❖ Arabako Errepideen Plan Integrala

Arabako Biltzar Nagusiek behin betiko onarturikoa azaroaren 23ko 30/1998 Foru Arauaren bitartez. Aztertutako aldaketaren zehaztapenak ez diete plan honen ezarpenei eragiten.

❖ EAEko Kultur Ondareari buruzko Arloko Lurralde Plana

ALP hau Aurrerapen fasean dago, eta 2001eko uztailaren 6an onarturikoa da.

Indarreko LPPak erabat hartzen ditu ALP horren edukiak, betiere, haren izapidetze unea zein goiztiarra den ahaztu gabe. Aztertutako aldaketaren zehaztapenak ez diete plan honen ezarpenei eragiten.

❖ Uholdeak Prebenitzeko EAEko Plan Integrala eta EAEko hiriguneak urpean geratzeko arriskua aztertzeko lana (2001-2005).

Agiri horietan 10, 100 eta 500 urtean behin uholdeak izateko arriskua duten zonak mugatu dira. Kasu horretan, Arabako Errioxan uholdeek eragindako zonarik ez da aipatu.

2.2. ALDAKETA LANTZERA KOAN AINTZAT HARTUTAKO INGURUMENAREN ALORREKO XEDAPENAK ETA LEGEDIA

Indarrean dagoen Biasteriko (Arabako Errioxa) LPParen idazketan kontuan izan ziren LAGen irizpide eta zehaztapenak, bere eginez arau horretako gomendioak. Ondorioz, LAGek EAEko lurralde osoari eragin ziezaioketen ingurumenaren alorreko legediarekin bat etorri idatzi zirenez, LPPa ere bat dator harekin.

Bestalde, EAEko Ingurumen Esparru Programak (IEP) 2007-2010, aldi berean Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2010 delakoaren barruan kokaturikoa, hainbat baldintza jartzen ditu iraunkortasunaren bidea egiteko. Horien artean ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan integratzea egongo litzateke, adibidez lurraldekoetan. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da indarreko LPPak kontuan hartzen dituela ingurumenaren eremuko alderdiak idazketa osoan, eta ingurune naturala berean mantentzeko tratamendua egiten du. Horretarako, natura intereseko espazio ezberdinak babesteko identifikazioa eta mugaketa egiten dira (batzuk jada katalogaturik daude eta beste batzuk LPPak berak proposatzen ditu).

Zehazki, IEParen **9. helburu estrategikoak lurraldea modu orekatuan erabiltzea** lortzearen definizioa ematen du. Horren bitartez, zera lortu nahi da: *“lurraldean eragiten duten sektoreen planeamendu bateratua eta koherentea egitea, lurraldeko artifizializazio eta zatiketa arazoak konpontzeko”*. Helburua lortzeko jasotako jarduera ildoan artean, honakoa topa daiteke: *“... planeamenduetan hurrengo irizpidea sartu behar da: dagoeneko artifizializatutako lurzoruak erabiltzeko lehentasuna eman behar zaio lurzoru urbanizaezinak berriz*

kalifikatu aurretik. Era berean, ahalegin berezia egin behar da nekazaritzako lurzoruak eta lurzoru naturalak babesteko". Zentzu horretan, aldaketa erabat egokitzen zaio helburu honi. Izan ere, jarduera zehatza ezartzearen antolamendua da egin nahi duena, horretarako lehentasuna emanaz hiri lurzoruari edo lurzoru urbanizagarriari, eta lurzoru urbanizaezina arautuz ingurumen eta paisaia irizpideekin.

2.3. EREMU FUNTZIONALEAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN ETA PROIEKTU BATZUK

Hainbat dira izapidetze fase ezberdinetan egon eta Eremu Funtzionalaren lurraldearen zati bati eragiten dioten lurralde antolamenduko dokumentuak.

❖ *Laquiardiako Aintziren Biotopo Babestua (Carralogroñoako, Carralvalsecako, Prao de la Paulgo eta Muscoko aintzirak)*

Carralogroñoako, Carralvalsecako eta Prao de la Paulo Aintziren Biotopo Babestuaren deklarazioa ekarri zuen irailaren 19ko 417/1995 Dekretua aldarazi zuen Irailaren 29ko 255/1998 Dekretuaren bitartez Biotopo Babestu deklaraturikoa. Aldaketaren arrazoia lurralde eremuan Muscoko aintzira sartzea izan zen.

Indarreko LPPak Babes Bereziko Eremu gisa sailkatzen ditu zona horiek, dekretura mugatuz eta haren zehaztapen guztiak gain hartuz (Araudiaren 9. artikulua). Zentzu horretan, LPPak ere zehaztu egiten du Babes Berezikotzat hartutako eremu batzuetan berezko kudeaketa planak edo antolamendu dokumentuak badituzte (BNAP, EKPZ), dokumentu horien edukia izango dela nagusituko dena LPP honen xedapenen gainetik (Araudiaren 10. artikulua).

Aldaketak LPPak bereziki babestutako lurzoruan upeltegiak jartzeko debekua mantentzen du, eta ohar zehatza eranstean du alde aurretik bertan existitzen ziren upeltegiei dagokienez. Horrela, ezinezkotzat jotzen da erreforma edo zabalkunde jarduerak garatzea, babes bereziko lurzoruetan kokatzen badira.

❖ *ES2110018 Kantabriako mendilerroa izeneko Garrantzi Komunitarioko Lekuen (GKL) Kudeaketa Plana*

Egun indarrean dagoen Lurraldearen Zatiko Planak Kantabriako mendilerroa Bereziki Zaindu beharreko Zonatzat jotzen du eta lurzoru mota horretan upeltegiak jartzea debekatzen du. Alderdi horrek ez du proposamena aldatu. Hori dela eta, ez dira bateraezintasunak aurreikusi Kudeaketa Planarekin, indarrean dagoen Lurraldearen Zatiko Planak xedatzen baitu agiriok xedapenen gainetik egongo direla.

❖ *Klima Aldaketari Aurre Egiteko Euskal Plana (2008-2012)*

Aipatu agiria 2007ko abenduaren 4an onartu zen eta klima aldaketari aurre egiteko 4 helburu estrategiko zehaztu eta helburuok lortzeko 120 ekintza biltzen ditu. Lurraldearen Zatiko Plana eta proposatutako aldaketa bat datoz plan horretan aurrezteari, energia eraginkortasunari eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeari buruz aipatu diren helburu estrategiko horiekin.

❖ Arriskuan dagoen fauna kudeatzeko planak

Arabako Foru Aldundiak arriskuan dauden espezieentzat onartutako Kudeaketa Planek espezie horientzako interes bereziko eremu gisa hainbat zona mugatzen dituzte eremu funtzionalaren barruan. Zona horiek guztiak indarreko LPPan jasota daude, Babes Bereziko eremuen barruan (Kantabria mendilerroko eta Ebro ibaiko Garrantzi Komunitarioko Lekuen esparruekin edo interes hidrologikoko eremu gisa barne hartutako bideekin bat datoz edo bertan daude), eta, gainera, zehaztu egiten du udal planeamenduak kategoria horrekin jaso beharko dituela horrela mugaturiko zonak etorkizunean Arriskuan Dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan sartutako espezieentzat egiten diren Kudeaketa planetan. Kudeaketa plan hauen zehaztapenak indarreko LPParen xedapenen gaineratik geratzen dira, 10. artikuluan ezarrita geratzen den moduan. Onartutako planak honakoak dira:

- **Zapardaren kudeaketa plana (*Squalius pyrenaicus*).** 2007ko apirilaren 18ko 339/07 Foru Aginduak onarturikoa (ALHAO, 58. zk., 2007ko maiatzaren 14koa).
- **Mazkar arantzadunaren kudeaketa plana (*Cobitis calderon*).** 2007ko apirilaren 18ko 340/07 Foru Aginduak onarturikoa (ALHAO, 57. zk., 2007ko maiatzaren 11koa).
- **Arabako Lurralde Historikoan dauden Ugatzen (*Gypaetus barbatus*) Kudeaketa Plana.** 2006ko maiatzaren 19ko 434/2006 Foru Agindu bidez onarturikoa (ALHAO, 63. zk., 2006ko ekainaren 7koa).
- **Arabako Lurralde Historikoan dauden Lutra lutra (Linnaeus, 1758) Igarabarren Kudeaketa Plana.** 2004ko urriaren 27ko 880/2004 Foru Agindu bidez onarturikoa (ALHAO, 136. zk., 2004ko azaroaren 24koa).
- **Arabak *Mustela lutreola* Bisoi Europarra Kudeatzeko Plana.** Hasieran apirilaren 1eko 180/2003 Foru Aginduak (ALHAO, 51. zk., 2003ko maiatzaren 5koa) onartuta eta ondoren azaroaren 7ko 322/2003 Foru Aginduak (ALHAO, 142. zk., 2003ko abenduaren 5koa).
- **Arabak Ibai Kabuxa (*Salix fluvialis*) Kudeatzeko Plana.** 2002ko ekainaren 12ko 351 Foru Aginduak onartu zuen (ALHAO, 75. zk., 2002ko uztailaren 5koa).
- **Arabak Bonelli arranoa (*Hieraetus fasciatus*) kudeatzeko plana.** Irailaren 28ko 612/2001 Foru Aginduak onarturikoa (ALHAO, 120 zk., 2001eko urriaren 22koa).
- **Arabak uhalde enara (*Riparia riparia*) kudeatzeko plana.** Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretu bidez onartua (EHAA, 37. zk., 2000ko martxoaren 27koa).

Aldaketak LPPak bereziki babestutako lurzoruan upeltegiak jartzeko debekua mantentzen du, eta ohar zehatza eransten du aldez aurretik bertan existitzen ziren upeltegiei dagokienez. Horrela, ezinezkotzat jotzen da erreforma edo zabalkunde jarduerak garatzea, babes bereziko lurzoruetan kokatzen badira.

❖ Udal planeamendua

Aldaketak upeltegiak edo mahastizaintzako eta ardogintzako industriak ezartzeko udal planeamendutan zehaztutako araudia kontuan hartu du:

- Mañuetako Arau Subsidiarioak (2004/01/10).
- Eltziegoko Arau Subsidiarioak (1992/2/24).
- Probintziako Arauak (1990/8/24) eta Bilarko hiri lurzorua mugatzeko proiektua (1998/7/8).

- Kripango hiri lurzoria mugatzeko proiektua (1997/3/26).
- Labastidako Arau Subsidiarioak (2000/2/23).
- Laguardiako Arau Subsidiarioak (2000/2/2).
- Lantziegoko Arau Subsidiarioak (1997/3/21).
- Lapuebla de Labarcako Arau Subsidiarioak (2001/4/27).
- Lezako Arau Subsidiarioak (2005/8/26).
- Probintziako Arauak (1990/8/24) eta Moreda de Álavako hiri lurzoria mugatzeko proiektua (1978/3/17).
- Navaridaseko Arau Subsidiarioak (1988/9/19).
- Oiongo Arau Subsidiarioak (1997/7/11).
- Samaniegoko Arau Subsidiarioak (1995/4/3).
- Eskuernagako Arau Subsidiarioak (1995/4/3).
- Iekorarako Probintziako Arau Subsidiarioak (1990/8/24) eta haren berrazterketa.

3. ALDAKETAK ERAGINDAKO EREMUAREN GAIKEKO INGURUMEN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

3.1. AZTERTU BEHARREKO EREMUAREN DEFINIZIOA

Azterketaren eremua 1.1. idatz zatian definitu dena da, eta bat dator Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzional osoarekin.

3.2. LURZORUAREN EGUNO BALIABIDEEN ETA ERABILEREN APROBETXAMENDUA

Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionala nortasun nabarmena duen eskualde naturala da, EAEko gainerako tokien aldean. Klimaren, orografiaren, geologiaren, litologiaren eta edafologiaren faktoreek bat egiten dute landare osagaia eta gizakiak ingurunetik ateratako aprobetxamendua baldintzatzeko, Amaierako paisaia berezia eratuz.

Funtsezko faktore gisa Toloño-Kantabriako mendilerroak eratzen duen oztopo bioklimatikoa azpimarratu behar da. Horrek eskualdea mundu mediterraniarrean sartzen du. Gainera, ez da ahaztu behar lurzoruak egokiak bihurtzen dituela landaketetarako.

Hala eta guztiz ere, eremu funtzionalaren lurraldea ez da homogenea eta bertan lau sektore bereiz daitezke. Ebrotik gertuen kokaturiko zonetatik, beroak eta lehorrak, mendilerroko zona garaienetaraino, oso hotzak eta hezeak, klima alde garrantzitsuak agertzen dira. Horiekin batera, paisaia ezberdintasun garrantzitsuak datoz, bai gizakiak esku hartutako paisaietan, bai landaredi naturalak eragin gutxien jasotako horietan.

- **Sektore erdi lehorra**.- Sektore honek Ebroren arro itxiaren hondoa adierazten du, eta esteparen ezaugarri batzuk ditu. Altitudeko muga garaiena 450 m-en inguruan kokatzen da, eta baxuena Ebro ibaiak markatzen duena da, 380 m eta 420 m artean. Prezipitazioek ez dituzte urteko 450 mm-ak gainditzen eta bero erregimena oso epela da.

Lurzoruaren erabilera nagusia mahastia landatzea da, eta, neurri txikiagoan, zerealak, olibondoak eta almendrontoak. Baso natural gutxi mantentzen dira, nahiz eta azpimarratzekoak diren Lapuebla de Labarcako ibarbasoak (El Esperal edo La Poblada eremua) eta Labastidakoak (Labastidako Gimileoko eta Saltoko bihurguneak) eta sastraken artean Lasernako abariztia eta Mantibleko tamarizak. Berezko landare eraketak espartzudiak dira. Sektoreko lore nortasuna oso sendoa da, bertan bizi diren landareen ia heren bat berezkoak baitira bertan eta ez dira gainerako sektoreetan ageri. Horiek guztiak eremu mediterraniarrekoak dira, eta askok estepako ezaugarriak dituzte.

- **Sektore bero-epela**.- Sektore honetakoa da Arabako ardo paisaia gehiena. Ekialdetik mendebaldera zabaltzen den lursail zati zabala da, kontuan hartuz goi eta behe mugak altitudetan: 450 m eta 600 m-ak hurrenez hurren. Prezipitazioei dagokienez, zona lehorra da, urtean 450 eta 600 mm arteko prezipitazioekin eta termoklima epelarekin. Hala eta guztiz ere, sektore erdi lehorra baino arinagoa da.

Gehien zabaldutako landaketa mahastia da, zereala ia desagertu egin da eta olibondo eta almendrondo hondarrak topa daitezke. Paisaia honetan oraindik topa daitezke artadi (Lezako eta Navaridaseko artadiak) eta erkamezti (Lezako erkameztia) hondar batzuk, eta sastraka hedatuenak abariztiak eta erromeradiak dira, otakekin eta larre lehorrekin txandakatuz.

Sektore honetan azpimarratzekoa da Laguardiako aintziren multzoa, orain dela gutxi Biotopo Babestu deklaraturikoa eta kubeta endorreikoen adibide bakarra.

- **Sektore azpiheze-freskoa.-** Honakoa giro mediterraniarren eta atlantikoaren arteko trantsizio sektorea da. Toloño-Kantabriako mendilerroaren mazelan zabaltzen den banda da, 600 eta 750 m artean. Prezipitazioei dagokienez, eremu azpihezea da, urtean 600 eta 900 mm artean kokatzen diren prezipitazioekin. Tenperaturak freskoak dira, aurreko bi sektoreetan baino baxuagoak, mendilerrotik gertu egoteagatik eta altitude gehiagokoa izateagatik.

Mahastiak mikroklima lehor eta eguzkitsua duten enklabeetan bakarrik agertzen dira, eta zereala da gehien zabaldutako landaketa. Erkamezti eta artadi masa txikiak mantentzen dira (Kripango artadia) eta aleppo pinuaren pinudiak (Dueñaseko pinudia Labrazan). Sastraken artean azpimarratzekoa da erromeradia txilarrarekin. Landare multzo horretan elkarrekin bizi dira espezie mediterraniarrak eta atlantikokoak, sektoreko trantsizio izaeraren froga argia.

- **Sektore heze-hotza.-** Arabako Errioxako lursail garaienak hartzen ditu, 750 m-etatik Toloño-Kantabriako mendilerroko gailurretaraino. Prezipitazioek urtean 900 mm-ak gainditzen dituzte, eta termoklima hotza da. Oso ohikoak dira lanbroak, mazela malkartsuetan gelditzen direlako. Horrek pagadiak egotea ahalbidetzen du, erkameztiekin eta artadiekin txandakatuz.

Enklabe azpimarragarri gisa, Peña del Leon – Los Husoseko pagadiak, Kripango pagadi eta erkameztiak eta Toloñoako artadiak aipa daitezke. Sastraka adierazgarriena ezepea da, kareharrizko lursail zona zabalak estaliz. Sektore honetan ia ez dago landaketarik, eta basoak txandakatu egiten dira mendiko sastraka eta larreekin. Sektore honetako landareen ia erdiak berezkoak dira tokian, eta ez dira Arabako Errioxako beste inon ageri. Mendiko eremu atlantiarrekoak eta mediterraniarrekoak dira.

Sektorizazio honen ikuspegi sinplifikatuagoak eremu funtzionalaren zatiketa agertzen du, ingurunearen bokazioan eta aprobetxamenduan oinarrituz.

Sektore heze-hotza bat etorriko litzateke bokazio naturaleko eremuekin, eta gainerako sektoreek lurraldearen ekoizpen eremuaren multzoa eratuko lukete. Bertan, interes ekologikoko enklabe txiki batzuk topa daitezke, eta bertan bokazio naturala nagusi litzateke ere.

Ekoizpen eremuaren barruan bi zona egongo lirateke; bata, zerealaren landaketei zuzendurikoa litzateke eta bat dator sektore azpiheze-freskoarekin. Bestea, eremu funtzionalean zabalea dena, mahastizaintzari zuzendurikoa da batez ere, eta bat dator sektore erdi lehorrekin eta lehor-epelarekin. Beharbada bereizketa txikia egin daiteke azken zona horretan ekialdeko herenaren eta gainerako zonaren artean. Lehenengoan

mosaiko nahasia ikus daiteke mahastiekin, lehorreko landaketekin eta sastrakekin; gainerako zonan, aldiz, nagusi dira mahastiak zenbait sastrakarekin batera.

Eremu funtzionalaren aprobetxamendua, beraz, nekazaritzan oinarritzen da, mahastiaren landaketan batez ere. Gainera, ekonomiaren oinarria eratuko luke. Abeltzaintza garrantzitsua izan bazen ere garai batean, egun artalde eta ahuntz talde txiki batzuei mugatzen zaie. Bigarren mailako jarduera litzateke batez ere, jardun zinegetikoa bezalaxe.

Basoetako aprobetxamendua oso txikia da, eta koniferoen birlandaketa hedatuenak Labastidako udalerriaren iparraldean topa daitezke, Toloño mendilerroaren mazelatan, Fraile edo Valle errearen goialdean eta Herrerako mendatean. Birpopulaketak *Pinus pinaster*, *Pinus halepensis*, *Pinus nigra* eta *Pinus sylvestris*-ekin eginikoak dira. Azpimarratzekoak dira *Pinus halepensis*-ekin egindako birpopulaketak; xedea eremu funtzionalean orain dela gutxi egiten hasi den babesa da funtsean. Azkenik, Ebro ibaiaren erribera batzuetan makaldiak agertzen dira nolabaiteko garrantzia duen baso aprobetxamendu gisa.

Neurri bateko garrantziarekin eta aukera ugari baditu ere, bigarren maila batean turismoarekin, kulturarekin eta aisialdiarekin zerikusia duten erabilerak topa daitezke ere. Tokiko parke ezberdinak daude, eta alde natural erakargarriak beste erakargarritasun batzuekin batzen dituzten ibilbide ezberdinak posible dira (historiko artistikoa, arkeologikoa, etnografikoa, gastronomikoa, eta abar). Toloño-Kantabriako mendilerroa, gainera, txangozaleek eta mendizaleek gehien bisitaturiko mendiguneetako bat da.

Azkenik, inguruneko aprobetxamenduei dagokienez, azpimarratzekoa da harrobi eta legardi batzuk topa daitezkeela. Gehienak bertan behera utzita daude jada.

3.3. ERAGINAK JASO DITZAKETEN INGURUMEN ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA ETA EZAUGARRI AZALPENA

Idatz zati honetan lurraldearen deskribapen orokorra egiten da, ingurunearen alderdi ezberdinak aztertuz aldaketan egindako proposamenen eraginak jaso baditzakete.

Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionala bat dator eremuan izen bereko eskualde naturalarekin. Toloño-Kantabriako mendilerroaren eta Ebro ibaiaren artean kokatzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hegoaldeen kokatzen den tokia da. 15 udalerri sartzen ditu 31.600 ha-ko azaleran.

■ Klima

Klima mediterraniartzat jo daiteke funtsean, uda lehor oso nabarmenarekin eta 600 mm azpitik kokatzen diren urteko prezipitazioekin. Toloño-Kantabriako mendilerroak eraturako mendi langa litzateke Kantauri itsasotik datozen odei fronteak geldiarazten dituen, eskualdea eremu mediterraniarrean sartuz. Aitzitik, eskualde osoan ez dago klima mota bakarra, altituden alde garrantzitsuak daudelako Ebro ibaitik hasi eta mendilerroko tontorretaraino iritsi arte. Horrek gradiente plubiometrikoko eta termikoak ekartzen ditu iparretik hegorako norabidean, 3.2. idatz zatian adierazi den bezala.

■ Geomorfologia eta geologia

Bi unitate morfologiko handi bereizten dira: Toloño-Kantabriako mendilerroa eta Ebroren sakonunearen ipar-mendebaldea.

- Toloño-Kantabriako mendilerroa kareharritzko mendigune estua da, ekialdetik mendebalderako norabidean lerrokaturiko tontor zorrotzak ditu eta horien garaiera 750 m eta 1458 m artean kokatzen da. Sorkuntza nagusiak Goi Kretazeokoak dira, eta material nagusiak kareharria, dolomia eta kalkarenita dira, zenbait tokitan Miozenoko konglomeratuak aurkituz.
- Ebroren sakonunekoa da mendilerroaren ertzaren eta Ebro ibaiaren ezker aldearen artean kokatzen den zona, eta eskualdearen azaleraren zati handiena hartzen du. Erliebea leuna da, baina oso irregularra eta uhindua. Kalkarenitak eta Miozenoko buztinak topa daitezke, “mahaien” egitura tipikoa eratuz. Sakan eta lubaki ugari daude, material bigunenei gogorrenen aldean eragindako higadura dela eta. Altitudeko desnibelak 380 eta 700 m artean kokatzen dira.

■ Hidrologia eta hidrogeologia

Arabako Errioxa eskualdea isurialde mediterraniarrekoa da, Ebro ibai nagusitzat izanez. Ibai horrek Logroño-ko Errioxaren lurraldearekin muga egiten du hegoaldean, Conchas de Harotik mendebaldetik, eta Logroñotik gertu geratu arte ekialdetik. Ibilbidean zehar erreka txikien urak jasotzen ditu. Horiek Kantabriako mendilerrotik etorritakoak dira, eta bat egiten dute Ebro ibaiarekin iparretik hegorako norabidean.

Kantabriako mendilerroa interes handiko unitate hidrogeologikoa da.

■ Landaredia

Egun eremuan topa daitekeen landaredia oso ezberdina da gizakiak esku hartu aurretik eta baldintza naturaletan bertan existitzen zenarekiko. Lurraldearen zati handi batean baso itxiak topa daitezke. Zati garaienean garaierako klima heze eta freskoari egokituriko pagadiak topa zitezkeen; egutera harritsuenak nahiz Ebroren sakonune osoa artadi itxiz estalita egon zitezkeen, erkameztiekin txandakatuz haranen hondoetan eta mazela itzaltsu eta freskoetan. Beste baso mota bat ere agertuko litzateke, nahiz eta neurri txikiagoan: horrela, ur ibilguen ondoan erriberako basoak garatuko ziren, tamarizti masa txikiak eta interes handiko beste komunitate halofilo espezializatu batzuk agertuz kubeta gazikaretan eta, ziurrenik, aleppo pinuen unadek mazela ezegonkorak eta etengabeko higadura jasaten zutenak beteko zituzten, hegoaldeen kokatzen zen eta lehorren zen sektorean.

Egun nagusi dira mahasti landaketak, paisaiako elementu nagusi izanez. Honen eragina lurraldeko gainerako ezaugarrietan funtsezkoa da. Halaber, zereal landaketak ere ikus daitezke, olibondo lurzati txikiekin batera. Nekazaritzan bizitako eraldaketa horrek, mahastizaintzan batez ere, sakonki eta oso modu berezian aldatu du zonako izaera, eta eragin garrantzitsuak ekarri dizkio ingurune fisikoari. Izan ere, jarduera bizia jasaten du, ezaugarri geografikoak nahiz sozial eta ekonomikoak homogeen bihurtzen lagunduz (aniztasun eskasa). Mahastiaren landaketa areagotzeak presio gehiago ekarri dio ingurune naturalari, erliebea eta guzti eraldatuz eta paisaia asko sinplifikatuz, bai paisaia

naturala, baso eta sastrakak suntsitzeagatik, bai nekazaritzakoa, zerealarekin eta mahastiekin agertzen ziren olibondoak eta fruta arbolak kentzeagatik.

Eremu funtzionala osotasunean hartuz gero, ikus dezakegu nekazaritzarako erabilgarria den lurzoru azalera 22.300 ha-koa dela (% 70a). Horietatik % 50a mahasti landaketetarako erabiltzen da, eta gainerakoa ziklo luzeko zerealetarako (% 38), olibondoetarako (% 0,5) eta lugorrietarako (hondatutako sastrakadiak eta belarrak), ekiloreetarako, almendrontoetarako, eta abar. Baso motako landaredi naturala, askotan hondatuta edo fase gaztean, Toloño-Kantabriako mendilerroan eta landaketen arteko zuhaitzi eskas eta isolatuetan bakarrik topatu ohi da.

Jarraian datorren taulan landare unitate bakoitzaren irudikapena jaso da, eremu funtzional osoan. Horretarako, landare unitateak multzokatu egin dira aprobetxamenduaren arabera, eta hurrengo erabilerak aintzat hartu:

- **Sastraka:** zuhaixka espezieekin sortutako eraketak dira nagusiki.
- **Belar landaredia:** abeltzaintzaren bitartez aprobetxa daitezkeen lursailak dira, eta bertan modu naturalean hazten diren espezieak topa daitezke.
- **Baso landaketak:** funtsean pinu birpopulaketak dira, nahiz eta azalera zati txikia hartzen duten.
- **Zelaiak eta landaketak:** aprobetxa daitezkeen zelaiak eta mota guztietako landaketak biltzen ditu.
- **Ekoizpenik ez duten lurzoruak:** landaredirik gabeko zonak dira, adibidez harritzak, harrobiak, higatutako zonak, hiriguneak, eta abar.
- **Interes ekologikoa:** tokiko landaredi unitate guztiak biltzen ditu, haien kontserbazioaren egoera edozein izanda ere. Halaber, bitxia edo bakarra izateagatik berezitat jotako ekosistemak eranstu ditu (uretako landaredia, kareharritzko haitzarteetan sortzen diren landareak, ihitokiak eta zingirak edo uholdeak jasan ditzaketen sakonuneak eta abar).

UNITATEA	%
Sastraka	10,45
Belar landaredia	16,87
Baso landaketak	1,55
Zelaiak eta landaketak	61,73
Ekoizpenik ez duten lurzoruak	2,42
Interes ekologikoa	6,99

Aspalditik bertan egiten diren nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak basoak toki marjinaletara mugatzea ekarri dute, lantzeko zailak dira edo iristea neketsua. Ondorioz, egun oso eskasak dira eta erabat desagertzeko zorian daude.

Toloño-Kantabriako mendilerroan zuhaitz masa zabalak daude, nahiz eta horien egoera orokorrean ez den oso ona. Ohikoak dira baso gazteak eta zuhaixka mailak.

Eskualdearen behealdean egoera larriagoa da, baso txiki batzuk besterik ez direlako existitzen (artadiak, erkameztiak, aleppo pinudiren bat eta erriberako basoren bat) eta basoak modu naturalean ordezkatzeko dituzten sastrakek, ongi isolaturik edo finken arteko

ezponda edo mugaren eratzaile, sistematikoki suntsitzen direlako aspalditik. Espazio natural txiki horiek axolagabekeria eta utzikeria ahaztuta daudela ikusi da.

■ Lurzorua

Lurzoruaren landare babesgabetasunak eta berezko ezaugarri litologikoek higadura fenomenoak erraztu dituzte, batez ere malda gehieneko zonetan. Ondorioz, mazelek eta muinoek muturreko hondaketa egoera agertzen dute, ia lurzorurik gabe.

■ Paisaia

Eskualdeko paisaia, eraldatutakoa eta behar baino monotonoagoa izanda ere, berezia eta erakargarria da. Erakargarritasun hori mahastiez estalitako lursail baxuek ematen diote, Toloño-Kantabriako mendilerroaren mazela eta tontorrekin kontrastea eginez. Izan ere, azken horietan nagusi da landaredi naturala.

Eskualde honetako egungo paisaia gizakiak denboran zehar izandako jardun etengabearen emaitza da. Etengabeko esku hartze horrek paisaia gizakioa bihurtu du hasierako paisaia naturala.

“EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektuak”, Eusko Jaurlaritzak landutakoa, ikusmenaren arabera arro ezberdinetan banatu du lurraldea. Horietatik batzuk katalogaturik daude. Arabako Errioxan lau daude katalogaturik: Kantabriako mendilerroa (152), Humilladeroko ermita (196), Gatzaga Buradon (499) eta Toloñoko haitza (538).

■ Ingurune sozioekonomikoa

Eustaten 2006ko datuen arabera, eremu funtzionaleko biztanleria 11.251 pertsonakoa zen, EAEko biztanleria osoaren % 0,52a eta Arabako biztanleria osoaren % 3,67a. Populazio eskaseko eskualdetzat har daiteke, dentsitatea 29,2 bizt./km²-ko delako Araba osoaren 103,2en edo EAEko 300,4en aldean. Eremu Funtzionaleko biztanleriaren banaketa udalerri jarraian datorren taulan islatzen da.

Eremu Funtzionaleko biztanleria udalerri

Udalerria	Biztanleak	%	Udalerria	Biztanleak	%
Mañueta	359	3,2	Leza	230	2,04
Eltziego	1.022	9,08	Moreda de Álava	303	2,7
Bilar	354	3,14	Navaridas	222	1,97
Kripan	184	1,63	Oyón-Oion	3.052	27,12
Labastida	1.484	13,2	Samaniego	319	2,83
Laguardia	1.529	13,6	Eskuernaga	319	2,83
Lantziego	696	6,2	Iekora	298	2,65
Lapuebla de Labarca	880	7,82	Guztira Eremu Funtzionalean	11.251	

Iturria: EUSTAT

Biztanleria Labastidako, Laguardiako eta Oiongo guneeetan pilatzen da batez ere, biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago hartuz (% 53,92). Eltziego, Lantziego eta Lapuebla de Labarca erdi bidean dauden udalerriak izango lirateke, biztanleriaren % 23,1arekin. Gainerakoak udalerri txikiak dira. Gune garrantzitsuena Oion da.

1996ra arte joera biztanleak galtzea bazen, azken hamarkadan pixkanakako hazkundera izan da eta horrek % 16,5eko areagotzea ekarri du urte hartako biztanleriarekin alderatuz gero. Orokorrean, 1996-2006 aldian udalerri guztiek biztanleria areagotu zuten, hurrengoek izan ezik: Kripan, Navaridas eta Eskuernaga. Hazkunde handiena erakutsi dutenak Eltziego, Labastida, Leza, Oion eta lekora izan dira, % 10aren gainetik.

Azpimarratzekoa da eremuko udalerri gehienetan nekazaritzaren alorreko lanpostuak direla nagusi, % 50a baino gehiago hartuz horietako batzuetan, adibidez hurrengoetan: Mañueta, Kripan, Bilar, Lantziego, Navaridas, Samaniego, Moreda de Alava eta lekora. Bestalde, Laguardiak, Labastidak eta Lezak lan gehiago agertzen dute zerbitzuen sektorean. Lehenengo bi kasuetan gune turistiko gisa duten protagonismoa izango litzateke arrazoiak, eta Lezaren kasuan, aldiz, establezimendu soziosanitario garrantzitsuak egotea. Industriaren sektorea nagusi da Oionen, Lapuebla de Labarcan eta Eltziegon.

Ekipamenduei dagokienez, azpimarratzekoa da osasun arreta betetzat jotzen dela eremu funtzionalean, eta haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeak dituela. Horiek beharrak estaltzen dituzte, zenbait kasutan eremutik kanpokoak eta guzti. Bestalde, hotelen pareko turismo establezimendu kopuru handia dago, lurraldean zehar barreiatuta. Sektore honek eboluzio handia ezagutu du LPPa onartu zenetik, eta batez ere upeltegiei uztartutako jatetxe establezimendu ugari sortu dira.

■ **Kultura intereseko elementuak**

Arabako Errioxa elementu interesgarri batzuetako lurraldea da, eta horiek nortasunaren adierazle nagusia dira, baliabide turistiko garrantzitsua izatearekin batera. Orokorrean, kontserbazio egoera egokian daude. Elementu horien artean hurrengoak egongo lirateke:

- Arkeologia ondarea: hondakin arkeologikoak dauden edo egon daitezkeen 200 puntu baino gehiago dokumentatu da (kobazuloak edo arroka multzoak, aire zabalean kokaturiko asentamenduak, monumentu megalitikoak, harresiz inguratutako biztanle multzoak, aztarnategi erromatarak, erdi aroko herri hustuak eta nekropoliak, herri lanak eta beste elementu batzuk).
- Hirigintza ondarea: azpimarratzekoak dira hiri multzoak eta haien babeserako elementuak adibidez Gatzaga Buradonen, Laguardian eta Labrazan. Halaber, azpimarratzekoak dira Labastidako, Bilarko eta Eltziegoko monumentu multzoak.
- Ondare arkitektoniko erlijiosoak: garai eta tipologia ezberdinetako tenpluak ikus daitezke (ermitak, gotorleku elizak eta parrokiak).
- Ondare arkitektoniko zibila: zonan Berpizkundeko, Barrokoko eta erdi aroko arkitektura ez erlijiosoaren adibide paregabeak daude. Etxe eta jauregiez gain, azpimarratzekoak dira udaletxeak, arkuak, iturriak, pikotak eta gurutzadurak bezalako beste elementu batzuk.
- Ondare etnografikoa: azpimarratzekoak dira mahastizaintzaren eta ardogintzaren ekoizpenarekin zerikusia duten ondasunak (upeltegiak, adibidez), etxebizitzaren azpialdean koka daitezkeenean (Labraza eta Laguardia) edo biztanle guneeetatik aparte

dauden auzoetan kokaturiko instalazio osagarrietan kokatzean (Samaniego, Leza, Moreda de Álava edo Labastida). Horiei tamaina handiagoko esparru modernoagoak erantsi beharko litzaizkieke. Mahastiekin zerikusia izateagatik ere azpimarratzekoak dira intereseko txabolak edo mahastizaintzako etxolak. Gainera, Moreda de Álan eta Lantziegon olibak prentsatzeko errota batzuk mantentzen dira. Halaber, zerealak irin bihurtzeko errota hidrauliko batzuk ere mantentzen dira.

3.4. INGURUMEN BALIABIDE BALIOTSUEN IDENTIFIKAZIOA

Jarraian, labur deskribatzen dira eremu funtzionaleko natura intereseko zona nagusiak.

- **Toloño-Kantabriako mendilerroa (EBIL Kantabriako mendilerroa – ES2110018)**

Geologiaren, botanikaren, faunaren eta paisaiaren aldetik interes handiko mendigunea da, eta oztopo bioklimatiko garrantzitsua eratzen du. Horrez gain, eremuko iparraldeko muga da Bernedoko mendatetik Conchas de Haroko zintzurrera bitarte.

Espazio natural zabal honek jatorriko baso multzo nabarmenak (pagadiak, erkameztiak eta artadiak, oihanpean ezpelak izaki nagusi) eta paisaia balio oso garrantzitsuak ditu (landaredi anitza, malkar arroksuak, toki oso ederrak, Arabako Mendiaren eta Errioxaren panoramika zabalak eskaintzen dituzten gailur adierazgarriak eta begiratoki naturalak, eta abar).

Arabako Errioxako mazeletan, ordea, hondamenaren ezaugarriak ikus daitezke, sastraka eta baso gazte ugariarekin. Arrazoia, neurri handi batean, jasandako sute ugariak dira.

Mendilerroan hurrengoak azpimarra daitezke interes bereziko enklabe bezala:

- Conchas de Haro. Oso ederra den eta interes geologiko handia duen tokia da Labastidako udalerrian; bertan, haitzarte, abarizti eta erromeradi mosaikoa topa daiteke eta balio biologiko handikoa da.
- Toloño-Kantabriako mendilerroko haitzarteak: Toloñotik Peña Altaraino hedatzen den lursail zati estu honek balio oso altua du floraren, faunaren eta paisaiaren aldetik.
- Toloñoko mazeletako artadiak. Labastidako mugartekoak dira, eta nabarmentzekoak dira hedaduragatik eta anitzak izateagatik. Nagusi dira artadiak ezpelarekin tarte harritsuenetan eta gurbitz ugariarekin eta hosto iraunkorreko gogortxuekin.
- Peña del Leon – Los Husoseko pagadiak. Laguardiako mugartean kokatzen da, mendilerroko hormatzar harritsuen oinean. Ezaugarri nagusia haginak, lizarrak eta oso oihanpe aberatsa izatea da (urritzondoekin, andere mahatsekin eta otsapagoekin).
- Kripango pagadiak. San Tirsoren oinean kokatuta zabaldu egiten dira mendiaren oineko erkameztiarekin nahastu arte. Bereizitasuna da Euskal Autonomia Erkidegoaren hegoaldean kokaturiko pagadiak direla.
- Kripango erkameztiak. Zuhaitz masa zabala eratzen dute Kantabriako mendilerroko hegoaldeko oinean, eta Meanokoekin jarraitzen du lurralde nafarraren barruan. Oin garrantzitsuko erkamezak eta ezpel ugari, pagadiekin batera, elementu azpimarragarrienak izango lirateke.

- **Kripango, Lezako eta Navaridaseko artadiak**

Artadi hauek Arabako Errioxako lurralde gehieneko landaredi helduaren azken hondar sakabanatuak izango lirateke (artadi mediterraniar lehorra). Hori da lekuko izatearen aldetik eta ekologiarenaren aldetik ezohiko balioa izatearen arrazoia. Mahasti eta zereal landaketez eta oso hondaturiko landaredia duen alfer lurreko muinoez inguraturik agertzen dira. Horrek garrantzi handia ematen die paisaiaren aldetik, zuhaitzen landaredi naturalik ez duten lursailei kalitatea ematen dietelako eta, neurri batean, zonako paisaia monotonoa anizten dutelako.

Navaridaseko artadia “El Monte” izeneko parajeen kokatzen da, udalerriaren mendebaldean. Lurzati ezberdinetako bideek zatitu egiten dute, eta barruan egun utzita dagoen futbol zelaia du. Heldutasun gutxiko egoeran egon arren eta hainbat eraldaketa jasan arren, artadiaren adibide onena da Arabako Errioxan. Soilgune eta ertzetan artadiaren serie dinamikoaren aldi guztiak ikus daitezke (ordezko sastrakak).

Lezako artadia Lezako osasun etxera daraman errepidearen ondoan kokatzen da, herrigunearen iparraldean. Tamaina txikikoa da. Navaridaseko oinaldeko artadien mendilerroko mazeletako artadi basatien arteko igarobidea eratzen du.

Kripanen baso enklabeak daude herriaren mendebaldera eta hego-mendebaldera. Orokorrean eraldaketa ugari jasotakoak dira. Bertan, ordezko sastraka ezberdinak eta zuhaitz gazteak topa daitezke, lurzatieta iristeko bideekin, mota ezberdinetako hondakindegia eta isurketekin eta futbol zelai batekin batera. Aitzitik, aulagila sastrakak eta Euskal Autonomia Erkidegoarentzat oso nabarmenak diren espezieak garatzen dira.

- **Lezako erkameztia**

Baso txiki hau “Los Cantos” izeneko muinoan kokatzen da, herriaren ekialdera, eta eskualde errioxarreko azken erkamezti enklabea da, bai behinik behin baso itxura duen erkameztiari dagokionez. Erkamezta nagusi da zuhaitzen estratuan batez ere, eta tamaina ertain eta gazteko zuhaitzak ugariak diren baso masa eratzen dute.

Hegoaldean kokatzen den basoko tokian zuloa dago lursailetan; horrek argi uzten du bertatik agerakinak atera izan direla.

- **Dueñaseko pinudia**

Egun EAEn aleppo pinuaren masa autoktono bakarra da, espezie honentzako penintsulako ipar-mendebaldean dagoen tokian kokaturikoa izateaz gain. Labrazatik gertu kokatzen den muino txiki baten hegoaldeko eta mendebaldeko mazeletan kokatzen da, Dueñaseko erreka Valdevaronenetik bereiziz. Azken horrek balio ekologiko altua du. Fokalizazio efektua du, atzealde gris erregularren gainean kokaturiko berdeak eraginda.

Muinoaren mazeletan garai batean zegoen basotik pinu masa ezberdinak geratzen dira han-hemenka, eta erromeradiak, larreek eta landaketa mediterraniar batzuk zeharkatzen dituzte.

Basoa tamaina ertain eta helduko zuhaitzek osatzen dute, oihanpe ireki eta argitsuarekin. Bertan, ondoko erromeradietakoak berezkoak diren landare batzuk bizi dira ere. Birsortze

natural ona du, eta argi ikusi ahal izan da pinua berreskuratzeagatik erretako enklaberen batean eta oihanpeak agertzen dituen adin anitzengatik.

- **Labastidako oihanpeak**

Labastidako Gimileoren eta Saltoren bihurgunean egoera onean mantentzen dira Ebroko erriberako basoak, makal beltz eta zuriarekin, haltzekin, lizar eta intsusarekin. Horiek ibaiaren ertzetan nahiz bertan topa daitezkeen irlatxo anitzetan garatu dira. Irla multzoa da, eta horietatik zehar Ebro ibaia adarkaturik abiatzen da, erriberako landaredia mantenduz.

- **Esperaleko eremua (La Pobeda), Lapuebla de Labarcan**

Enklabe hau Ebro ibaiaren meandro batean kokatzen da; horrek Euskal Autonomia Erkidegoan hegoaldeen kokatzen den puntua ezartzen du Lapuebla de Labarca ondoan. Ebro ibaia hartzen du, erriberako guneekin (zumardi eta haltzadi mediterraniarrekin eta ibaiko uharritzak), eta berak geografia arabarraren zona lehorrenetako batean hondeatutako ezpona malkartsu eta eguzkitsua du. Halaber, ibaiak tarte honetan egindako meandroak azpimarragarriak dira, ibilguan agertzen diren irla batzuekin batera. Ibilguari paraleloan doakio 3 km-ko luzeran.

Aisialdirako asko erabiltzen den zona da (arrantzarako eta pasealeku gisa); hegoaldeen kokatzen den tokian egoteko zona dago, erriberako landare multzo trinkoaren itzalean. Agregakinen aprobeitxamendu txikiak egin dira ibaitik gertu dauden lurzatietan.

- **Lasernako abariztia**

Ebroren terraza zahar batekin bat datorren muinoaren mazeletan kokatzen den enklabe txikia da. Bertan, erromeradia, abariztia eta arte aleren bat topa daiteke. Interesgarria da azalera zabala izateagatik, izan ere, ez da oso ohikoa Arabako Errioxako gainerako abaritzetan. Araban daudenetatik hobekien antolatu eta kontserbaturiko enklabea da. Nahiko hondaturik dagoela dirudi eta inguruan dituen mahastiek aurrera egin ahala mehatxaturik dago.

- **Mantibleko tamarizak**

Laguardiako udal mugartean kokatzen da, ibaiaren ertzean dagoen zubi erromatarren ondoan. Dauden tamariz sastraka eskasen aleetako batzuk dira; garai batean, aintzirak eta ibaien ibilguak inguratzen zituzten. Ebroren ezkerraldea babesten dute ibaien hazkundearen aurrean.

- **Laguardiako aintzirak (Carrallogroño, Carravalseca, Musko eta Prao de la Paulgo urtegia) (EBIL Laguardiako aintzirak – ES2110021)**

Arabako Errioxako morfologiaren berezitasunetako bat sakonune eta kubeta endorreikoak dira. Bertan hareharri barrak agertzeak galarazi egiten du urak drainatzea, udan lurrinketaren ondorioz ura galtzen duten aintzirak sortuz. Eremua gazitu egiten da ondorioz. Hezegune tipologia oso berezia eratzen dute, interes ekologiko eta naturalistiko altuarekin. Kubeta horien adibideak Arabako Errioxan ikus daitezke egoera hobean edo okerragoan. Horixe izango litzateke Carrallogroñoko, Carravalsecako eta Muskoko aintziren kasua Laguardian.

Aintzira endorreikoen gune garrantzitsuena eratzen dute EAE osoan, Europako iparraldean kokatzen diren aintzira hipergazituena dira. Uretako hegazti faunarentzat babestoki nabarmena eskaini eta anfibioak ugaltzeko habitat kritikoa eratzeaz gain, gatz toki berezia izateak oso flora eta fauna berezia garatzeko aukera ematen du. Aintzira endorreikoak seriooki mehatxaturik egon dira nekazaritzako intentsifikazio prozesu aktiboaren ondorioz. Aintzira hauetan horrelako jarduerak arautzea irailaren 19ko 417/1995 Dekretuaren bitartez egin zen, biotopo babestu deklaratu zuenaren bitartez hain zuzen. Halaber, haren ondorengo aldaketak ere arautuko zuen (255/1998 Dekretua, irailaren 29koa). Gainera, Ramsarren sartuta daude.

Beste aintzira endorreiko batzuk Eltziegokoa, Cuatro Encinas, Aguarchal eta San Gregoriokoa dira, baina ia ez da horien ezer geratzen drainatzearen bitartez hondatu eta landaketetarako jarri direlako.

- **Ebro ibaia EBIL (ES2110008)**

Ebro ibaia, eremutik igarotzen den zatian, Natura 2000 Sarean sartuta dago. Zona honi dagokionez, Araban kokatzen diren ibilguak eta erriberek 543 ha-ko azalera hartzen dute. Funtsezko zintzurra da lotura biologikorako, eta oso garrantzitsua da bisoi europarraren barreiapenerako. Bertan agertzen den ilarako basoa aldatu egiten da tarte gorabehera, eta egoera onean dago Labastidan eta Lapueblan. Gainera, hegazti askorentzat habia jartzeko zona da, eta flora eta fauna aniztasun handiko enklabeak dira.

- **Navaridaseko aintzira**

Navaridas eta Leza udalerriak uztartzen dituen errepidearen mendebaldera kokatzen den aintzira endorreikoa da ere.

Egun bizitza basatia bertan garatzeko dauden aukerak gutxitu egin dira jasandako presioaren ondorioz (behin eta berriro erretzea, urak drainatzea, eta abar). Aitzitik, benetako aukerak ugariak dira, landaredi naturala eta ingurukoa garrantzitsua delako, nekazaritzak hari presio gutxi eragiten diolako eta zona lasaia eta apartatua delako. Horrek posible egingo luke bertan flora eta fauna komunitate interesgarriak berriro kokatzea eta jartzea.

- **Ebroren Terraza Sistema eta ibaiadar nagusiak**

Ebro ibaiaren egungo uholde lautadaren gainean, maila ezberdinetan, kokatzen diren terraza garaien multzoa da. Interes geologiko altuko eta balio zientifiko eta didaktikoko toki gisa katalogaturiko enklabeak dira, nahiz eta horrek ez duen galarazten aprobetxamendu normala egitea.

- **Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonak**

Zerrendatu diren zonez gain, ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonak eremuan ibai ibilgu guztien jabari publiko hidraulikoa eta Kantabriako mendilerroko akuiferoa dira.

- **Korridore Ekologikoen Sarea**

EAEn lotura intereseko paisaia elementuak identifikatzen dituen Natura 2000 Sarearen zati izateko proposatutako espazioen arteko loturen Korridore Ekologikoen Sarea definitu da. Sare horri lurzorua erabileren eta zona horien leheneratze ekologikorako eta eraginak prebenitzeko neurrien arauketa erantsi zaio. Aldaketa aplikatu den eremuan honako hauek antzeman dira:

- Gune-espazioak: Kantabriako mendilerroko Garrantzi Komunitarioko Lekuak (ES2110018), Pilar de Dueñasko pinudia, Kripango artadiak, Navaridasko artadiak, Lezako erkameztia eta Lezako artadiak.
- Lotura korridoreak: eremu-espazioen arteko zabalera aldakorra duten zerrendak dira. Esparruan honako hauek jotzen dira gune-espaziotzat: zonalde mendebaldekoenean, Kantabriako mendilerroa eta Ebro ibaiaren arteko lotura tarteak Valahonda, Meson eta Herrera ibaien bitartez; erdialdean, Kantabriako mendilerroaren, Lezako erkameztien, Navaridasko artadien eta Ebro ibaiaren arteko lotura Riomayor ibaiaren bitartez; ekialdeko zonaldean, Kantabriako mendilerroaren, Lasernako abariztien eta Dueñasko pinudiaren arteko lotura mendilerrotik jaisten diren erreken eta zonan dagoen landaredia txikiaren bitartez.
- Indargetze eremuak: buxadura eremuak dira, gune-eremuen, korridoreen eta lotura eremuen inguruan sor daitezkeen eragin negatiboen aurrean. Zonan, Kantabriako mendilerroko hegale baxuenak, ekialdeko erdiko ibaiarte gehienak eta Ebro, Riomayor eta Herrera ibaietatik gertu dauden zerrendak jotzen dira indargetze eremutzat.
- Eskualdeko lotura interes berezia duten ibai zatiak: Sarearen koherentzia ahalbidetzen duten elementu linealak dira. Bertan, honako ibai hauek aipatzen dira: Ebro, Valahonda, Herrera, Riomayor, San Ginés, El Soto, Galijo, Lavar, Vinaspre, Barriobusto eta Valdevaron; eta ibaiadarrak mendilerroa eta hegoaldeko enklabeak lotzeko tarte gisa.

- **Arriskuan dauden espezieak**

Arriskuan dauden espezieen Kudeaketa Planetan adierazten den moduan –planok onartuta daude eta 2.3. atalean bildu dira-, aldaketa aplikatu den eremuan aipatu espezieentzako interes bereziko eremuak diren zenbait zona daude:

- Ebro ibaia (ES2110008 GKL) eta horren ibaiertzak Zaparda arrainarentzat, mazkar arantzadun arrainarentzat, igarabarentzat, bisoi europarrarentzat, ibai kabuxarentzat eta uhalde enararentzat.
- Gatzaga Buradongo Buradon zona Bonelli arranoarentzat (*Hieraaetus fasciatus*).
- ES2110018 GKL-Kantabriako mendilerroa ugatzarentzat.

Zona horietako gehienak indarrean dagoen Lurraldearen Zatiko Planean interes bereziko eremutzat jotzen dira.

Arriskuan dagoen flora banatzeko eremuei dagokienez, azterlan honi erantsitako planoak floraren kokapena jaso du, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Biodibertsitatetarako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzan eskuragarri dagoen informazioari jarraiki.

- **Balio agrologiko handiko lurzoruak**

Hasiera batean onartutako Nekazaritzaren eta Basogintzaren eta Ingurumen Naturalaren Lurraldearen Arlo Planean jasotako balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako eremutzat jotako lurrak Arabako Errioxako esparruaren azalera oso-osorik hartu dute eta Lurraldearen Zatiko Planean daude jasota, nekazaritzako eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremuen kategoriarekin.

3.5. LURRALDEAREN ETA BERE BALIABIDEEN INGURUMEN BALORAZIOA. INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK

Egun inguruneak Arabako Errioxan dituen ezaugarriak aztertu ondoren, antzeko lau ingurumen eremu defini daitezke. Horietarako egungo egoeraren balorazioa egin da ingurumenaren ikuspegitik begiratuta. Hauek dira:

- **Ebro ibaiaren kubetatik gertuko zona (garaierako 420 m-etaraino).-** Ingurumenaren aldetik balio handiko zona da, Ebro ibaia bertan egoteagatik eta haren terraza sistema eta alubioi lautadagatik. Berezko habitat eskusibo ugari agertzen ditu, eta kasu askotan oso hondaturik daude. Erriberako landaredia ordezkatu egin da kasu askotan makalekin. Aitzitik, ongi kontserbatzen diren hondakinak badaude oraindik. Lehengoratzeko aukera ugari dituen zona da, baldin eta horretarako neurri egokiak hartzen badira. Eremu funtzionalerako oso garrantzitsua da zona honen erakargarritasun naturala.
- **Nekazaritzako aprobetxamendu altuko zona (420 m-tik 600 m-raino garaieran).-** Bat dator nekazaritzako aprobetxamendu gorenaren eremuarekin, eta, zehazki, mahastienarekin. Eremu honen ezaugarria paisaia homogenea izatea da, eta bertan naturaren aldetik balio altuko enklabe batzuk mantentzen dira oraindik (artadiak, erkameztiak, eta abar). Lurzoruaren erabilerari dagokionez homogeneotasun hori agertu arren, erliebea nahiko irregularra da, zenbaitetan erreken inguruan sakonak diren sakanekin eta mendilerrotik behera doazen uharrekin. Nekazaritzarentzat oso interesgarria denez, gizakiak esku hartze handia izandako zona da. Bertan, landaredi naturalak landaketetarako lursailei eta alfer lurrei tokia utzi die habitat aniztasun eskasa ordeztu. Izan ere, basoak, sastrakak eta muinoak desagertu egin dira. Horrek, gainera, higadura prozesuak areagotzea ekarri du muino eta mazedetan.
- **Mendirainoko trantsizio zona (600 m-tik 750 m-ra garaieran).-** Trantsizio zona eratzen du nekazaritzakoak soilik diren lursailen eta Kantabriako mendilerrokoak diren zonen artean. Nekazaritzarako aukerak klimaren ezaugarriek mugatzen dituzte, landaketa zehatz batzuk bakarrik ahalbidetuz (zerealak batez ere). Zona honetako landaredi naturala nahiko hondaturik dago orokorrean, eta presio sendoen pean. Enklabe interesgarri batzuk mantentzen ditu, eta egoera lehengoratzeko aukerak altuak dira.
- **Mendiko zona (garaierako 750 m-etatik aurrera).-** Ingurumen balio altua agertzen du, paisaia aberatsarekin batera, eta eremu funtzionaleko ingurumen ikuspegitik interes handieneko zona eratzen du.

Eremuak, beraz, ingurumen eta paisaia balio baliotsuak ditu bere horretan; halaber, aprobetxamenduak garatzeko aukera asko ditu kulturaren eta aisialdiaren eremuan. Gainera, azpimarratzekoa da dagoen natura aniztasuna eta EAEko gainerako tokiekiko dituen aldeak, eremu mediterraniarrekoak izateagatik.

Eremu funtzionaleko ingurumen balorazioa hurrengo alderdietan laburbil daiteke:

- Landaredi naturala galtzea.
- Oso eraldatuta, sinplifikatuta eta behar baino homogeneoagoa den paisaia.
- Kontraste altua dago mahastiez estalitako lursail baxuen artean eta Kantabriako mendilerroko mazela eta tontorren artean. Azken horietan landaredi naturala da nagusi.
- Lehengoratzeko aukera altuak dituzten enklabe natural interesgarriak agertzen dira.
- Obra hondakindegia eta bestelako hondakindegia ugaritzea.
- Ebroko uren kalitatea txarra da orokorrean.
- Nekazaritza eta abelazkuntzako jardunarekin, mahastizaintza eta ardogintzarekin eta, orokorrean, industriein zerikusia duten eraikuntza batzuk eragina dakarte ikusmenerako.
- Higadura arazoak daude erdigunean landaketarik ez duten muinoetan.
- Zuhaitziak, muinoak eta sastrakak galdu egin dira nekazaritzaren jardunaren ondotik.

Hala eta guztiz ere, ingurumen hondameneko egoera hori agertu arren, Eremu Funtzionalak balio natural garrantzitsu batzuk agertzen ditu oraindik ere, aukera handiko ingurune fisikoarekin batera. Gainera, funtsezko papera du nekazaritzaren jarduna eusteari dagokionez, funtsezkoa baita eremu funtzionalean.

3.6. INGURUMEN DIAGNOSTIKOA. SUMATUTAKO ARAZOAK ETA AUKERAK

Aurreko idatz zatietan emandako informazioan oinarrituz, sumatutako ingurumen arazo nagusiak zeintzuk diren zehazten da, zonak agertzen dituen aukerekin batera, betiere, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta.

3.6.1. Arazoak

Eremu Funtzionalean sumatutako arazoak eta eraginak hurrengoak dira:

- **Higadura**

Higaduraren fenomenoak hedaturik daude lurralde osoan zehar, muino txikietako mazelei eraginez. Gertatzen den higadura xafra modukoa da funtsean, zenbait kasutan zulo higadura bihurtuz eta kasuren batean baita lubaki ere.

Halaber, zona ezegonkorrak edo orain dela gutxi mugimendua izandakoak daudela sumatu da, zehazki Labastidako mugarteko S. Cristobal mendiaren mazeletan eta Toloño mendilerroko Humilladero ermitan, Kantabriako mendilerroan 800 m-tik gorako mazela guztietan eta Ebroren erreka eta sakan garaien zonetan.

Landarediak lurzoruari ematen dion babes eskasak (ia ez dagoelako landare estalkirik), berezko ezaugarri litologikoekin batera, higaduraren alde egiten du batez ere malda gehien duten zonetan, alegia, mazela eta muinoetan.

Nekazaritzari eta abeltzaintzari uztartutako lanak atzerapausoa izan dira baso azalerarentzat. Horren ondorioz, higadura prozesuak muino eta mazeletan garatu dira, lurzorua azkar galduz. Egun, toki horietan higadurari, lehortasunari eta intsolazio zuzenari gehien egokituriko landareak hazten dira, hain zuzen ere estalki trinkoa sortzeko joera ez duten landareak.

Higaduraren prozesuak gertatzen dira ere, neurri handiago edo txikiagoan, landatutako lursailetan. Bertan, egitura hondatu egiten da, batez ere gainazalaren horizontean, landare estaldura eskasa delako eta materia organikoaren ekarpenik ia ez dagoelako. Horrela, lurzoruak defentsak galtzen ditu higadura hidrikoaren aurrean. Prozesu hau larriagotu egiten da lurzorua mehea denean.

Gainera, makineria indartsua erabiltzeak behar ez diren mugimenduak ekartzen ditu zenbaitetan, malda handiegia duten ezpondekin batera. Ondorioz, eusteko neurririk hartzen ez denez, behera etorri ohi dira, bideak hondatuz eta egoera kaskarrean utziz landaketen ertzetako zonak.

- **Landaredi naturalaren eta landaketa tradizionalen atzerapausoa, ardogintzan espezializatzearen mesedetan**

Nekazaritzari eskainitako azalera zabaltzen joan da, eta horrek espazio basatiak gutxitzen joatea ekarri du, desagertuz edo azalera txikituz. Kasu askotan, espazio basati horiek irla txikiak bihurtzen dira aldaketa handiak jaso dituzten lurraldeen barruan. Erliebea eraldatzera ere iritsi da, muinoak eta maldak zuzenduz eta forma emanez landatzeko lurra irabazteko xedez.

Lurzatien pilaketak eraldaketa batzuen alde egin zuen, landaredia naturaleko multzo batzuk deuseztatzea ekarriz, adibidez zuhaitziak, isolaturiko zuhaitzak eta sastraka batzuk. Ondorioz, biologiaren eta paisaiaren aldetik pobrezia iritsi zen. Zuhaitzek eta zuhaixkek garai bateko bideak zehazteko zuten fisionomia tradizionalak lurzatien arteko muga gisa balio zuen, baina desitxuratuz joan zen ingurunea sinpletzen joatearekin batera.

Bestalde, azken hamarkadetan ardogintzan espezializatzeak eskualdeko nekazaritzako paisaia tradizionala aldatu du ere, olibondoak eta fruta arbolak bezalako landaketa tradizionalak erabat desagertuz mahastiaren mesedetan.

- **Suteak eta kontrolik gabeko erreketak**

Erretzeko arriskuaren arabera irizpideak bakarrik kontuan hartuz, sute arrisku altuko zonak bat datoz Toloño-Kantabriako mendilerroko mazeletako baso eremuekin eta baso birpopulaketekin. Sute arrisku altukotzat har daitezke ere abariztiak, txilardi mediterraniarrak eta ezpeldiak. Neurri bateko sute arriskua pagadiak, erromeradiak, pretxilardiek, txilardi azpikantauriarrek, espartzudiek eta larreek izango lukete.

Mazela horiek hondamen handia ekarri duten hainbat sute jasan dituzte urteetan zehar, batez ere laurogeiko hamarkadan. Masa gehienek sute horien eraginak erakusten dituzte, ohikoak izanez baso gazteak eta zuhaixka etapak. Egun, ohikoagoak dira suteak eskualdearen behealdean. Uzta jaso ondoren galondoak eta aihena erretzeak arriskua ekarri du zuhaitz edo sastraketatik gertu geratzen diren zonetarako. Aitzitik, arrisku hori nahiko kontrolaturik dago egun. Izan ere, Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak dioen moduan: *“...landa inguruneetan edozein eratako egur, belar edo hondakin erre nahi bada, kasuan kasuko organo eskudunaren baimena beharko da, eta hura sua kontrolatzeaz eta hark sortutako kalteen arduradun izango da”*.

Bestalde, landaketen artean muinoak eta landaredi naturaleko azalera txikiak zuzenean erretzeak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jarduerari uztartutako ohiko praktika bezala kalte larria ekarri du ere. Ondorioz, natura modu espontaneoan lehengoratzeko aukera galtzen da, basoko eta ehizako faunarentzako babeslekuak galdu egiten dira, higadura prozesuak eta lurzoru galerak areagotu egiten dira eta geroz eta gehiago sinpletzen da landa paisaia.

- **Obra hondakindegia eta bestelako hondakindegia ugaritzea**

Udalerri bakoitzak udalak nolabait kontrolatzen duen hondakindegia du, baina guztiak ia beteta daude. Ondorioz, arriskua da hondakinak pilatzeko hainbat puntu agertzea espazioan eta denboran. Hondakin horiek inerteak izango lirateke, nekazaritzako lursailak egokitzetik (mahasti zelaietako harriak), upeltegi handietako lur mugimenduetatik eta eraikuntzatik eratorritakoak.

- **Ebroko uren kalitatea txarra da orokorrean**

Ebro ibaia zona honetako ingurune naturaleko elementu oso garrantzitsua da, eta, aldi berean, askotan ahazturikoa. Labastidako Los Sotos edo Esperaleko Eremua bezalako enklabe zehatzez gain, erriberak oso hondaturik daude eta kontserbazioko egoera oso txarrean. Horri erantsi egin behar zaio uraren kalitate txarra. Horrek guztiak biztanleriak elementu honekiko duen interes eskasa baldintzatzen du. Erabilera ahalmenaren arabera, Ebroko urak jarraian zehaztuko den moduan sailka daitezke:

- . Arrain bizitza hartzeko gaitasuna: arrainek bizitza garatzeko posible dute ur hauek erabiltzea, nahiz eta barboa bezalako exijentzi gutxiko espezieak behar duten izan eta proportzio txikitik.
- . Edateko ur bezala erabiltzeko gaitasuna: edateko erabil ezin daitezkeen urak, salbuespen batzuetan izan ezik eta tratamendu zehatza eman ondoren.
- . Aisialdirako erabiltzeko gaitasuna: posible da, baldin eta urarekin kontaktu fisikoa beharrezkoa ez bada.

Uraren kalitate txar horrek zerikusia du funtsean zonako hiri isurketekin eta zenbait kasutan baita industrien eginikoekin ere. Horrez gain, Lantaron eta Miranda de Ebroko industriguneetatik etorritakoak egongo lirateke, ur ibilguan gorago kokaturikoak horiek.

- **Erauzketa jarduerak**

Eremu funtzionalean hainbat harrobi eta legardi dago. Gehienak utzita eta lehengoratzeko beharrean daude, eta jardunean ari direnek, berriz, arrazoizko ustiaketa eta lehengoratzeko planak betetzen direla kontrolatzea behar dute. Nagusiki hegoaldean kokatzen dira, Ebro

ibaitik gertu. Izan ere, horietako asko alubioi lautadetako eta terrazetako legar eta harea aprobetxamenduak dira.

- **Paisaiaren gaineko eraginak**

Paisaiaren gaineko eragin batzuk ikus daitezke, ingurunean gutxi integratutako eraikuntzetatik eratorrita eta, normalean, nekazaritza eta abeltzaintzako eta baita industriako jarduerekin edota gune horietan egin diren hirigintzako garapenekin zerikusia izanez. Azken urteotan nabarmenki areagotu dira upeltegi eraikinak lurzoru urbanizaezinean, eta horietako batzuk eragin aipagarria ekarri diote zonari.

- **Arriskuko foku teknologikoak**

Industria batzuk berezitat jotzen ditu Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak, gai arriskutsuak pilatzen eta/edo tratatzen dituztelako. Hona hemen adierazitako industria horiek: Ríolac, SA; Alavesa de barnices, SA, eta Industrias químicas Kupsa, SL, guztiak Oionen. Arriskuko fokutzat har daitezkeen beste industria edo instalazio batzuk hurrengoak lirateke: Argraf, SA eta Argraf-Ebro, SA Oionen eta Laguardiako eta Labastidako gasolindegia.

- **Akuiferoen ahultasuna**

Eremu funtzionalean akuiferoak kutsatzeko bereziki ahultasun handi eta oso handikoak diren zonak Toloño-Kantabria mendilerroaren mazeletan kokatzen dira eta kareharria agertzearekin du zerikusia. Behealdean ez dago baldintzatzaile honekin zerikusia duen arazorik.

- **Uholdea**

“Azterketa Geomorfologikoa eta Arrisku Naturalen eta Lurraldearen erabileratik eratorritakoen Azterketa 1:25.000 eskalan” deritzonaren arabera, Arabako Foru Aldundiak landutakoa, maiztasun ertain eta txikiarekin uholde arriskua duten zonak bat datoz Ebroren alubioi lautadekin eta hari dagozkion erreka eta sakanekin. Hauek dira:

- Labastidan Gimileo eta El Sotoko bihurgunea, Haro pareko erriberaz gain.
- Mañuetan eta Eskuernagan Herrera, Ozanco eta Meson errekek.
- Lezan, Navaridasen, Laguardian eta Eltziegion, Mayor erreka eta Rioseco sakana.
- Lapuebla de Labarcan Esperaleko meandroa.
- Lapuebla de Labarcan eta Laguardian El Valle sakana.
- Lantziego eta Laguardian Campillar meandroa eta Galijo eta Riocamino errekek.
- Lantziegon eta Oionen Valvarriniga sakana.
- Iekoran eta Oionen Oiongo (edo Iekorako) eta Valdemacucoko sakanak. Hain zuzen ere, denboran zehar arazo gehien eman dituen zona da, batez ere Oiongo industrigunea kokatzen den eremuan.
- Moreda de Álavan eta Oionen Barriobusto eta Labraza errekek.
- Oionen Valdevaron erreka eta Dueñaseko sakana.

Halaber, uholdeei dagokienez, hurrengoak azpimarra daitezke bereziki gatazkatsutzat:

- Samaniegoko inguruak.

- Eskuernagako hegoaldea.
- Navaridas, Eltziego eta Bilarko inguruak.
- Oion iparraldean, 2 km-ra, San Justo parkea. Bertan, 88-89 urteetan agertu zen arazo hau, eta uholdeek eragindako kalteak konpontzeko lanak garatu dira.
- Viñaspre erreka, Lantziegoko errepidearekin gurutzatzean.
- Gustavo erreka, km 1era, Labrazako hegoaldera.

3.6.2. Aukerak

Argi geratu den bezala eta agertzen duen hondamen orokorra agertuta ere, Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzionalaren ingurune naturalek hainbat aukera ditu aprobetxatzeko eta hari berriro balioa emateko, kasu askotan aparteko kalitateko berariazko aktiboa eratzeagatik. Aktibo hori zonan oraindik dauden enklabe naturalek eratzen dute: Bertako basoak, aintzira eta kubeta endorreikoak, Kantabriako mendilerroa, ibaietako basoak, Ebro ibaia eta errekek, garai bateko terrazak eta abar. Horiek abiaburu gisa har daitezke natura lehengoratzeko prozesu baterako. Prozesuak eskualdeko paisaia berezitasuna anizten eta aberasten lagunduko luke.

Ondorioz, ingurune naturala balio handi gisa hartu behar da, Eremu Funtzionalak duen aukera nagusienetako bat bezala hartzearekin batera. Ez da hartu behar garapenak, hirikoak nahiz ekoizpenarenak, gainditu beharreko oztopo edo eragozpen gisa.

Bertan bizi den landa esparruko biztanleriak nahiz aldi batez bisitari direnek abantaila ugari eta garrantzitsuak jasotzen dituzte ekoizpen handiko elementu ezberdinak bat egiten duten paisaia anitza mantentzetik, adibidez landaketarako lursailak eta larreak izatetik egitura iraunkor eta etengabekoenekin eta batez ere baso eta sastrakekin. Gaur egun nekazaritzaren alorreko ekoizpena eta oreka ekologikoa bateratzea ez da luxua, beharra baizik.

Arabako Errioxako ingurune naturalek kulturarekin eta aisialdiarekin zerikusia duten hainbat aprobetxamendu eta erabilera garatzeko aukera handiak dituzte. Ingurune horietan posible da mendizaletasuna, mendietan topa daitezkeen faunaz eta floraz gozatzea eta horiek aztertzea edo, besterik gabe, paseo osasungarriak egitea oinez nahiz bizikletaz. Aukera handi horiek ahalik eta gehien aprobetxatzeko, kontuan hartu behar da ingurune naturalek gizakiak esku hartutako espazioen aldean duten ezaugarrietako bat bere kabuz lehengoratzeko gaitasun handia izatea da, zorizko eraldaketa bat jasatean. Espontaneoki lehengoratzeko gaitasun hori, ordea, egitura sinpleak eta ezegonkorrak basoak bezalako beste konplexu eta egonkorrago batzuekin lotzen dituen hurrenkera ekologikoko prozesua jazotzearen ondorioa da, sastraken erdi bideko egoera ezberdinen bitartez. Arabako Errioxako zona batzuetan lehengoratze prozesu hori oso zaila da, hurrenkera ekologikoan sartzen diren etapa horietako batzuk desagertu egin direlako. Ondorioz, beharrezkoa da geratzen den landaredi natural eskasa mantentzea, modu horretara lurraldearen egonkortasun orokorra bermatzeko behintzat epe luzera.

3.7. INFORMAZIOA BILTZEKO ZAILTASUNAK

Ez da zailtasunik topatu eremuan ingurumenaren gaineko azterketa eta diagnostikoa egiteko behar zen informazioa biltzerakoan.

4. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN HAUTABIDEEN INGURUMEN AZTERKETA. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

4.1. HAUSNARTUTAKO HAUTABIDEETAN BILDUTAKO JARDUEREN DEFINIZIOA

Aldaketa idatzi den bitartean, bi aukera hausnartu dira:

- a) Indarreko LPParen araudia mantentzea (0 hautabidea).
- b) Araudia aldatzea sektorean esku hartzen duten erakunde eta entitateen eskaerak biltzeko.

Kokaleku hautabiderik ez da hausnartu, helburua ez baita jarduera zehatza toki jakinean kokatzea, baizik eta etorkizuneko kokaleku izan daitezkeenentzat baldintzak ezartzea.

Zero hautabidea 4.2. idatz zatian deskribatzen da. Araudia aldatzeari dagokionez, kontuan izan dira jasotako eskaerak. Horiek, nagusiki, hurrengoei heltzen zieten: lurzati hartzailea eta lotetsiaren azalera, eraikigarritasuna eta kasu bakoitzeko upeltegi motaren arabera eskakizun ezberdinak ezartzeko beharra. Xede horri dagokionez, hurrengo hautabideak aintzat hartu dira:

	1. HAUTABIDEA	2. HAUTABIDEA
Lurzati lotetsia	- 8 ha “eraldaketako instalazio txikientzako”. - 12 ha “upeltegi handientzako”	- 8 ha “eraldaketako instalazio txikientzako”. - 12 ha “upeltegi handientzako” eta erabilera osagarriak eransten dituzten “eraldaketako instalazio txikientzako”.
Lurzati hartzailea	- ha 1 edozein upeltegi motarentzako	- 0,5 ha “eraldaketako instalazio txikientzako”. - ha 1 “upeltegi handientzako” eta erabilera osagarriak eransten dituzten “eraldaketako instalazio txikientzako”.
Eraikigarritasuna	0,3 m ² c/m ² edozein upeltegi motarentzako	0,3 m ² c/m ² edozein upeltegi motarentzako
Autobusentza ko aparkalekua	Aurreikusitako pertsonen okupazioaren arabera (EKT), aparkaleku bat gehiago turismoetarako aparkalekuez bestelako 3.000 m ² -ko.	Aurreikusitako pertsonen okupazioaren arabera (EKT), aparkaleku bat gehiago turismoetarako aparkalekuez bestelako 3.000 m ² -ko “upeltegi handien” eta erabilera osagarriak eransten dituzten “erabilera osagarriko instalazio txikien” kasuan.
Distantzia +600 m-ko kotaren gainetik	≥250 metro ≥1000 metro	≥500 metro

Horrez gain, 1.4. idatz zatian jada bildu diren beste irizpide batzuk erantsi dira, eta horiek edozein motatako upeltegietan aplikatu behar dira.

4.2. ZERO HAUTABIDEAREN EDO “ESKU HARTZE EZAREN” DEFINIZIOA

0 hautabideak indarreko LPParen zehaztapenak mantentzea ekarriko luke, labur adieraztearren hurrengoak:

- a) Ez da alderik zehazten bi instalazio moten artean: eraldaketako instalazio txikiak, “urteko ardoaren” upeltegiak eta upeltegi handiak.
- b) Upeltegientzako eta, funtsean, eraldaketako instalazio txikientzako lehentasunezko kokalekua hiri lurzoruak edo urbanizagarriak izango dira.
- c) Energia kontsumoa eraginkortasun ezaugarrietatik egitea eskatzen da, energia berritzagarriaren ekoizpena erantsiz baina zein alderdietan zehaztu gabe.
- d) Ez da paisaiaren inguruko irizpide zehatzik eranstean upeltegiak ezartzeko.
- e) Mahasti lotetsiaren eta lurzati hartzailearen gutxieneko azalerak 10 ha eta 2 ha-koak dira hurrenez hurren, edozein motatako upeltegirako. Lurzati hauetarako exijitzen den lotespen mota ez da ezartzen.
- f) Eraikigarritasuna $0,2 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ -koa da, 8.000 m^2 -ko eraikin bakarrerako aprobetxamendu mugarekin. Ez da zehazten zein baldintzatan.
- g) $100\text{m}^2\text{c}$ bakoitzeko aparkaleku bat hornitzea aurreikusi da ibilgailu pribatuentzako, merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunentzako behar direnez eta autobusentzat jarri beharreko gain. Azken horien kasuan, aparkaleku osagarri bat egongo litzateke turismoetarako aparkalekuez bestelako $2.000 \text{ m}^2\text{c}$ bakoitzeko.

Araudi horretan ez da ezer zehazten LPPa indarrean jarri aurretik bertan zeuden upeltegientzat, edo aldeztu aurretik zeuden nekazaritzako pabiloiak upeltegi bihurtzeko. Upeltegia ez den nekazaritzako erabilera duten beste eraikuntza batzuk ezartzeko ez da zehaztapenik jasotzen, horiek lurzoru urbanizaezinean jarri nahi direnerako.

Zonako erakunde eta entitate ezberdinetatik eskatu den bezala, zehaztapen hauek “eraldaketako instalazio txikiak” (urteko ardoaren upeltegiak) diskriminatzen dituzte “upeltegi handien” aldean, ez baita batzuen eta besteen artean bereizketarik egiten.

4.3. PROPOSAMENAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEAK

Aldaketan bildutako proposamenak baloratzeko kontuan izan diren alderdiak hurrengoak dira:

- Erliebea aldatzea.
- Ibilguak eta erriberak aldatzea.
- Akuiferoak kutsatzeko ahultasun handia edo oso handia duten zonak kaltetzea, batez ere akuiferoak kargatzeko zonak Kantabriako mendilerroan.
- Nekazaritzarako gaitasun handia duten lurzoruak galtzea.
- Bertako landare komunitateei kaltea ekartzea, batez ere bereziki baliotsua den landaredi autoktonoari.
- Faunari kaltea ekartzea, babeslekuak galtzea.
- Lurraldeko paisaiaren kalitateari eragitea.
- Egungo ezaugarri geologiko eta geomorfologikoei eta zonak berezkoak dituen eragitea (Ebro ibaiaren terrazak eta alubioi lautadak, muinoak eta ibarbideak).
- Eremuan agertzen diren natura intereseko enklabeak eragitea.

Hausnartutako aldagai hauek eremu funtzionalaren ezaugarrien arabera ematen zaien garrantzi mailari jarraiki baloratzen dira. Kasu honetan, ingurumenaren ikuspegitik dauden funtsezko osagarriak enklabe naturalak, paisaia, erliebea eta nekazaritzako kalitate altuko lurzorua dira.

4.4. ALDAKETAREN PROPOSAMENEK SORTUTAKO ERAGINEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO OROKORRA

4.1. idatz zatian deskribaturiko 2. hautabideak sortutako eraginak aztertzen dira, sektoreko eskaerekin bat hobeki egiten duena dela uste izateagatik. Hautabide hau hausnartu da erabilera osagarriak eransten dituzten “eraldaketako instalazio txikiek” (ostalaritza, eta abar) “upeltegi handien” antzeko ezaugarriak agertzen dituztelako.

Aldaketan sartutako proposamenek ez dakarte bere horretan ingurumen eraginik. Upeltegiak jartzea garatzen duten proiektuak edo erabilera horretarako hiri lurzorua edo lurzoru urbanizagarria mugatzeko udal plangintzen berraztertzeak izango dira ingurumen eraginak sor ditzaketenak, bertan ezarritako zehaztapenak betetzetik eratorrita.

Alderdi hori kontuan hartuta, zehaztapen horien ingurumen eraginak deskribatzen dira.

- **Eraldaketako instalazio txikien eta upeltegi handien arteko bereizketa**

Ez du ingurumen eraginik ekartzen.

- **Eremu Funtzionaleko udalerriek hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri hutsak izan behar dituzte upeltegiak jartzeko**

Kasu honetan eragina lurzoru horien kokapenaren araberakoa izango da. Aldaketak ez du kokaleku zehatzik proposatzen, eta udalerrietako planeamenduak berrikusterakoan aztertu beharko da eragin hori. Edonola ere, LPPan adierazitako ingurumen irizpideak bete beharko dira kokalekuari eta garapenari dagokionez. Horien artean adierazi egiten da ezingo dela hiri egitura aldatu, ezta hiriguneen irudia ere.

- **Energia berriztagarriak erabiltzea**

- Aldaketak proposatu egiten du upeltegien eraikinek Eraikuntzaren Kode Teknikoan horretarako jarritakoa bete beharko dutela, lokal bakoitzari upeltegiaren barruan emango zaion erabilera gorabehera.
- Gainera, proposatu egiten da instalazioen energia osoaren zati bat energien aprobetxamenduaren, sorrera bateratuko prozesuen edo hondakin energia iturrien bitartez eskuratu beharko dela.

Bi zehaztapenak bat datoz Ingurumen Esparru Programarekin, eta, ondorioz, ez du ingurumenaren aldetik eraginik.

- **Eraikinen paisaia egokitzea**

Beharrezkotzat jotzen da udal planeamenduak upeltegien paisaia egokitzea kontuan hartzea. Zehazki zera zehazten da:

- o + 600 m-ko kotaren gainetik, upeltegien arteko distantzia ≥ 500 m-koa izan beharko da.
- o Lursailen profil naturala aldatzea saihestuko da eraikigarritasunean ez sartzeko “soto artifizialak” egiteko.
- o Orografian aldaketak eragingo dituzten lur mugimenduak mugatu egingo dira.
- o Industria pabiloiak edo estandarizatutako eraikuntza errepikagarriak erabiltzea saihestu egingo da.

+600 m-ko kotaren gaineko upeltegien arteko tarteari dagokionez, aldaketa idazterakoan zenbait aukera hartu ziren kontuan: ≥ 250 m., ≥ 500 m. edo ≥ 1000 m. Azkenean, 500 m-koa aukeratu da, paisaia babesteko ikuspegitik eta lurraldearen eta arro bisualen ezaugarriak aintzat hartuta, Kantabriako mendilerrotik gertuen dagoen zonaren paisaia babesa behar bezala bermatzen duela ulertzeagatik. Upeltegien arteko banaketa 250 m-koa izateak paisaia izan dezakeen eragina handia da, instalazio mota horiek pilatuta egon baitaitezke zona bakar batean. Laguardiako iparraldean, adibidez, hala gertatzen da. Bestalde, kasu honetan 1000 m-ko tarte edukitzea gehiegizkoa da, lurraldeko lurzatiek ezaugarriak aintzat hartuta, aipatu lurraldearen azalera, oro har, oso txikia baita.

Neurri berri horiekin bi gauza lortu nahi dira: batetik, Kantabriako mendilerroa babestea, mendilerroaren oinean upeltegien eraikuntza mugatuz; bestetik, “mendixka” artifizialak agertzea saihestu nahi da, hain lurralde bereziko paisaiaren kalitatea eraldatzen dutelako. Hori dela eta, oso positibotzat jotzen dira ingurumenaren ikuspegitik. Etorkizunean upeltegiak jartzeko egiten diren proiektuetan aztertu beharko da sortuko den eragina, eta, edonola ere, irizpide horiek betetzen direla bermatu beharko da.

• **Mahasti landaketaren azalera lotetsia**

- Bereizketa egiten da upeltegi motaren arabera. Horrela, “eraldaketako instalazio txikiatarako” 8 ha eskatzen dira, eta “upeltegi handientzako” eta erabilera osagarriak (ostalaritza, eta abar) eransten dituzten “eraldaketako instalazio txikiarentzako” 12 ha-koa izango da.
- Beharrezkoa izango den gutxienezko lurzati hartzailea ezberdina izango da ere upeltegi mota gorabehera: 5.000 m² “eraldaketako instalazio txikiarentzako” eta 10.000 m² “upeltegi handientzako” eta erabilera osagarriak (ostalaritza eta abar) eransten dituzten “eraldaketako instalazio txikiarentzako”.
- Aldaketak argi definitzen ditu lurzati motak eta ekarpena zein modutara egin behar den. Lurzati hartzailea jabetza titulupean jarriko da beti, eta lurzati osagarriak jabetza titulupean, alokairuan edo usufruktuan jarri ahaliko dira. Edonola ere, 15 urteko aldian hirigintza lotura izan beharko du eta Jabetzaren Erregistroan inskribatuta egon (ezingo dira beste upeltegi batzuei uztartutako lurzatiak erantsi).

Neurri horiei esker, posible da “eraldaketako instalazio txikiak” upeltegi handien antzeko baldintzetan jartzeko aukera izatea, betiere, ustategien ezaugarriekin bat etorriz. Indarreko planak 10 ha-ko azalera lotetsia eskatzen zuen, 2 ha-ko lurzati hartzailearekin batera, upeltegi mota edozein izanda ere.

Indarreko planak 10 ha-ko azalera lotetsia eskatzen zuen, 2 ha-ko lurzati hartzailearekin batera, upeltegi mota edozein izanda ere. Hori dela eta, produktore txikiak ezin izan dute euren upeltegia ezarri, izan ere, ustiatutako batez besteko azalera 7-8 ha-koa da eta lurzatiek % 80 baino gehiagok 0,5 ha baino gutxiagoko azalera dute. Parametro honen

inguruan azertu diren aukeren artean, aldagetak, beraz, 2. aukera proposatzen du. Neurri horiei esker, “eraldagetako instalazio txikiek” upeltegi handien antzeko baldintzetan jartzeko aukera izan dezakete, betiere, ustategien ezaugarriekin bat etortzen badira, eta horregatik, eraldagetako instalazio txikiek, ostalaritzarako ere erabiltzen direnean, upeltegi handietarako ezarritako determinazioak era berean bete beharko dituzte.

Upeltegi handiei mahastientzat eskatzen zaien azalera (12 ha) urtean 250.000 litro sortzeko behar den gutxieneko azaleraren % 25ari dagokiona da, aintzat hartutako produkzio parametroen arabera (49 hl/ha).

Bestalde, lurzati lotetsiak jabetza titulupean (lurzati hartzailea) edo 10 urteko hirigintza loturarekin jabetza, alokairu edo usufruktu titulupean (lurzati osagarriak) jartzeko beharra dela eta, bermatuta geratuko da beste upeltegietara lotutako lurzatiak ezingo direla lotetsi upeltegi berri bat sortzeko, eta hori horrela, lurzati lotetsien kopurua ezingo da upeltegiena baino handiagoa izan.

- **Sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna 0,3 m²c/m²-koa izango da**

- Sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna aldatu egiten da 0,2 m²c/m²-tik 0,3 m²c/m²-ra. Aprobetxamenduaren mugatzailea mantendu egiten da 8.000 m²c-ko eraikin bakarrerako.

Horrela, aukera ematen zaie “eraldagetako instalazio txikiei” 1.500 m²-ko eraikinak eraikitzeko, eta “upeltegi handiei” eta erabilera osagarriak eransten dituzten “eraldagetako instalazio txikiei” 3.000 m²-ko eraikinak eraikitzeko gutxienez. Zehaztu egiten da eraikigarritasun hori sestra gainekoa dela, sotoak zenbatu ez daitezela.

- **Aparkalekuen zenbaketa**

- Aparkalekuen zenbaketa erabilera publikoko bulego eta lokaletarako aurreikusitako pertsonen okupazioaren arabera egingo da, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren irizpideak jarraituz.
- Aparkaleku bat jarri beharko da turismoetarako aparkalekuez bestelako 3.000 m²-ko “upeltegi handien” eta erabilera osagarriak eransten dituzten “erabilera osagarriko instalazio txikien” kasuan.

Horrela, errealistagoak diren irizpideak aplikatzen dira, eta ez da alferrik behar baino azalera gehiago betetzen, indarreko araudiarekin gertatzen zen moduan 100 m² bakoitzeko aparkaleku bat eskatzen duena, upeltegi mota edozein izanda ere.

Lurzati lotetsiekin gertatzen den bezala, eraldagetako instalazio txikiak ere aparkalekuekin hornituko dira upeltegi handiekin batera erabilera osagarriak dituztenean.

- **Aldez aurretik dauden upeltegiak**

Indarreko LPPak ez ditu aldez aurretik dauden upeltegiak kontuan hartzen; aldagetak zera proposatzen du:

- Babes bereziko lurzoruetan kokatzen direnek mantentze lanak bakarrik egin ahalko dituzte, inoiz ez erreformak edo zabalkuntzak.

- LPParen betekizunak betetzen ez dituzten gainerako upeltegiek % 10ean areagotu ahaliko dute eraikigarritasuna sestra gainean eta onarpenaren unean zutena oinarritzat hartuz. Horren gainetik araudiaren barruan kokatu beharko dute beren egoera.

Zehaztapen berri honekin egun upeltegiren bat duten babes bereziko eremuek egungo ezaugarriak mantenduko dituzte, eta, horrela, horiei ahalik eta kalte txikiena eragiten zaiela bermatuko da.

- **Dauden pabiloiak eraldatzea**

- Aldaketak aukera ematen du dauden nekazaritzako pabiloiak upeltegi bihurtzeko, betiere, babes bereziko lurzoruetan kokaturik ez badaude eta lurzati hartzailearen azaleraren edo gehieneko eraikigarritasunaren parametroa bete ez arren.

Horrela, sorrerako erabilerarako jada erabiltzen ez diren eraikinak berrerabiltzea ahalbidetzen da, lurzoru urbanizaezinean eraikin berriak sortzea saihestuz.

- **Nekazaritzako beste eraikuntza batzuk**

- Aldaketak, gainera, nekazaritzako erabilerarako beste edozein eraikin zehazten du, upeltegiko erabilera ematen ez zaionean eta lurzoru urbanizaezinean kokatu nahi denean. Horiek “eraldaketako instalazio txikiei” eskaturiko eraikuntza parametroak bete beharko dituzte (lotetsitako mahasti azalerari buruzko alderdia izan ezik).

Alderdi hori ez da indarreko LPPan jasotzen. Oso positibotzat jotzen da horrelako eraikuntzak eremuan ugaltzea saiheste aldera.

4.5. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

Informazio guztia aztertu ondoren, ondoriozta daiteke ingurumena babestearen alderditik proposatutako LPParen aldaketak lurraldean dauden baliabide naturalak kontserbatzea bermatzen duela. Halaber, ondoriozta daiteke ingurumen eta paisaia alderdiak kontuan izan direla.

Aldaketa honetan upeltegiak lurzoru urbanizaezinean jartzeko jarraibideak bat datoz LAGekin. Horrela, bermatu egiten da LPPak mugatutako babes bereziko eremuei ahalik eta eragin txikiena ekartzen zaiela, ingurumenarekiko errespetua kontuan hartzen duten irizpide eta neurriak planteatuz.

Azterlanaren beste idatz zati batzuetan jada aipatu den moduan, aldaketa honen funtsezko helburua upeltegia lurraldean kokatzeari buruzko zehaztapenak egokitzea da, azken urteotan lurzoru urbanizaezinean upeltegiak jartzeko eskaerei egokitze aldera eta mahastizaintzako eta ardogintzako jarduera eta haren beharren garapena lurraldearen baldintza naturalak mantentzearekin eta paisaiaren eta ingurumenaren berezitasunekin bateratzeko.

Aldaketan adierazitako eta 1.2 idatz zatian jasotako helburuetatik, zera ondorioztatzen da:

- Aldaketak bermatu egiten du enklabe naturalak nahiz eremuko paisaia balioak eta balio zientifiko eta kulturalak babestu egingo direla, babeserako erabilera eta jarduera mugak ezarriz.
- Udal planeamenduei eskatu egiten zaie hiriguneen inguruko lurzoruak mugatzeko, upeltegiak kokatzeko eta, horrela, lurzoru urbanizaezina okupatzea saihesteko.
- Kontuan izan dira bereziki babestutako lurzoruei eraginik ez ekartzea bezalako ingurumen faktoreak eta Plan Berezia idazteko beharra.

Ondorioz, oso positibotzat jotzen da aldaketa proposamena. Izan ere, homogeneousotasun handiagoa bermatzen du upeltegi erabilera arautzeari dagokionez, eta jarraibideak ezartzen ditu udal planeamenduak hiri lurzoruak upeltegien jarduerarako kalifikatutako lurzoru urbanizagarriak mugatzeko. Hori kasu bakoitzean egongo litzatekeen eskariaren arabera eta dagoen mahasti landaketen arabera egingo litzateke. Horrela, ingurumena hobetuko da eskualde mailan.

Aldaketak ez du jarduera zehatzik planteatzen, horrelako jardueren ezarpena modu orekatuan eta udalerrri bakoitzeko beharrekin bat etorriz egiten dela bermatzea du xede, besterik gabe. Halaber, ingurunearekiko ahalik eta sentsibiltate handiena izatea ezartzen da. Upeltegi baten kokapenerako sortzen diren proiektuak xehetasun osoz aztertu beharko dira.

Helburu horiek guztiek, LAGetako Ingurune Fisikoaren Jarraibidean planteatu zirenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 86. artikuluan adierazitakoak eta Ingurumen Esparru Programaren helburuak betetzen dituzte. Hori dela eta, aldaketaren proposamen guztiak ingurumena babesteko politikarekin errespetuzkoak eta bateragarriak direla uste da.

5. SUMATUTAKO ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

5.1. LPPAREN ALDAKETAREN HELBURUEK INGURUMENEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA

Aurreko idatz zatietan jada adierazi den moduan, LPParen aldaketaren helburua eskatutako irizpideak egokitzea da, lurzoru urbanizaezinean upeltegiak ezartze aldera.

Mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizpenari lotetsitako jardueraren garapenaren eta lurraldearen baldintza naturalak mantentzearen arteko bateragarritasuna planteatu da. Helburuek errespetua diete ingurumen eta paisaia babesteko irizpideei, beraz, ez da eragin negatiborik aurreikusi ikuspuntu horretatik eta lortzeak zehaztutako ingurumen lehentasunak lortzen lagunduko du.

5.2. LPPAREN ALDAKETA PROPOSAMENAREN INGURUMEN ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Orokorrean esan daiteke aldaketak planteaturiko proposamenek ez dutela eraginik planteatzen ingurune naturalerako, eta eragin maila ertain baxua izango dute, hau da, inguruneke jatorriko baldintzak lehengoratzeko beharrezkoa izango da zenbait kasutan neurri zuzentzaile batzuk aplikatzea.

5.2.1. Hierarkian gaineratik dauden mailetan egin ahal izan diren ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren xede izandako jarduerak eta eraginak identifikatzea

Gaur arte eremu honetan eragina duen eta hierarkian gaineratik kokatzen den planeamenduko baliabide bakar bat ere ez da Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren prozedurapean jarri. LPPa uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua indarrean jarri aurretik onartu zen (2003ko otsailaren 4ko Agindua), beraz, ez zen prozedura horren pean jarri. Aitzitik, eta bi dokumentuak sail berdinak bultzatu zituenek, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren azterketa bat idatzi egin zen.

Azterketa horretan ondorioztatu zen LPPan planteatutako lurzoru urbanizaezinen antolamenduak homogeneotasun handiagoa bermatzen duela erabilerak eta jarduerak arautzeari dagokionez. Izan ere, udal planeamenduetarako jarraibideak ezartzen ditu, eta, horrela, eskualde mailan ingurumen hobea lortzearen alde egiten. Halaber, LPPak upeltegi jarduerak jartzeko ezarritako kokapen irizpideek kontuan hartzen dute ingurumen osagarria, beraz, ez dute ingurumen kalterik ekartzen.

5.2.2. Ingurumen eraginaren bateratu ebaluaziopean jarri ez diren jardueren eraginak identifikatu eta aurreikustea

Aldaketak egindako proposamenek izan ditzaketen ingurumen eraginak identifikatu dira jada 4.4. idatz zatian. Orain, horien balorazioa egingo da 4.3. idatz zatian ezarritako irizpideak kontuan hartuta. Balorazio hori gutxi gorabeherakoa da, ez direlako kokaleku proposamen zehatzak. Etorkizunean egiten diren proiektuak izango dira xehetasun gehiagoko azterketak behar izango dituztenak, jarduera horrek ekarritako benetako

eraginak zehazteko eta, kasu bakoitzean, beharrezko neurri zuzentzaileak ezartzeko eragin horiek arindu edo gutxitze aldera.

Labur adieraztearren eta ondorio modura, jarraian LPParen aldaketaren proposamenen ingurumen eragin esanguratsuenak zerrendatzen dira, bai positiboak, bai negatiboak.

- **Baliabide naturalei ekarritako eraginak**

Aldaketaren zehaztapenek bermatu egiten dute lurraldean agertzen diren baliabide naturalak mantendu egingo direla, ez baitu aldaketarik planteatzen intereseko espazio natural gisa hartutako zonetan, eta, gainera, debekatu egiten du upeltegiak LPPak edo udal planeamenduak bereziki babestutako lurzoru urbanizaezinean kokatzea.

Upeltegiak lurzoru urbanizaezinean kokatzeko jarri diren irizpideak oso egokitzat jotzen dira kontserbazioaren eta biodibertsitatearen ikuspegitik aztertuta.

- **Ingurumenaren alorrean sentikorrak diren zonei eta babestutako natura espazioei ekarritako eragina**

Eremuan agertzen diren natura espazio babestuak Babes Bereziko Eremutzat hartzen ditu indarreko LPPak. Horrek, gainera, zehaztu egiten du LPP honek Natura Interesagatik mugatutako Babes Bereziko eremuak Ingurumenaren Alorrean Sentikorrak diren zona gisa hartzen direla 3/1998 Legea aplikatzearen eraginetarako. Halaber, hirigintza planeamenduak Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezin moduan sailkatzea ezartzen du.

Zentzu horretan, aldaketaren zehaztapenek bermatu egiten dute LPPak edo udal planeamenduak mugaturiko babes bereziko eremuei kaltea ekarriko ez zaiela. Izan ere, espresuki debekatzen du upeltegiak horrelako lurzoruetan kokatzea.

- **Paisaiari ekarritako eraginak**

Aldaketak paisaiari eragin diezaioketen hainbat alderdi sartzen ditu eta horiek ez dira indarreko LPPan agertzen:

- Upeltegi berriak jartzeak ezingo du ordura arte zegoen hiri egituraren eraldaketarik ekarri, ezta hiriguneen irudiena ere, ez hiri lurzoruetan edo lurzoru urbanizagarrietan, ez lurzoru urbanizaezinean. Azken horri dagokionez, dauden guneen kokaguneari heltzen zaio.
- Udal planeamenduak kontuan izan beharko du eraikinen paisaiari egokitu behar izatea.
- Kantabriako mendilerroa berean mantentzeko neurriak jartzen dira, zehazki honakoa: 600 m-ko kotaren gainetik upeltegien arteko distantzia ≥ 500 m izan behar da.
- Lurzoruaren profil naturala aldatzea saihesteko, debekatu egiten da "soto artifizialak" egitea.
- Gainera, industriako pabiloiak edo eraikin estandarizatuak ez erabiltzea planteatzen du, eremuko paisaiaren kalitatea ez gutxitzeko.
- Aldez aurretik tokian existitzen ziren upeltegientzat, eraikigarritasuna zabaltzeko edo areagotzeko buruzko mugak ezartzen dira, horiek zein lurzorutan kokatzen diren gorabehera.

Zentzu horretan, aldaketak kontuan hartzen du upeltegiak paisaian integratzea lortzea beharrezkoa dela, bai horiek lurzoru urbanizaezinean kokatzen direnean, bai hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarrian kokatzen direnean. Beti horiek paisaiari egokitzearen alde egiten da, ahalik eta kalitate handiena bermatuz hirigintza baldintzetan eta tipologia eskualdeari egokitu ingurunean hobeki integratzen dela bermatzeko. Hori dela eta, eragina positibotzat jotzen da, hobekuntza orokorra proposatzen duelako jarduera berriak paisaian integratzeari dagokionez.

- **Urari eta baliabide hidrikoei ekarritako eraginak**

Indarreko LPParen araudia bat dator EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze ALParekin, eta, gainera, Kantabriako mendilerroko unitate hidrogeologikoa mugatzen du. Horretarako, lurpeko uren kantitateari, kalitateari eta funtzionamenduari eragin diezaiokeen edozein jarduera edo instalazio arautzea ezartzen du, indarreko legediarekin bat etorriz.

Aldaketak ez du alderdi horri eragingo dion zehaztapenik planteatzen, eta, ondorioz, ez du eraginik baliabideen gainean.

- **Hondakinak eta kutsadura areagotzeari ekarritako eraginak**

Aldaketak ez du zehaztapenik planteatzen alderdi honi dagokionez. Kontuan izan beharko da upeltegiak kokatzeko etorkizunean garatzen diren proiektuetan; horietan hondakinen eta kutsaduraren sorrera aztertu beharko da, bai obren fasean, bai upeltegi jardueraren funtzionamenduarenean.

- **Hiri kalitateari ekarritako eraginak**

Aldaketak mantendu egiten du upeltegiak ezin duela ez hiri egitura, ez hiriguneen irudia aldatu, eta zentzu horretan hiriguneetan kalitate handiagoa lortzearen aldeko apustua egiten du. Eragina, kasu honetan, positibotzat jotzen da hiriguneetarako.

- **Lurzoru artifizializatua gehitzea**

Ezin da arlo hori baloratu aldaketak ez baititu upeltegiak ezartzeko hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarrien kokaleku zehatzak proposatzen udal plangintzak egingo duela zehazten du eta. Beraz, parametro honetan sor daitezkeen eraginen balorazioa plangintza agiri horien ingurumen ebaluazioaren izapidean egin beharko da.

- **Ingurune naturaleko eta landa ingurune erabilerei (nekazaritza) eta jarduerari ekarritako eraginak**

Mahastiek okupatutako nekazaritza azalera erabilgarria mantentzea indarrean dagoen LPParen helburuetako bat da. Orokorrean, upeltegiak jartzeak ekoizpeneko lurzoruari eragiten dio askotan, azalera handiena betetzen duena baita. Alderdi hori kontuan izan beharko da proiektuak diseinatzerakoan, kalitate handieneko lurzoruei ez eragiteko eta beharrezko kasuetan konpentsazio neurriak jartzeko.

- **Kultura ondareari ekarritako eraginak**

Aldaketa proposamenak ez du eraginik zonako kultura ondarearen gainean.

- **Aldaketa proposamenetik eratorritako arriskuak**

Ez da aurreikusi aldaketan planteaturiko proposamenek garrantzizko arriskurik ekartzea. Edonola ere, etorkizunean upeltegien kokapena garatzen duten proiektuek azterketa geoteknikoa erantsi beharko lukete, arazo horiek badauden edo ez zehazteko.

- **Proposamenen ingurumen eragina zehazteko dauden zailtasunak eta ziurtasun ezak**

Aldaketak araudi alderdiak bakarrik planteatzen ditunez, zaila da zehaztapenen eragina baloratzea. Izan ere, ez datoz bat lurraldean duen kokapen fisiko zehatzarekin.

Eraginen ezaugarriak, beraz, izaerari begira egin dira, hau da, indarreko LPParen araudiarekiko positibotzat edo negatibotzat jotzen diren adieraziz.

5.2.3. Eraginen kalifikazioa

Inguruneko alderdi ezberdinen gaineko eraginak positibotzat jo dira kasu gehienetan, aldaketak ingurumen eta iraunkortasun irizpideak izan dituelako kontuan indarreko LPParen aldean araudi aldaketen proposamenak egiteko. Hori dela eta, bateragarritzat jotzen dira proposatutako araudiaren aplikaziotik eratorritako jarduera guztiak, eta proiektu zehatzak izango dira xehetasun gehiagoz horiek zehaztuko dituztenak eta, beharrik badago, neurri zuzentzaileak erantsiko dituztenak.

5.2.4. Aldatu edo kendu egin diren jarduerak eragin kritikoa ekartzeagatik

LPParen aldaketak proposaturiko jardueretatik bakar batek ere ez du ingurumen eragin kritikorik ekartzen.

6. NEURRI BABESLEAK, ZUZENTZAILEAK ETA KONPENTSAZIOZKOAK

6.1. GORAGOKO MAILETAN EGINIKO INGURUMEN ERAGINAREN EBALUAZIOK ETORRITAKO NEURRIAK

5.2.1. idatz zatian adierazi den bezala, LPPak ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren azterlana du, eta bertan upeltegiak jartzeko irizpideak ezartzen dira. Irizpide horiek aldaketa proposamenean bertan nahiz hurrengo idatz zatietan jasotzen dira. Jaso ez den alderdi bakarra honakoa da:

- Upeltegiak behar bezala ebatzi beharko dituela oinarrizko zerbitzuen beharrak eta, zehazki, ur hornidurarena (bai modu autonomoan edo sare orokorretik hartuz, baina, edonola ere, xede horretarako behar diren lanak ordainduta) eta saneamenduarena (beharrezko baliabideak izan beharko dira ur hondakinak erabat tratatzeko, azaleko urak edo lurpeko akuiferoak kutsatzea saihestuz).

6.2. ALDAKETAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA

Aldaketaren helburuek eta estrategiek, aurreko idatz zatietan ere jada adierazi den moduan, lurraldeko baliabide naturalen eta upeltegi instalazioen kokapenaren artean bateragarritasuna lortzea dute helburu, beraz, ez da beharrezkotzat jotzen bestelakorik sartzea ingurumenaren aldetik.

6.3. GARAPENARI ERANTSI BEHARREKO NEURRIAK ETA ALDAKETAREN APLIKAZIOA

Aldaketan proposatutako zehaztapenetatik eratorritako eraginak aztertu eta identifikatu ondoren, etorkizunean upeltegiak kokatzeko beharrezkoak diren babes neurri batzuk ezartzen dira. Helburua ingurumen kalitateko maila egokia lortzea da. Neurri zuzentzaileen aplikazioa xehetasun osoz definitu beharko da upeltegiak kokatzeko garatzen diren berriazko proiektuetan.

Edonola ere, eta erreferentzia modura, dokumentu honetan hainbat gomendio egiten dira, eta horiek kontuan izan beharko dira bai etorkizunean upeltegien proiektuak idazten direnean, bai udal-plangintzako dokumentuetan. Oso izaera orokorreko multzo gisa hartu behar dira, jarduera honek Eremu Funtzionalean izan dezakeen ingurumen egokitzapen onena bermatzen duten neurrien multzo gisa hain zuzen. Horien bitartez lurraldean etorkizunean kokatzen diren upeltegiak ekarritako ingurumen kostua saihestea edo gutxitzea litzateke xedea:

- Geratzen diren landare natural apurrak mantentzea, gunearen oreka orokorra eta aniztasun biologikoa bermatzeko. Basoak eta sastrakak eta larre xerofiloak (6220* habitata). Errespetatu egingo dira upategiaren egitasmoarekin bateragarriak ez diren zuhaitz eta zuhaixkak.
- Dagoeneko artifizializatuak dauden lurzoruen erabilera lehenestea ekintza ekonomiko orokorrerako edo zehazki upeltegietarako erabiliko den lurzoru (hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri) gisa jotzeko.

- Lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik kutsatutako lurzoruak berreskuratzeari lehentasuna ematea.
- Hirietan bereizketa eta sakabanatzea saihestea jendea ahalik eta gutxien mugiarazita.
- Ahal den neurrian, gaur egun garatu gabe dauden eta 100 urteko itzulera epeko uholdeak jasateko arriskua duten eremuen artifizializazioa saihestea.
- Hondakin gutxiago sortzea.
- Hiri sistemetan baliabide naturalak aurrezte.
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- 2010erako berotegi efektuko gas gutxiago isurtzea.
- Upelategiak kokatzeko proiektuak idatzi aurretik, horiek ingurune naturalean izango duten eraginari buruzko azterlan xehatuak egin beharko dira. Helburua izan daitekeen ingurumen eragina xehetasun handiagorik zehaztea da, kasu zehatz bakoitzean behar izan daitezkeen neurri zuzentzaile egokiak ezartzearekin batera.
- Upelategien kokapenak lehen sektoreari ekar diezazkion eraginaren azterketa, eta, horrelakorik badago, konpentsazio programak.
- Jarduerak sortzen dituzten zortasunen definizioa (errepideak, urbanizazioak, eta abar), eta zona horietako erabilerak eta jarduerak arautzea.
- Neurri zuzentzaile zehatzak eta horiek betetzen direla bermatzeko jagoletza programa garatzea, aldaketa honetako irizpideekin bat etorritik.
- Jarduerak diseinatzekoan kontuan izatea jabari publiko hidraulikoari ekarritako eragina ahalik eta txikiena izatea.
- Upelategi proiektuek Ingurumena eta Paisaia Lehengoratzeko Proiektua izango dute, lan eta jardura osagarriak kalteturiko eremuen gaineko azterketa jasoz. Horien artean hurrengoak egongo lirateke: instalazio lagungarriak, sorrera berriko obra hondakindegia edo bestelako hondakindegia, obretan erabili beharreko materialak ateratzeko zonak, azaleko isurketen uren drainatze sarea, obrarako sarbide eta bide irekiak, eta abar.
- Proiektuak, gainera, upelategia eta eraikuntza osagarriak paisaian integratzeko egin behar diren jarduerak jasoko ditu, arreta berezia emanez forma topografikoei egokitzeko diseinu neurriei, ibaien ertzei edo dagoen landarediari.
- Birlandaketako proiektuak.
- Orokorrean, aldi baterako instalazio lagungarriak eta instalazio lagungarri iraunkorrak eraldatutako zonetan edo interesik ez dutenetan kokaturiko dira, ingurumenaren aldetik balio berezia duten zonak saihestuz: landaredi interesgarria izateagatik, paisaiaren aldetik edo ikusmenarenetik kalitate altuko zona ahulak izateagatik, drainatze naturaleko ibilguetan egoteagatik, hidrogeologikoki sendoak ez diren eremuetan egoteagatik, gaitasun agrologiko altuko lurzoruak izateagatik, faunarentzat babesleku izateagatik, baso zona garrantzitsuetan egoteagatik, eta abarrentzat.
- Eguzki-atzitzailak ezartzea onargarria izango da, betiere eraikinak edo/eta haren inguruneak izan dezakeen babes mailarekin bateragarria bada.
- Upategiak eraldatzea onargarria izango da, betiere eraikinak eta haren inguruak izan dezaketelako babes mailarekin bateragarria bada.

7. LPPAREN ALDAKETAREN ERAGINAK GAINBEGIRATZEKO INGURUMEN PROGRAMA

7.1. KONTROL HELBURUAK ETA JARRAIPENA

Aldaketak planteaturiko proposamenaren eraginen gainean egindako Ingurumena Gainbegiratzeko Programa honela ulertu behar da: batetik, ezarritako ingurumen helburuak eta irizpideak betetzen direla bermatzen duen dokumentua da; bestetik, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanak ezarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna eta betetzea kontrolatzen dituen izango da. Helburua aldagakaren zehaztapenen ingurumen ondorioak ezagutzea da.

Hori dela eta, lehenik eta behin, kontrolatu egin behar da etorkizunean LPParen eremuan upeltegiak ezartzeko garatzen diren proiektuak azterlan honetako 6. idatz zatian adierazitako irizpide eta gidalerroei jarraiki diseinatzen direla eta horiek betetzen direla.

Programak, gainera, aurreikustea zaila den eraginaren kopuru zehatza egiaztatzea ahalbidetzen du, kasu honetan gertatzen den moduan, horiek ebaluatzeko aukera ematearekin batera neurri zuzentzaile berriak artikulatze aldera. Gainera, prozedura honen pean jarritako proiektuen ingurumen eragineko etorkizuneko azterlanen edukia hobetzeko informazio iturri garrantzitsua da. Halaber, hasiera batean aurreikusi ez ziren eraginak sumatzeko balio du.

7.2. JARRAIPENAREN XEDE IZAN EBHAR DIREN ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA

Ikuskatu behar diren alderdi zehatzak zehaztea egin behar zaila da aldaketa honen kasuan, proposamenak arautzaileak direlako bakarrik eta espazioan definitzea falta delako. Ondorioz, kontuan izan beharko diren alderdi garrantzitsuenen zerrenda jaso da:

- Babes Bereziaren kategorian sartutako enklabeek ekarritako eragina.
- Eremuan agertzen diren ibilguen jabari publiko hidraulikoari ekarritako eragina.
- Kantabriako mendilerroko Unitate Hidrogeologikoari ekarritako eragina.
- Erdiguneko mazelen eta muinoen higadura prozesuak kontrolatzea.
- LPParen Ingurumena Hobetzeko Eremua kategorian sartutako zonei ekarritako eragina.
- Upeltegiak jartzeko proiektuek adierazitako ingurumen helburua betetzen dutela eta 6. idatz zatian erantsitako irizpide eta gomendioak erabiltzen dituztela bermatzea.

7.3. JAGOLETZA PROGRAMA

Ingurumenaren gaineko Jarraipena eta Jagoletza egiteko proposatzen den plana adierazle gisa hartu behar da. Hasieratik ezin dira aldaketa proposamenaren garapenean jarraipenaren xede izan beharko diren berariazko parametro zehatzak ezarri, eta beharrezkoa izango da horiek azterlan zehatzetan ezartzea.

Orokorrean, Jagoletza Programaren edukia honakoa izango da:

- **LPParen araudia betetzen dela zaintzea:** Eremu funtzionala eratzen duten udalerriek beren araudia aldaketa honenera egokitzen dutela egiaztatuko da, udal planeamenduak idazterakoan eta hiri lurzoruko edo lurzoru urbanizagarriko eremuak mugatzerakoan upeltegiak jartzeko edo horiei jarduera lizentziak emateko.

Gai honen inguruko jarraipen adierazleak honako hauek izango dira:

- Eremu Funtzionalean aldaketa honen aurretik eta ondoren upeltegiak erabiltzeko hiri lurzoruen edo lurzoru urbanizagarrien poltsa duten herri kopurua.
- Hiri lurzoruan, lurzoru urbanizagarrian edo urbanizaezinean ezarritako upeltegi kopurua aldaketa honen aurretik eta ondoren.
- Arabako Foru Aldundia izango da bi adierazle horien ardura izango duen erakundea eta urteroko jarraipena egin beharko du.
- Upeltegiak izateko eman diren lizentzia berriek araudiarekiko duten egokitzapen maila. Udalek izango dute horren ardura urte bateko aldizkakotasunarekin.

Gainera, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea (EHLAB) koordinazio organoa da ingurumenaren alorrean, eta LPPan sartutako zehaztapen lotesleak nahiz upeltegien jarduera garatzeko egindako gomendioak betetzen direla zaindu beharko du.

- **Landaredian jazotako aldaketen gaineke kontrola:** landare komunitate ezberdinek betetako azaleran jazotako aldaketak zainduko dira, batez ere LPPak mugatutako Babes Bereziko enklabeak. Halaber, landarediaren estaldurari ekarritako aldaketak eta jardueren eraginak zainduko dira. Upeltegi berriak toki horietan jartzeak ekar dezakeen eraginaren gaineke jarraipena egingo da, egoera berean mantentzen dela bermatzeko eta egungo ezaugarrien aldaketa ekarriko duten jarduerak saihesteko.

Gai honen inguruko jarraipen adierazleak honako hauek izango dira:

- Upeltegiak ezarri izanagatik kaltetu den landaredi naturalaren azalera.
- Upeltegiak ezarri izanagatik kaltetu den Bereziki Zaindu beharreko lurzoruen azalera.

Udalek izango dute jarraipen horren ardura eta urte batean behin egingo dute.

- **Paisaia kontrolatzea:** upeltegien eta eraikin osagarrien instalazioaren ondotik etorritako paisaia eraldaketak aztertuko dira.

Gai honen inguruko jarraipen adierazleak honako hauek izango dira:

- Eremu funtzionalaren lurralde guztian dauden upeltegi berrien kokalekua zehaztea.
- Kantabriako mendilerroan ezarritako upeltegiak.
- Arabako Foru Aldundia izango da bi adierazle horien ardura izango duen erakundea eta urteroko jarraipena egin beharko du.

Aurreikusitako upeltegi berriak paisaiari egokitzea (araudiaren 34. artikulua f atalean zehaztutakoaren arabera). Udalek izango dute horren ardura urte bateko aldizkakotasunarekin.

- **Uraren gaineke kontrola:** etorkizuneko upeltegiek lurraldeko ur ibilguetako landarediari eta faunari ekar diezazkieketen eraginen gaineke jarraipena egitea gomendatzen da. Gauza bera gomendatzen da uren kalitaterako.

Gai honen inguruko jarraipen adierazleak honako hauek izango dira:

- Ibilguen inguruetan dauden upeltegiak.
- Ur bazterretako landaredian duen eragina.

Arabako Foru Aldundia izango da horren ardura izango duen erakundea eta urteroko jarraipena egin beharko du.

- **Erabilera publikotik eratorritako kalteen gaineko kontrola:** upeltegietara egindako bisiten gaineko kontrola egingo da, erabilera publikoak ekarritako eraginak zehazteko, adibidez landaredian, lurzoruan, zaborrak bertan uztean, eta abar.

Gai honen inguruko jarraipen adierazleak honako hauek izango dira:

- Upeltegietara doan bisitari kopurua eta bertara heltzeko bidea.
- Bisitari ugari bertaratzeagatik upeltegien inguruan sortu diren eraginak.

Udalek izango dute jarraipen horren ardura eta urte batean behin egingo dute.

- **Lurzoruaen artifizializazioaren kontrola:** Eremu Funtzional guztian zehar, upeltegiak erabiltzeko artifizializatu den azaleraren jarraipena egingo da. Jarraipenaren adierazlea, beraz, aldaketaren aurretik eta ondoren upeltegi gisa erabiltzeko artifizializatu den azalera izango da. Udalek izango dute jarraipen horren ardura eta urte batean behin egingo dute.
- **Ingurumen eraginaren ebaluazioa:** planteatutako ingurumen kalitateko helburuak lortzeko, beharrezkoa da indarreko legedian bildutako ingurumen prebentzioko teknikak betetzea. Horiek instalazioen eta eraikinen eraikuntzaren planetan, programetan eta proiektuetan egin beharreko jarduera multzoa eratzen dute. Helburua ezarpenak ingurumenari ekar diezaiokeen eragina saihestea da. Ingurumen prebentzio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorrean definituriko Ingurumen Eraginaren Ebaluazioaren baliabideen bitartez egingo da.

3/1998 Legearen I. Eranskinean eta 9/2006 Legearen zerrendaturiko jardueretarako hurrengoak betetzen direla bermatu beharko da: Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Prozedura, Ingurumen Eraginaren Banakako Ebaluazioa eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Erraztua. Halaber, gaian eskudun diren erakundeek kasuan kasuko Ingurumen Txostena idatzi beharko dute, haren pean jarritako jardueren garapenari prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak zehazteko.

LPParen aldaketa proposamenetik eratorritako jarduera batzuk prozedura hauen pean jarri beharko dira adierazitako Legean ezarritakoari jarraiki. Jarraian zehazten direnak izango dira:

Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioari lotutako jarduerak (3/1998 Legearen 46. artikulua eta I.A eranskinaren eta 9/2006 Legearen 3. artikulua arabera)

- Udal planeamendu guztiak (Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak eta Arau Subsidiarioak) eta lurzoru urbanizaezina kaltetzen duten haren aldaketak.

- Plan bereziak eta horien aldaketak, lurzoru urbanizaezinari eragiten dietenean (upeltegientzat).

Ingurumen Eraginaren Banakako Ebaluazioari lotutako jarduerak (47. artikulua eta I.B eranskinaren arabera)

- Alkohola eta edari alkoholduak fabrikatzeko industria instalazioak eta azukre plantak, guztia edo zati bat ingurumenaren aldetik zona sentikorretan dagoenean.

Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Erraztuari lotutako jarduerak (49. artikulua eta I.C eranskinaren arabera)

- Ostalaritzako jarduerak.

Gai honen inguruko jarraipen adierazleak honako hauek izango dira:

- Ingurumen ebaluazioaren prozedura ezarri zaien planen kopurua.
- Planek edota programek ingurumen irizpideekiko duten egokitzapen maila.

Egoera bakoitzean eskumena duen ingurumen erakundeak izango du horren ardura eta jarraipena urte bateko aldizkakotasunarekin egingo da.

8.- LABURPEN DOKUMENTUA

Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioa plan eta programek eta haien aldaketek ingurumenari ekar diezazkioketen eraginaren azterketa eranstean duen prozedura da. Biasteriko (Arabako Errioxa) Lurraldeko Plan Partzialaren aldaketa prozedura honen pean jarritakoa da, 9/2006 Legearen eta 183/2003 Dekretuaren ezarpenei jarraiki.

8.1. ALDAKETAREN HELBURUEN ETA HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA

Aldaketa honen aplikazio eremua Biasteriko (Arabako Errioxa) Eremu Funtzional osoa da, eta haren zehaztapenak indarren jarriko dira behin betiko onarpena duen dekretua argitaratzen denean.

Aldaketa honen helburu nagusia Eremu Funtzionalaren lurraldean dauden upeltegien egungo araudia egokitzea da, horiek kokatzeko irizpide berriak erantsiz. Eremuko jarduera tradizionalaren banaketa baliabide naturalen berezko paisaien babesarekin bat etortzea da lortu nahi dena, erabilera eta jarduera muga batzuk ezarri horiek babesteko. Labur adieraztearren, zera da proposatzen dena:

- Eremu funtzionaleko udalerri guztietan poligonoak egotea ahalbidetzea hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, eta horiek gai izatea eraldaketako instalazio txikiak hartzeko.
- Eremu osorako modu homogeen bideratu eta arautzea poligono horietan koka ezin daitezkeen eta lurzoru urbanizaezina behar duten ekimen guztiak.

Aldaketak ez du hautabiderik planteatu, kontua ez da jarduera bati kokaleku zehatza ematea, baizik eta lurralde osoan kokatzeko jarraibideak ezartzea.

Erantsi diren aldaketak hurrengo puntuetan laburbil daitezke:

- a) Bi instalazio motaren bereizketa ardo ekoizpenaren arabera: eraldaketako instalazio txikiak (ekoizpena: ≤ 250.000 litro/urteko) eta upeltegi handiak (ekoizpena: ≥ 250.000 litro/urteko).
- b) Upeltegiarentzako eta, funtsean, eraldaketako instalazio txikiarentzako lehentasunezko kokalekua hiri lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak izango dira. Horretarako, udal planeamenduak lurzoruak kalifikatu beharko du jarduera ekonomiko orokorarentzat edo berariazkoa ezarri bestela upeltegiarentzat. Lehenengo kasuan, neurriek Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruak Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzen ALPan ezarritakoari jarraituko diote; bigarrenean, berriz, justifikatu egin beharko da eraldaketako instalazio txikiarentzako aurreikus daitezkeen eskaria betetzen dela.
- c) EKTa (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) betetzearen eskakizuna, energiaren kontsumoa efizientea izateari dagokionez eta instalazioei emango zaien erabilaren arabera. Gainera, instalazioetan behar izango den energia guztiaren beste zati garrantzitsu bat energiak aprobetxatuz, aldi berean sortzeko prozesuen bitartez edo eraikinekoa ez den beroa berreskuratzen instalazioetatik etortzeko hondakin energia iturrien bitartez eskuratuko da.
- d) Kontuan izango dira paisaiako irizpideak upeltegiak jartzeko, adibidez: hiri egitura edota hiriguneen irudia ez eraldatzea (hiri lurzoruan), lursailen profil naturalean

eraldaketarik ez egitea edo + 600 m-ko kotaren gainetik upeltegien arteko distantzia ≥ 500 m-koa izan beharko dela kontuan hartzea (lurzoru urbanizaezinean jartzen direnentzat), Kantabriako mendilerroa mantentze aldera.

- e) Lotetsitako gutxieneko mahasti azalera 8 ha-koa izango da instalazio txikientzako, eta 12 ha-koa, berriz, “upeltegi handientzako” eta erabilera osagarriak (ostalaritza, eta abar) eransten dituzten “eraldaketa instalazio txikientzako”. Bi kasuetan, lurzati hartzailea 2 ha-tik 0,5 ha-ra igarotzen da lehenengo kasuan, eta ha 1era bigarreanean.
- f) Beharrezkotzat ezartzen da lurzati hartzailea jabetzako edo jabari osoko tituluarekin jartzea. Lurzati osagarriak jabetzako, alokairuko edo usufruktuko tituluarekin aurkeztu ahalko dira, nahiz eta beharrezkoa izango den 10 urteko lotura izatea eta Jabetza Erregistroan inskribaturik egotea. Hemendik kanpo geratuko lirateke beste upeltegi batzuei uztartutako lurzatiak.
- g) Eraikigarritasuna zabaldu egiten da $0,2 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ -tik $0,3 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ -ra, sestra gaineke balioak direla argituz. Izan ere, sotoak ez dira zenbaketarako kontuan hartzen.
- h) Aparkalekuei dagokienez, ezarri egiten da EKTaren irizpideak jarraituko direla, erabilera publikoko bulego eta lokalen kasuan aurreikusitako pertsonen okupazioari jarraiki. Halaber, autobusentzako aparkaleku osagarri bat beharrezkoa izango da 3.000 m^2 bakoitzeko.
- i) Lurraldearen Zatiko Plana indarrean jarri aurretik bertan zeuden upeltegientzat baimendutako jarduerak arautu dira. Babes bereziko lurzoruetan kokatzen direnei ez zaizkie erreforma edo zabalkuntza jarduerak baimenduko (mantentze lanetarako behar direnak). Ordea, bestelako lurzoruetan kokatzen direnek egun duten eraikitako azalera % 25 handitu ahal izango dute eta, hala, eraikitzeagatik lurzatiaren % 50 hartu ahal izango dute gehienez.
- j) Egundun beste erabilera batzuetarako utzitako pabiloiak upeltegi bihurtzeko aukera hausnartu da, betiere, babes bereziko lurzoruetan kokatzen ez badira. Halaber, beharrezkotzat jotzen da eraldaketako instalazio txikietarako zehaztutako eraikuntza parametroak betetzea upeltegiak izan ez eta lurzoru urbanizaezinean kokatu nahi duen nekazaritza erabilerako beste edozein eraikuntzaren kasuan (mahastien azalera lotetsiari buruzkoa izan ezik).

I. eranskinean indarreko araudiaren eta aldaketa proposamenaren alderaketa jasotzen da, aldatutako testua itzal bidez nabarmenduz.

8.2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARREKINTZAREN AZTERKETA

Indarreko LPPa idazteko kontuan izan ziren indarrean zeuden lurralde antolamenduko dokumentuak edo izapidetze fasean zeudenak, eremuan eragina izan bazezaketen. Halaber, ingurumenaren alorreko xedapenak eta legedia kontuan izan ziren. Aldaketa honetarako egindako berrazterketatik ondorioztatu da hark ez duela dokumentu hauen zehaztapenei eragingo dien aldaketarik planteatu.

Bestalde, aldaketa erabat egokitzen zaio Ingurumen Esparru Programako “**9. helburu estrategikoa: Lurraldearen erabilera orekatua lortzea**” izeneko helburu honi. Izan ere, jarduera zehatza ezartzearen antolamendua da egin nahi duena, horretarako lehentasuna emanaz hiri lurzoruari edo lurzoru urbanizagarriari, eta lurzoru urbanizaezina arautuz ingurumen eta paisaia irizpideekin.

Halaber, kontuan izan dira espazioen babeserako dokumentuak, desagertzeko zorian dauden espezieen kudeaketa planak nahiz eremuko udalerri guztietako planeamenduak.

8.3. ALDAKETAK ERAGINDAKO EREMUAREN GAINEKO INGURUMEN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

3. kapituluaren aldaketaren ingurumen eraginaren azterketa, diagnostikoa eta balorazioa biltzen dira. Hari heldu egiten zaio xehetasun gehiagoko informazioa eskuratzeko. 1. planoan agertzen diren ingurumen elementu baliotsuak aurkeztu dira:

- o Toloño-Kantabria mendilerroa.
- o Kripango, Lezako eta Navaridaseko artadiak
- o Lezako erkameztia
- o Dueñaseko pinudia
- o Labastidako oihanpeak
- o Esperaleko eremua (La Pobeda), Lapuebla de Labarcan
- o Lasernako abariztia
- o Mantibleko tamarizak
- o Laguardiako aintzirak (Carralagroño, Carravalseca, Musko eta Prao de la Paulgo urtegia)
- o Ebro ibaia EBIL (ES2110008)
- o Navaridaseko aintzira
- o Ebroren Terraza Sistema eta ibaiadar nagusiak
- o Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonak: eremuko ibai ibilgu guztien eta Kantabriako mendilerroko akuiferoen jabari publiko hidraulikoa.

Eremuak ingurumen eta paisaia balioak ditu bere horretan; azpimarratzekoa da, gainera, dagoen natura aniztasuna eta EAEko gainerako tokien aldean dituen berezitasunak, eremu mediterraniarrekoa izateagatik.

Sumatutako ingurumen arazo nagusiak eta zonak eskaintzen dituen aukerak, beti ingurumenaren ikuspegitik ari garela kontuan hartuta, honakoak dira:

Arazoak

- o Higadura
- o Landaredi naturalaren eta landaketa tradizionalen atzerapausoa, ardogintzan espezializatzearen mesedetan
- o Suteak eta kontrolik gabeko erreketak
- o Obra hondakindegia eta bestelako hondakindegia ugaritzea
- o Ebroko uren kalitatea txarra da orokorrean
- o Erauzketa jarduerak
- o Paisaiaren gaineko eraginak
- o Arriskuko foku teknologikoak
- o Akuiferoen ahultasuna
- o Uholdea

Aukerak

- o Interes altuko eta kontserbazio egoera onean dauden enklabe naturalak agertzea. Horiek mantentzearekin eskualdeko paisaia berezitasuna anizten eta aberasten da.
- o Landaketa zonetan geratzen den landaredi naturala mantentzea, lurraldearen egonkortasun osoa bermatzeko.
- o Paisaia oso berezia eta erakargarritasun handikoa; bertan, nagusi dira mahasti landaketak. Gaur egun nekazaritzaren alorreko ekoizpena eta oreka ekologikoa bateratzea ez da luxua, beharra baizik.

8.4. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN HAUTABIDEEN INGURUMEN AZTERKETA. HARTUTAKO IRTENBIDEEN JUSTIFIKAZIOA

Aldaketa idatzi den bitartean, bi aukera hausnartu dira:

- c) Indarreko LPParen araudia mantentzea (0 hautabidea).
- d) Araudia aldatzea sektorean esku hartzen duten erakunde eta entitateen eskaerak biltzeko.

0 hautabideak indarreko LPParen zehaztapenak mantentzea ekarriko luke. Proposamenarekiko aldeak hurrengo puntuetan laburbil daitezke:

- h) Ez da alderdik zehazten bi instalazio moten artean: eraldaketako instalazio txikiak, "urteko ardoaren" upeltegiak eta upeltegi handiak.
- i) Ez da zehazten zein alderditan izan behar diren kontuan energia kontsumorako eraginkortasun zehaztapenak.
- j) Ez da paisaiaren inguruko irizpide zehatzik eranstean upeltegiak ezartzeko.
- k) Lotetsitako mahastiaren eta lurzati hartzailearen gutxieneko azalerak (10 ha eta 2 ha hurrenez hurren) berdina dira edozein upeltegi motarentzat, eta ez da lurzati hauetarako eskatzen den lotespen mota ezartzen.
- l) Eraikigarritasuna $0,2 \text{ m}^2\text{c}/\text{m}^2$ -koa da edozein upeltegi motarentzat. Ez da zehazten zein baldintzatan.
- m) Aparkalekuen hornidurak ez du kontuan hartzen upeltegiko eraikinei emango zaien erabilera.
- n) Ez da zehaztapenik egiten LPPa indarrean jarri aurretik bertan zeuden upeltegientzat, edo alde aurretik zeuden nekazaritzako pabiloiak upeltegi bihurtzeko.
- o) Upeltegia ez den nekazaritzako erabilera duten beste eraikuntza batzuk ezartzeko ez da zehaztapenik jasotzen, horiek lurzoru urbanizaezinean jarri nahi direnerako.

Zonako erakunde eta entitate ezberdinetatik eskatu den bezala, zehaztapen hauek "eraldaketako instalazio txikiak" (urteko ardoaren upeltegiak) diskriminatzen dituzte "upeltegi handien" aldean, ez baita batzuen eta besteen artean bereizketarik egiten.

Aldaketan sartutako proposamenek ez dakarte bere horretan ingurumen eraginik. Upeltegiak jartzea garatzen duten proiektuak izango dira ingurumen eraginak sortizaketanak, bertan ezarritako zehaztapenak betetzetik eratorrita.

Aldaketaren zehaztapenen ingurumen eraginak honakoak dira:

- **Eraldaketa instalazio txikien eta upeltegi handien arteko bereizketa.** Ez du ingurumen eraginik ekartzen.
- **Eremu Funtzionaleko udalerriek hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri hutsak izan behar dituzte upeltegiak jartzeko.** Eragina lurzoru horien kokalekuaren arabera izango da. Hura udal planeamenduek definituko dute eta orduan izango da eragina aztertzen den unea. Edonola ere, LPPan horien kokaleku eta garapenerako adierazitako ingurumen irizpideak bete egin beharko dira, horien artean hiri egituraren eraldaketa edota hiriguneen irudiarena ekarri ezin izanez.
- **Energia berriztagarriak erabiltzea.** Eraikuntzaren Kode Teknikoa betetzearen zehaztapena bat dator Ingurumen Esparru Programarekin, eta, beraz, ez du ingurumenaren aldetiko eraginik.
- **Eraikinen paisaia egokitzapena.** Proposamenak bi gauza lortu nahi ditu: batetik, Kantabriako mendilerroa babestea, oinean upeltegien eraikuntza mugatuz; bestetik, "mendixka" artifizialak agertzea saihestu nahi da, hain lurralde bereziko paisaiaren kalitatea eraldatzen dutelako. Hori dela eta, oso positibotzat jotzen dira ingurumenaren ikuspegitik. Etorkizunean upeltegiak jartzeko egiten diren proiektuetan aztertu beharko da sortuko den eragina, eta, edonola ere, irizpide horiek betetzen direla bermatu beharko da.
- **Mahasti landaketaren azalera lotetsia.** Lurzati lotetsiaren eta lurzati hartzailearen eskakizun berri horiei esker, posible da "eraldaketa instalazio txikiek" upeltegi handien antzeko baldintzetan jartzeko aukera izatea, betiere, ustategien ezaugarriekin bat etorritik.
- **Sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna 0,3 m²c/m²-koa izango da.** Upeltegien benetako beharrekin bat egiten du. Zehaztu egiten da eraikigarritasun hori sestra gainekoa dela, sotoak zenbatu ez daitezela.
- **Aparkalekuen zenbaketa.** Zehaztapen berriarekin ez da alferrik horrenbeste azalera okupatzen, araudia aplikatzerakoan gertatzen zen bezala.
- **Aldez aurretik dauden upeltegiak.** Zehaztapen berri honekin egun upeltegiren bat duten babes bereziko eremuak egungo ezaugarriak mantenduko dituzte, eta, horrela, horiei ahalik eta kalte txikiena eragiten zaiela bermatuko da.
- **Dauden pabiloak eraldatzea.** Horrela, sorrerako erabilerarako jada erabiltzen ez diren eraikinak berreraikuntza ahalbidetzen da, lurzoru urbanizaezinean eraikin berriak sortzea saihestuz.
- **Nekazaritzako beste eraikuntza batzuk.** Lurzoru urbanizaezinean kokatu nahi duen eta upeltegikoa ez den nekazaritza erabilerako beste edozein eraikuntza arautzea oso positibotzat jotzen da, horrelako eraikinak eremuan ugaritzea saiheste aldera.

Aldaketan adierazitako helburuetatik zera ondorioztatzen da:

- Aldaketak bermatu egiten du enklabe naturalak nahiz eremuko paisaia balioak eta balio zientifiko eta kulturalak babestu egingo direla, babeserako erabilera eta jarduera mugak ezarritik.
- Udal planeamenduei eskatu egiten zaie upeltegiak kokatzeko hiriguneen inguruko lurzoruak muga ditzatela, eta, horrela, lurzoru urbanizaezina okupatzea saihestu.
- Kontuan izan dira bereziki babestutako lurzoruei eraginik ez ekartzea bezalako ingurumen faktoreak eta Plan Berezia idazteko beharra.

Horregatik guztiagatik, aldaketa proposamena oso positibotzat jotzen da, upeltegiaren erabilera arautzeari dagokionez homogeneotasuna sartzen duelako eta, horrela, eskualde mailako ingurumena hobetzea lortzen da.

Aldaketak ez du jarduera zehatzik planteatzen, horrelako jardueren ezarpena modu orekatuan eta udalerrri bakoitzeko beharrekina bat etorriz egiten dela bermatzea du xede, besterik gabe. Halaber, ingurunearekiko ahalik eta sentsibiltate handiena izatea ezartzen da. Upeltegi baten kokapenerako sortzen diren proiektuak xehetasun osoz aztertu beharko dira.

8.5. SUMATUTAKO ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Aldaketaren helburuek errespetua diete ingurumena eta paisaia babesteko irizpideei, beraz, ikuspegi horretatik ez da eragin negatiborik aurreikusi. Orokorrean esan daiteke aldaketak planteaturiko proposamenek ez dutela eraginik planteatzen ingurune naturalerako, eta eragin maila ertain baxua izango dute, hau da, inguruneke jatorriko baldintzak lehengoratzeko beharrezkoa izango da zenbait kasutan neurri zuzentzaile batzuk aplikatzea.

Inguruneke alderdi ezberdinen gaineko eraginak positibotzat jo dira kasu gehienetan, aldaketak ingurumen eta iraunkortasun irizpideak izan dituelako kontuan indarreko LPParen aldean araudi aldaketen proposamenak egiteko. Hori dela eta, bateragarritzat jotzen dira proposatutako araudiaren aplikaziotik eratorritako jarduera guztiak, eta proiektu zehatzak izango dira xehetasun gehiagoz horiek zehaztuko dituztenak eta, beharrik badago, neurri zuzentzaileak erantsiko dituztenak.

Aldaketa proposamenaren eragina positibotzat jotzen da hurrengo arrazoiengatik:

- o Upeltegiak lurzoru urbanizaezinean kokatzeko jarri diren irizpideak oso egokitzat jotzen dira kontserbazioaren eta biodibertsitatearen ikuspegitik aztertuta.
- o Bermatu egiten da LPPak edo udal planeamenduak mugaturiko babes bereziko eremuei kaltea ekarriko ez zaiela. Izan ere, espresuki debekatzen du upeltegiak horrelako lurzoruetan kokatzea.
- o Kontuan hartzen da upeltegiak paisaian integratzea lortzea beharrezkoa dela, bai horiek lurzoru urbanizaezinean kokatzen direnean, bai hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarrian kokatzen direnean. Beti horiek paisaiari egokitzearen alde egiten da, ahalik eta kalitate handiena bermatuz hirigintza baldintzetan eta tipologia eskualdeari egokitzuz ingurunean hobeki integratzen dela bermatzeko.
- o Upeltegiak kokatzeak ezin du ez hiri egitura, ez hiriguneen irudia aldatu, eta zentzu horretan hiriguneetan kalitate handiagoa lortzearen aldeko apustua egiten du.

Gainera, etorkizunean upeltegiak kokatzeko proiektuak izango direla ezartzen du hurrengoek buruzko alderdiak zehaztuko dituztenak:

- o Hondakinak sortzea edo kutsadura areagotzea.
- o Kalitate agrologiko altueneko lurzoruei eraginik ez ekartzea.
- o Eratorritako arriskuak; ezarri egiten da proiektuek azterketa geoteknikoa erantsi beharko luketela, arazo horiek dauden edo ez zehazteko.

8.6. NEURRI BABESLEAK, ZUZENTZAILEAK ETA KONPENTSAZIOZKOAK

6. kapituluak hainbat neurri eta gomendio biltzen ditu, oso orokorrak, eta kontuan izan beharko dira bai upeltegien etorkizuneko proiektuak idazterakoan, bai udal-plangintzako dokumentuetan. Oso izaera orokorreko multzo gisa hartu behar dira, jarduera honek

Eremu Funtzionalean izan dezakeen ingurumen egokitzapen onena bermatzen duten neurrien multzo gisa hain zuzen. Horien bitartez lurraldean etorkizunean kokatzen diren upeltegiek ekarritako ingurumen kostua saihestea edo gutxitzea litzateke xedea.

Neurri horiek hurrengo alderdiei heltzen diete: geratzen den landaredi naturala mantentzea, dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen erabilerari lehentasuna ematea, kutsatutako lurzoruak berreskuratzea, urpetzeko arriskua duten eremuak saihestea, hirietan bereizketa eta sakabanatzea ekiditea, hondakin gutxiago sortzea, sortutako eraginak aztertzea, lehen sektoreari ekarritako eraginak aztertzea, jarduerak eragindako zortasunak definitzea, jagoletza programa garatzea, jabari publiko hidraulikoari eraginik ez ekartzea, ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proiektuaren beharra eta birlandaketako proiektuak, eta abar.

Edonola ere, Neurri zuzentzaileen aplikazioa xehetasun osoz definitu beharko da upeltegiak kokatzeko garatzen diren berariazko proiektuetan.

8.7. INGURUMEN JAGOLETZAKO PROGRAMA

7. kapituluaren Ingurumen Jagoletzako Programa lantzeko jarraibideak ezartzen dira. Helburua aldaketaren zehaztapenen ingurumen ondorioak ezagutzea da.

Orokorrean, hurrengo alderdiak kontrolatu beharko dira:

- o Etorkizunean upeltegien ezarpena garatzen duten proiektuak azterlan honetan adierazitako irizpide eta jarraibideen arabera diseina daitezela eta horiek bete ditzatela.
- o Eremu funtzionala eratzen duten udalerriek beren araudiak egoki ditzatela aldaketa honenera udal planeamenduak idazterakoan edo horientzako jarduera lizentziak ematerakoan.
- o Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak zehaztapenak nahiz gomendioak betetzearen alde egin dezala, upeltegien jarduera garatzeari dagokionez.
- o Landaredian jazotzen diren aldaketak kontrolatzea, batez ere LPPak mugatutako Babes Bereziko enklabeetan.
- o Paisaia kontrolatzea: upeltegien eta eraikin osagarrien instalazioaren ondotik etorritako paisaia eraldaketak aztertuko dira.
- o Ur etorrien gaineko kontrola: lurraldeko ur etorrietako landarediari eta faunari ekarritako eraginaren gaineko jarraipena egitea, uren kalitatearen gaineko kontrola bezalaxe.
- o Erabilera publikotik eratorritako kalteen gaineko kontrola: upeltegiara egindako bisiten gaineko kontrola egitea, erabilera publikoak ekarritako eraginak zehazteko, adibidez landaredian, lurzoruan, zaborrak bertan uztean, eta abar.
- o Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa: Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Prozedura, Ingurumen Eraginaren Banakako Ebaluazioa eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Erraztua betetzen direla bermatu beharko da, 3/1998 Legearen I. Eranskinean zerrendaturiko jardueren kasuan.

9. DOKUMENTAZIO KARTOGRAFIKOA

1. PLANOA.- INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK 1

2. PLANOA.- INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK 2

I. ERANSKINA.- ALDERAKETA INDARREKO ARAUDIAREN ETA ALDAKETA PROPOSAMENAREN ARTEAN (LPParen 34. ARTIKULUA)

INDARREKO TESTUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
34. artikulua.– Mahastizaintza eta ardogintza.Upeltegiak.	34. artikulua.– Mahastizaintza eta ardogintza.Upeltegiak.
	1.Ikuspegi sektorialetik bi instalazio mota bereizten dira, eta horiei artikulua hau aplikatu beharko zaie:
	a) “Eraldaketako instalazio txikiak” (mahastizain profesionala, urteko ardoaren upeltegiak eransten dituen kontzeptua), ardo ekoizpena 250.000 l/urteko edo gutxiago denean. Funtsean eraldaketako eta biltegiatzeko industriak dira.
	b) “Upeltegi handiak”, ardo ekoizpena 250.000 litro ardo/urteko baino gehiago denean, eta, normalean, ardoaren ekoizpenaren inguruan beste jarduera osagarri batzuk eransten dituzte (ostalaritza, eta abar).
1. Upeltegiak ezartzeko irizpideak edo orientabideak, udal-plangintzak lurzoru-motaren arabera garatu behar dituenak, hauek dira:	2.Upeltegiak ezartzeko irizpideak edo orientabideak, udal-plangintzak lurzoru-motaren arabera garatu behar dituenak, hauek dira:
1.1. Hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak. Upeltegi berriak ezartzeko lehentasunezko lurzoruak dira. Horietan, honako irizpide hauek aplikatuko dira:	2.1. Hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak. Upeltegi berriak ezartzeko lehentasunezko lurzoruak dira, eta funtsean “eraldaketako instalazio txikiak” dira. Arrazoi hori dela eta, eremu funtzionaleko udal-eremuek hiri lurzorua edo lurzoru urbanizagarri hutsa izan beharko dute, horiek ezartzea posible izan dadin. Lurzoruei hurrengo irizpideak aplikatuko zaizkie:
a) Ekonomia-jarduera orokorretarako lurzoru-kalifikazioa edota upeltegietarako berariazkoa edo xehetasunezkoa izango dute.	a) Ekonomia-jarduera orokorretarako lurzoru-kalifikazioa edota upeltegietarako berariazkoa edo xehetasunezkoa izango dute.
	b) Neurriak, jarduera ekonomiko orokorreko poligonoen kasuan, Ekonomia Jarduera eta Merkataritza Horniduretarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren LPPan ezarritakoari egokituko zaizkio, eta, upeltegietarako berariazko kalifikazioa duten poligonoetan, “eraldaketako instalazio txikiak” aurreikus daitezkeen eskaria estaltzen dela justifikatu beharko da. Aurreikuspena udal mugartean dagoen mahasti landaketa kopuruaren arabera egingo da.
b) Jakina, upeltegi-lurzoruak (batez ere hiritarrak) hiriguneetatik gertu egoteak ezin du ekarri horien hiri-egitura nahiz irudia aldatzea. Horregatik, upeltegiak hiriguneen inguruetan kokatzeko irizpide murriztaileak ezarri beharko dira; are gehiago, horiek barne hartzen dituzten eraikuntzak egitura hori aldatzeko moduko dimentsioetakoak badira.	c) Upeltegi berriak jartzeak ezingo du hiri egituraren eraldaketarik ekarri, ezta hiriguneen irudia aldatzea ekarri ere.

1.2. Lurzoru urbanizaezinak: lurzoru horiek upeltegiak ezartzeko erabiliko dira, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezartzea ezinezkoa denean, aurreko A atalean adierazitako baldintzak direla eta. Honako irizpideak ezarriko zaizkie: a) Upelak lurzoru-mota horretan ez dira inoiz ezarriko LZPak berak edo udal-plangintzak bereziki babestutako lurretan, babesaren arrazoia edozein izanik ere. b) Instalazio horiek garatzeko plan berezi bat idatziko da, eta, aldez aurretik, lursail hartzaileako esparruaren mugaketa finkatuko da, lursail horren pareko bide-tartea barne dela, beharrezko urbanizazioa ebatziko den moduan. c) Upeltegiak behar bezala ebatziko ditu oinarrizko zerbitzuen beharrak. d) Energia-kontsumorako eraginkortasun-irizpideei jarraituko zaie. Energia berriztagarriaren produkzioa gaineratuko da, batez ere eguzki-energiarena, kalkulaturako kontsumoaren gaineko %20an gutxienez, ingurunearen gaineko eragin kutsatzailea murriztuko den moduan. e) Egungo hiriguneekiko distantzia jakin bat finkatu gabe, ezarpenak ezin izango du ekarri funtsezko aldaketarik hiri-egituran edota haren irudi tradizionalen.	2.2. Suelos no urbanizables: lurzoru horiek upeltegiak jartzeko erabiliko dira baldin eta hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezinezkoa bada, aurreko 1.1. idatz zatian ezarritako baldintzak direla eta. Horientzako, hurrengo irizpideak jarri dira: a) Bereziki babestutako LUEn kokatzeko debekua: Upelak lurzoru-mota horretan ez dira inoiz ezarriko LZPak berak edo udal-plangintzak bereziki babestutako lurretan, babesaren arrazoia edozein izanik ere. b) Plan Bereziaren beharra: Instalazio horiek garatzeko plan berezi bat idatziko da, eta, aldez aurretik, lursail hartzaileako esparruaren mugaketa finkatuko da, lursail horren pareko bide-tartea barne dela, beharrezko urbanizazioa ebatziko den moduan. c) Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea: Upeltegiak behar bezala ebatziko ditu oinarrizko zerbitzuen beharrak. d) Energia berriztagarriak erabiltzea: Energia-kontsumorako eraginkortasun-irizpideei jarraituko zaie. Energia berriztagarriaren produkzioa gaineratuko da. Upeltegiek Eraikuntzako Kode Teknikoak, EKT, EA Od 4. UBSko gutxieneko eguzki ekarpena, xedatutakoa bete beharko dute: eskaria (3.1.1. puntua) lokal (administrazioa, hotela, tailerrak, jatetxea...) edo antzeko egoitza bakoitzari eman beharreko erabileren arabera zehaztuz eta, eskaturiko UBS litro kopuruaren arabera kalkulua eginez, gutxieneko eguzki ekarpena ezarri kontuan hartuta Arabako Errioxa II zonalde klimatikoan kokatzen dela. Gainera, instalazioetan behar izango den energia guztiaren beste zati garrantzitsu bat energiak aprobetxatuz, aldi berean sortzeko prozesuen bitartez edo eraikinekoa ez den beroa berreskuratzea instalazioetatik etorritako hondakin energia iturrien bitartez eskuratuko da. e) Kokalekua aurretik bertan dauden hiriguneekiko: Hiriguneekiko gorde beharreko distantzian gutxienezkorik ezartzen ez bada ere, ezarpenak ezin izango du ekarri funtsezko aldaketarik hiri-egituran edota horien irudi tradizionalen. f) Paisaiari egokitzea Udal plangintzak kontuan izan beharko du eraikinen
--	---

f) Litezkeen kokapen batzuen erakargarritasun-balioa zalantzan jarri behar ez dela ulertuz, positiboki baloratuko dira kokapenean integratzeari buruzko alderdiak. Ezarpenak ez dira muinoen gailurretan kokatuko, edota egungo paisaia naturalaren aldaketa larria ekarriko duten ageriko zonetan.

g) Gutxienez 10 ha-ko mahasti-saila izango duen azalera ekarri izana justifikatu beharko da, lursail hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lursail hartzailearen gutxieneko azalera 20.000 m²-koa izango da.

paisaiari egokitu behar izatea.

Litezkeen kokapen batzuen erakargarritasun-balioa zalantzan jarri behar ez dela ulertuz, upeltegien ezarpena ez da muinoen gailurretan kokatuko, edota egungo paisaia naturalaren aldaketa larria ekarriko duten ageriko zonetan.

Zehazki, Kantabria Mendilerroan eta 600 m-tik gorako kotan, upeltegien arteko distantzia ≥ 500 m-koa izan beharko da.

Gutxieneko jarraibide arautzaile batzuk ezarriko dira, bai malda duten lursailetan kokatuko diren eraikuntzetarako, eraikigarritasun gisa ez hartzeko "soto artifizialak" egiteko lurzoruaen profil naturala goratzea saihesteko, bai orografian aldaketak ekarriko dituzten lur mugimenduak mugatzeko.

Halaber, industria pabiloiak edo eraikuntza estandarizatuak eta errepikagarriak erabiltzea saihesteko arauak jarriko dira.

g) Mahasti landaketaren lotetsitako azalera eta lursail hartzailearen azalera

Mahasti sailak izango duen gutxieneko azalera lotura justifikatu beharko da, lursail hartzailearen eta osagarrien emaitza gisa. Lotura honakoa izango da:

- 8 ha "eraldaketa instalazio txikientzako".
- 12 ha "upeltegi handientzako" eta erabilera osagarriak eransten dituzten "eraldaketa instalazio txikientzako" (ostalaritza, eta abar).

Lursail hartzailearen gutxieneko azalera honakoa izango da:

- 5.000 m² (0,5 ha) "eraldaketa instalazio txikientzako".
- 10.000 m² (ha 1) "upeltegi handientzako" eta erabilera osagarriak eransten dituzten "eraldaketa instalazio txikientzako".

Lursail hartzailea eraikuntzaren eta/edo egin nahi den instalazioaren titularraren jabetzako edo jabari osoko titulupean aurkeztu beharko da beti. Lursail osagarria edo osagarriak, horrelakorik badago, jabetza osoko, alokairuko edo usufruktuko titulupean jarri ahalko dira, betiere, gutxienez hamar urteko epean hirigintza lotura izatearen baldintzapean eta kasuan kasuko Jabetza Erregistroan inguruabar hori inskribatzearen baldintzapean. Betekizun hori betetzeko beste upeltegi batzuei lotutako lursail guztiak (jabetzan edo lotuta) kanpoan utziko dira.

Hirigintza-atxikipen hori Plan Bereziari behin betiko


h) Gehieneko eraikigarritasuna, lursail hartzaileari soilik aplikatutakoa, $0,2 \text{ m}^2/\text{m}^2$-koa izango da, eraikin bakarrerako finkatutako 8.000 m^2-ko aprobetxamendu-mugatzaillearekin. Zenbait eraikin independente onartuko dira, baldin eta distantziari, orientazioari, etab. Dagokionez udal-plangintzak ezarritako xedapenak betetzen badituzte. i) Instalazio bakoitzak behar bezala ebatziko du aparkaleku-zuzkidura, gutxienez plaza bana aurreikusiz 100 m^2-ko, ibilgailu pribatuetarako. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie. Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 2.000 m^2-ko. j) Upelategiaren instalazio osagarriek, batez ere transformazioarekin zerikusia dutenek, tratamendu arkitektoniko egokia izan beharko dute, eraikin nagusiarekin bat etorriko dena, lursailean elementu sakabanatuak saihesteko. k) Mahastirako ez diren zatietan, baleude, lursailaren urbanizazioa bere osotasunera zabalduko da. Urbanizazioak paisaiarekiko integrazioaren printzipioak bete beharko ditu.	onespena eman aurretik egiaztatuko da, Jabetzaren Erregistroko ziurtagiriaren bidez h) Gehieneko eraikigarritasuna: Gehieneko eraikigarritasuna, sestra gainean, lursail hartzaileari soilik aplikatutakoa, $0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$-koa izango da, 8.000 m^2-ko aprobetxamendu mugatzaillearekin. Se admitirán varios edificios independientes atendiendo a disposiciones que establezca el planeamiento municipal en cuanto a distanciamiento, orientación, etc. i) Aparkaleku hornidura Instalazio bakoitzak behar bezala ebatziko du aparkaleku-zuzkidura. Aparkalekuen zenbaketa bulego eta lokaletarako aurreikusitako pertsonen okupazioaren arabera egingo da. Zenbaketa EKTn (SSA Od) ezarritako okupazio kalkuluei jarraiki egingo da. Aparkaleku horiei merkantziak garraiatzera zuzendutako ibilgailu astunetarako aparkalekuak gaineratu beharko zaizkie "upeltegi handietan" eta erabilera osagarriak eransten dituzten "eraldaketa instalazio txikietan". Horrez gain, autobusetarako aparkaleku 1 aurreikusi beharko da, turismoetarako aparkalekuez bestelako 3.000 m^2-ko. j) Arkitektura tratamendua Las instalaciones complementarias de la bodega, sobre todo aquellas relacionadas con la transformación, deberán contar con un tratamiento arquitectónico adecuado y acorde con la edificación principal, evitando la aparición de elementos dispersos por la parcela. k) Hirigintzaren tratamendua La urbanización de la parcela receptora se extenderá a su totalidad para las partes no dedicadas a viñedo si las hubiera. La urbanización será acorde con los principios de integración con el paisaje. l) LPPa indarrean jartzean jada existitzen diren upeltegiak Aldez aurretik zeuden upeltegiei dagokienez, egungo LPParekin bat ez datozen bi kasu aztertuko dira: - Babes bereziko lurzoruetan kokatzen diren upeltegiak, erreforma edo zabaltze egintzak onartuko ez dituztenak (mantentze lanetarako beharrezkoak direnak soilik). - Lehendik zeuden upategietan, LPPan bereziki babestu beharreko lurzoruetan ez badaude, egun
---	---

	eraikuntzak hartzen duen azalera % 25 handitzeko aukera emango da. Hala ere, eraikuntzak lursailaren % 50 hartu ahal izango du gehienez. m) Dauden pabiloiak eraldatzea LPPa onartu zenean jada existitzen ziren nekazaritzako pabiloiak upeltegi bihurtzea ahalbidetuko da, betiere, babes bereziko lursailak ukitzen ez badira, eta lursail hartzailearen gutxieneko azaleraren edo gehieneko eraikigarritasunaren parametroa betetzen ez bada ere. Aurrekoaren kaltetan izan gabe, pabiloiak 2.2 idatz zatian ezarritako gainerako baldintzetara egokitu beharko dira.
--	---

34 BIS ARTIKULU BERRIA: “NEKAZARITZAKO BESTE ERAIKUNTZA BATZUK”

34bis artikulua.- Nekazaritzako beste eraikuntza batzuk

Upeltegia ez den nekazaritza erabilerako edozein eraikuntza lurzoru urbanizaezinean kokatzeak aurreko 34. artikuluan berariaz adierazitako parametroak bete beharko ditu “eraldaketako instalazio txikiei” dagokienez (lurzati hartzailea, eraikigarritasuna, eta abar). Salbuespena mahasti landaketaren azalera lotetsiari buruzko alderdia da, ez baita derrigorrezkoa.



ESPECIAL PROTECCION

ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS
(Biotopos protegidos, áreas de interés naturalístico y Red Natura 2000)

LIC Sierra de Cantabria (ES2110018)

Biotopeo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia (Lagunas Carralagrón, Carravaleca, Prado de la Paul y de Musco) LIC (ES2110021)

LIC Río Ebro (ES2110008) (Incluye los Sotos de Gímileo)

Carrascales de Kripan y Navaridas

Pinar de Dueñas

Coscojar de Laserna

OTROS ENCLAVES DE INTERES

Quejigal de Leza

Carrascales de Leza

Area de El Esperal

Sotos de Labastida

Laguna de Navaridas

Lagunas de Cuatro Encinas y San Gregorio

Laguna de El Aguarchal

Laguna de Elciego

Tamarizal de mantible

AREAS FORESTALES DE INTERES

INTERES HIDROLOGICO. AGUAS SUPERFICIALES

Río Ebro y arroyos tributarios

AREAS DE INTERES GEOLOGICO-GEOMORFOLOGICO

Sistema de terrazas del Ebro y afluentes

ACUIFERO SIERRA DE CANTABRIA

COTA 600m

600 mko kota

BABES BEREZIA

ESPASIO NATURAL BABESTUAK
(Biotopo babestuak, Interes naturalistikoak eremuak eta Natura 2000 Sarea)

Kantabria Mendilerroa (KBE) (ES21100018)

Laguardiako alintzaguneko biotopo babestua (Carralagrón, Carravaleca, Prado de la Paul eta Musco alintzirak) (KBE ES2110021)

Ebroi itala (Sotos de Gímileo izeneko gunea barne)

Kripan eta Nabardasko artadiak

Dueñasko pinudia

Lasernaako abarzitza

INTERESEKO BESTELAKO ENKLABEAK

Lezako erkameztia

Lezako artadiak

Esperal eremua

Laguna de Navaridas

Navaridasko alintzira

Cuatro Encinas eta San Gregorio alintzirak

El Aguarchal alintzira

Elciegoko alintzira

Mantibleko miazkazdia

INTERESEKO BASO EREMUAK

INTERES HIDROLOGIKOKO EREMUAK LUR GAINEKO URAK

Ebro itala eta ibaladarrek

INTERES GEOLOGIKO-GEOMORFOLOGIKOKO EREMUAK

Ebroren eta haren ibaladarren terraza-sistema

KANTABRIA MENDILEROAKO AKUIFEROA

1

CONDICIONANTES AMBIENTALES 1

INGURUMEN BALDINTZATZAILAK 1

ESCALA / ESKALA: 1:50.000

ABRIL 2010 / 2010ko APRILIA

GOBIERNO VASCO


EUSKO JAURLARITZA

DIPUTACION FORAL DE ALAVA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL PARCIAL DE LAGUARDIA (RIOJA ALAVESA) RELATIVA A LA REGULACIÓN DE LAS CONSTRUCCIONES AGRÍCOLAS Y BODEGAS EN EL ÁREA FUNCIONAL

BIASTERIKO (ARABAKO ERRIKHA) LURRALDEKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETAREN INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA, EREMU FUNTZIONALEAN NEKAZARITZA ERAIKUNTZAK ETA UPELTEGIAK ARAUTZEARI DAGOKIONEZ



RED DE CORREDORES

ÁREAS DE NÚCLEO

LIC Sierra de Cantabria (ES2110018)
Pinar de Dueñas
Carrascales de Kripán y Navarrias
Coscojar de Laserna
Quejigal de Leza
Carrascales de Leza

CORREDORES DE ENLACE

ÁREAS DE AMORTIGUACIÓN

TRAMOS FLUVIALES DE ESPECIAL INTERÉS CONECTOR COMARCAL

KORRIDORE EKOLOGIKOETAKO SAREA

EREMU NUKLEOAK

Kantabria Mendilerroa KBE (ES2110018)
Duessko pinudia
Kripán eta Navarriako artadiak
Laserna abaritia
Lezako erkameztia
Lezako artadia

LOTURAZKIO KORRIDOREAK

IDARGETZE EREMUAK

ESKUALDEKO LOTURA INTERES BEREZIKO IBAITARTEAK

ÁREAS DE DISTRIBUCIÓN DE ESPECIES DE FAUNA AMENAZADA

LIC RÍO EBRO (ES2110008)
Área de Interés Especial para el pez zapador, pez lamprehuela, nutria, visón europeo, blenio de río y avión zapador.
Área de Interés Especial para el avión zapador

ZONA DE BURADÓN

LIC SIERRA DE CANTABRIA

MEHATXATUTAKO FAUNA ESPEZIEEN BANAKETA-EREMUAK

EBRO IBAIA KBE (ES2110008)
Zapardá arrainaren, Mozkar arantzadunaren, Igarabaren, Bisoi europarraren, Ibaí kabuxaren eta Uhalde Enararren Interés Berezikoa Eremua.

BURADÓN ZONA

Bonelli Arranoarentzat Interés Berezikoa Eremua

KANTABRIA MENDILERROA KBE (ES2110018)
Ugatzarentzat Interés Berezikoa Eremua

ÁREAS DE DISTRIBUCIÓN DE ESPECIES DE FLORA AMENAZADA

ORCHIS ITALICA POIRET (VULNERABLE) (1,3)
ERODIUM DAUCOIDES BOISS (RARA) (2)
ERODIUM GLANDULOSUM (RARA) (2)
SENECIO CARPERTANUS BOISS (VULNERABLE) (4)
ARENARIA ERINACEA BOISS (RARA) (5)
CARDAMINE HEPTAPHYLLA (VULNERABLE) (5)
HIMANTOGLOSSUM HIRCINUM (INTERES ESPECIAL) (5)
GALIUM PYRENAICUM GOUAR (RARA) (6,7,9,12)
LOMELOSIA GRAMINIFOLIA (RARA) (7,8,10)
PEDICUBRIS FOLIOSA (RARA) (11,12,13)
TROLLIUS EUROPAEUS (RARA) (11,12,13)
BROTICHUM LUNARIA (RARA) (13,14,15,17)
EPILOBIUM MANGUSTIFOLIUM (VULNERABLE) (13)
IRIS LATIFOLIA (RARA) (13,18)
NEPETA TUBEROSA L. SUBSP. RETICULATA (RARA) (16,19,20)
SATUREJA MONTANA L. (INTERES ESPECIAL) (16,19,20)

MEHATXATUTAKO FLORA ESPEZIEEN BANAKETA-EREMUAK

ORCHIS ITALICA POIRET (KALTEBERA) (1,3)
ERODIUM DAUCOIDES BOISS (BAKANA) (2)
ERODIUM GLANDULOSUM (BAKANA) (2)
SENECIO CARPERTANUS BOISS (KALTEBERA) (4)
ARENARIA ERINACEA BOISS (BAKANA) (5)
CARDAMINE HEPTAPHYLLA (KALTEBERA) (5)
HIMANTOGLOSSUM HIRCINUM (INTERES BEREZIKOIA) (5)
GALIUM PYRENAICUM GOUAR (BAKANA) (6,7,9,12)
LOMELOSIA GRAMINIFOLIA (BAKANA) (7,8,10)
PEDICUBRIS FOLIOSA (BAKANA) (11,12,13)
TROLLIUS EUROPAEUS (BAKANA) (11,12,13)
BROTICHUM LUNARIA (BAKANA) (13,14,15,17)
EPILOBIUM MANGUSTIFOLIUM (KALTEBERA) (13)
IRIS LATIFOLIA (BAKANA) (13,18)
NEPETA TUBEROSA L. SUBSP. RETICULATA (BAKANA) (16,19,20)
SATUREJA MONTANA L. (INTERES BEREZIKOIA) (16,19,20)

Cota 600 m

600 mKo kota

2

CONDICIONANTES AMBIENTALES 2

INGURUMEN BALDINTZATZAILAK 2

ESCALA / ESKALA: 1:50.000

ABRIL 2010 / 2010ko APRILIA

GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA

DIPUTACION FORAL DE ALAVA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL PARCIAL DE LAGUARDIA (RIOJA ALAVESA) RELATIVA A LA REGULACIÓN DE LAS CONSTRUCCIONES AGRÍCOLAS Y BODEGAS EN EL ÁREA FUNCIONAL

BIASTERIKO (ARABAKO ERRIOKA) LURRALDEKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETAREN INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA, EREMU FUNTZIONALEAN NEKAZARITZA ERAKUNTZAK ETA UPELTEGIAK ARAUTZEARI DAGOKIONEZ

GAZTAK